

 Emakumeak ahalduzko espazioak

 Julen Astigarraga ekologoari elkarrizketa



ONDARE ETNOGRAFIKOA DOKUMENTATU DUTE

'Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa' liburua aurkeztuko dute gaur Oñatin; herriko kultur ondare etnografikoa batu dute bertan / 36

Oñatiko Gure Bazterrak kultura elkarteko kideak Azkarreta baserrian oraingo astean, baserrietako hainbat objektu ohikorekin. XABIER URZELAI

150 milioi euro irabazi ditu Laboral Kutxak 2022an; 2021ean baino ia %40 gehiago / 2

500 urte bete ditu Antzuolako parrokiak; datorren astean hasiko dituzte ospakizunak / 20

Oñatin ezin izango da patinete elektrikoan ibili oinezkoendako diren guneetan / 37

Debagoieneko hamar eskolatako neska-mutikoeak hartuko dute parte 'Galdegazte'-n / 48

SINADURAK

 MONIKA MADINABETTIA MEDRANO / 6	 AIÑOHA PARDINA / 32
 JOHANNA SANCHEZ / 9	 ASIER UGARTE IMAZ / 37
 OLAZ ABASOLO / 29	 MIKEL BIAIS / 48



MARTXOAREN 8A
ORRIALDE
BEREZIAK / 21

2MÓ 99€
ERREFLEXUEN
AURKAKO
GRADUATUAK

Kontsultatu optikan kanpoinaren ezaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiopicas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

8.PS. 9/1/20



Bergarako San Martzial bideko zubian dagoen baranda, Deba ibaiaren gainean. ENKO AZKARATE

Ibaietako zaborra kentzea eskatu du Eguzkik

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak eskatzeko eskaera egin die Eguzkik Antzuolako, Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako eta Bergarako udalei, ibaietako zaborra kentzeaz gain babes-neurriak jartzeko, ibaietara zaborrik eror ez dadin

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Eguzki Talde Ekologistak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak eskatzeko eskatu die Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Bergarako udalei, Deba ibaiako zaborra kentzeaz gain, barandaren azpian babes neurriak jar ditzaten; horrela, lurreko hondakinak erori ez daitezten. Halaber, Antzuolako Udalarari ere babes neurri bera eskatu dio Deskarga ibairako.

Talde ekologistako kideek adierazi dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Sailak bost dirulaguntza-lerro onartu dituela eta horietako bat udal eta mankomunitateentzat dela, hala nola ibai, kosta eta lehorretako inguruneetan sakabanatutako zaborren metaketa saihesteko eta jarduketa hori zuzentzen laguntzen duten ekintzak gauzatzeko, "sakabanatutako zaborren fokuak minimizatzeke helburuarekin, horiek baitira itsasoko kutsaduraren eta na-

turaguneen degradazioaren gune nagusietako bat".

Neurririk hartzen ez bada zaborra itsas ekosistemara iritsiko dela uste dute, eta urtetik urtera handitzen den arazoa dela. Talde ekologistako kideek azaldu dute Aldundiak duela urte batzuk ikerketa bat egin zuela eta ondorioztatu zutela ibaietara zakar asko doala, eta handik itsasora: "Arazoa ibaie-tatik dator. Gure ibaiek hamarkadak daramatzate zaborte-giak izaten. Isurketarekin arazoak ditugu. Gure helburua herritar-rrak kontzientziatzea da".

Udalen erantzuna

Debagoieneko Mankomunitatearen eta udalen erantzunik

NEURRIAK HARTZEKO LANEAN ARI DIRELA ADIERAZI DUTE DEBAGOIENEN KONTZIENTZIATZEAREN ERANTZUNA

jaso ez duela adierazi du Eguzkik, eta, aldi berean, nabarmendu du barandak aprobetxatu ditzaketela saretan jartzeko, "horrek aukera ematen baitu isurketak saihesteko".

Mankomunitateak jakinarazi duenez, ez dute laguntzarik eskatu, momentuz. Udaletan galdetuta, berriz, Arrasaten eta Antzuolan neurriak hartzeko asmoa agertu dute. Anuska Ezkurra Arrasateko Udal Gobernuaren bozeramaileak dio kontuan hartzen duten gaia dela eta esku-hartzea egiten dela Ingurumen Eskolatik. "Gainera, neurriak hartzeko asmoa badaukagu, horretan lanean ari gara". Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak aurreratu du aztertzen ari dela: "Nik uste dut saretak jarriko ditugula". Azpimarratu duenez, gakoa herritarren jarreran dago: "Kaleak ahalik eta gutxien zikintzea eta kaleko zaborra erre-kara ez joatea lortu behar dugu. Garbitzea baino gehiago, ez zikintzea da garrantzitsua".



Txomin Garcia, Laboral Kutxako lehendakaria, eta Xabier Egibar, zuzendaria. L.K.

150 milioi euro irabazi ditu Laboral Kutxak 2022an

Gainera, sektoreko kaudimen-mailarik onenetakoa duela jakinarazi du: %22,24ko CET1eko ratioa

I.A.A. DEBAGOIENA

150,5 milioi euroko irabazi garbiak izan ditu Laboral Kutxak 2022an, 2021ean baino %38,36 gehiago, eta pandemiaren aurreko irabazien emaitzak gainditu ditu. Entitateak azaldu duenez, euren jarduna "egokia" izan da eta "ekarpen orekatua izan dute negozio-arlo nagusiek".

Irabazi horien arrazoi nagusiak bi izan direla nabarmendu dute: alde batetik, merkataritza-jarduera geroz eta biziagoa; eta beste alde batetik, "ohiko banku-negozioaren marjinak pixkanaka normalizatu izanak

urtearen bigarren erdian sortutako diru-sarrerak".

Hala, Laboral Kutxak sektoreko kaudimen-mailarik onenetakoa duela jakinarazi du: CET1 ratioaren bidez neurtuta %22,24koa dauka. Interes-margina %17,13 hazi da, 280,8 milioi euroko mozkinak lortuta; izan ere, "kreditu-zorroak ekarpen handiagoa egin du, interes-tasen kurban erregistratu den aldakuntzaren ondorioz, eta diru-sarrerak ere mardulagoak izan dira". Komisionen ondoriozko sarrera garbiak ere igo egin dira: %4,3 hain zuzen ere.



ASPEGI

Aspegi saria jaso du Larrañagak

Joan den egubakoitzean egin zuen sari banaketa Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarteak (Aspegi), Donostian; Izaskun Larrañaga bergararrak jaso zuen saria, Enpresari arloan. Lacor-Ibili Taldeko kontseilari delegatua da Larrañaga. Zuzendaritza/Profesional kategorian, berriz, Leire Etxetxikiari egin diote aitortza.



Ereindajanen Bergarako denda. LANDAOLA FEDERAZIOA



Zubillaga-Oñati hiltegia. LANDAOLA FEDERAZIOA

Bailarako bi erakunde Landaola sarietan

VI. Landaola sariak banatuko dituzte gaur eguerdian Berastegin, eta Ereindajan Bergara da erakunde pribatuaren arloko sarietako hautagaietako bat; Zubillaga-Oñati hiltegia, berriz, erakunde publikoaren kategoriako hautagai

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Landaola federazioak VI. Landaola sariak banatuko ditu gaur, eguerdiko hamabietan, Berastegiko Udalean. Guztira, lau kategoriatan banatuko dituzte sariak eta horietako bitan Debagoieneko bi enpresa dira hautagai: erakunde pribatuetan Bergarako Ereindajan eta erakunde publikoetan, berriz, Zubillaga-Oñati Hiltegia. Bi entitateetako ordezkariak poz handiz hartu dute berria, halako sariarekin euren egindako lanari aitortza egiten zaiela irizten baitiote. Halaber, Emakumeak Landa Eremuan saria eta Urteetako Ibilbidearen saria egunean bertan jakinaraziko dituztela adierazi du Landaolak.

Landaola Gipuzkoako landa-eremuaren garapenaren alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Sei landa garapen elkartek osatzen dute eta tartean da Deba-Garaia. Mahai horretan Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Landa Garapen ordezkariak ere badaude. Sarien helburua da landa garapen proiektuak errekonozitzea.

Nekazari-eredu agroekologikoa Ereindajanez nekazari-eredu agroekologikoa bultzatzea du helburu. Aurreko urteko sari banaketan egon zirela aitortu dute, Elgetako eskolarekin egiten baitute *Hamaiketako osasuntsua* ekimena. Angiozarko Eskola Txikiko jangelan tokiko eta sasoiko menuak eskaintzeko lanketa egin dute; baita Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikasketxeetan ikas bidaiarako ota-rtareen proiektua garatu ere. Elkartearen ustez, azken horiek hartu dituzte kontuan hautagaitza proposatzeko.

Ekoizleekin gertuko harremana 1983an sortu zen Zubillaga-Oñati hiltegia eta Debagoieneko berderatzi herriek eta Zumarragak, Urretxuk eta Legazpik bultzatutako zerbitzu-enpresa publikoa da. Azaldu dutenez, "apenas" ez dago halako zerbitzu publikorik. Ondorioz, hautagaitzarekin eskertuta agertu dira. Adierazi dute gertuko harremana dutela base-rritarrekin eta abeltzainekin, eta euren zerbitzua beharrezkoa dela "bertako ekoizleen produkzio txikia aurrera ateratzeko".

Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rola betikotzen direlako baizik.

Martxoak 8,
Emakumeen
Nazioarteko Eguna

EMAKUMEAK
GORA

emakumeakgora.eus

araba álava
Euzko alifantia diputación foral

Bizkaia
Euzko alifantia diputación foral

GUZTIA
Euzko alifantia diputación foral

EUDE
Euzko alifantia diputación foral

EMAKUNDE
Euzko alifantia diputación foral

EMAKUNEK
Euzko alifantia diputación foral

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

Familiek eska ditzakete 200 euroko laguntzak

200 euro jasoko dituzte familiek 3 urtera arteko ume bakoitzeko eta 100 euro 3tik 7ra bitartekoengatik, hirugarren seme-alaben edo ondorengoen kasuan. Laguntzak eskatzeko epea zabaldu da astean eta urriaren 31ra arte egongo da aukera

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Seme-alabak hazi eta mantentzeko Eusko Jaurlaritzak iragarritako dirulaguntzak eskatzeko aukera dago aste honetatik. Martxoaren lehen abiaturik da eskaera egiteko epea eta urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Baldintzak betetzen dituzten familiek 200 euro jaso ahalko dituzte hilean, 0-3 urte bitarteko seme-alaba bakoitzeko. Guztira, 2.400 euro haur bakoitzeko urte osoan. Haurrak 3 eta 7 urte bitartean dituenen, hilean 100 euroko laguntza egongo da; betiere, hirugarren seme-alaben eta ondorengoen kasuan. Bestetik, %33ko desgaitasuna edo mendekotasun onartua duten haurrengatik bikoitza jasoko dute familiek. Alegia, 0 eta 3 urte bitartean dituenen 400 euro hileroko eta 3 eta 7 urte bitartean 200 euro hileroko. Hilero laguntza jasotzeaz gain, erditze anizkoitzek eta adopzio anizkoitzek aparteko laguntza jaso ahal izango dute. Ordainketa bakarrek laguntza izango da eta laguntzaren zenbatekoa erditze edo adopzio anizkoitzaren seme-alaba kopuruaren eta familia-errenta estandarizatuaren arabera finkatuko da. Kasu honetan ordainketa bakarra izango da eta jasoko duten gu-



Aita bat eta ume bat, Arrasaten. GOIENA

txienekoa 2000 euro izango dira. Baldintza hauek betetzen dituzten familia guztiak kobratu ahal izango dute laguntza berria, umea 2023a baino lehen jaio bada ere. Laguntza, 2023ko urtarrilaren 1etik hasita kobratuko da.

Eusko Jaurlaritzak 110 milioi bideratuko ditu prestazio horiei aurre egiteko. Eta aurreikusten dute 65.000 pertsonak edukiko dutela aukera laguntza horiek eskuratzeko. Gizarte Politiketako sailburuorde Libe Amilibiak azaldu duenez, "oso laguntza

garrantzitsuak dira", eta espero dute laguntzek ahalbidetuko dutela "herriarrek nahi adina seme-alaba izatea".

Erronka demografikoa

Eusko Jaurlaritzaren erronka demografikorako 2030 euskal estrategiaren baitakoak dira dirulaguntzak. Estrategia horren baitan, 36 neurri osagarri gartuko dituzte, "susperzte demografikoaren aldeko baldintzak izango dituen ekosistema eratzeko", eta dirulaguntza horiek dira horren baitan erakundeak

proposatzen dituen garrantzitsuenetakoa.

Izan ere, jaiotza-tasak behera egin du nabarmen azken urteetan. 2022an %4,9ko beherakada izan du EAEn. Lurraldeka, behe-rakadarik handiena Gipuzkoan gertatu da, %11,5erainoko jai-tsierarekin. Debagoiengan, berriz, 2015era arte nahiko parekatuta ibili da indizea, baina 2015etik hona beherakada handia gertatu da; izan ere, azken zazpi urteotan %34,7 jaitsi da.

Eskaerak egiteko modua

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak telefono-zenbaki bat eta helbide elektronikoko bat jarri ditu martxan, seme-alabak hazi eta mantentzeko hileko laguntza berriei buruzko informazioa jasotzeko: 945 06 20 40 eta umeak@euskadi.eus. Laguntza telematikoki eskatu ahalko da, baita zuzenean ordezkartzen bidez –Bilbon, Donostian eta Gasteizen–, posta bulegoetan eta udaletan. Eta urriaren 31ra arte luzatuko da eskaerak egiteko epea.

Beti lagungarri

Laguntzak ondo etorriak izango dira onuradun izan daitezkeen familietan. "Laguntza ongi etorria da, kontuan izanda, gainera, bizitzaren prezioak nola egin duen gora azken hilabeteetan eta jaiotza-tasak zer-nolako beherakada izan duen Euskal Herrian. Arazo horri aurre egiteko gurasoei erraztasunak jartzea da aukera bat, eta dirulaguntzak bat izan daitezke. Gurean alokairuek, elikagaiek, hipotekak, erregaiak, argia... denak egin du gora, eta soldatek ez; beraz, ume txikiak dituztenendako egoki ikusten dut dirulaguntza", dio Josu Bilbaok, 9 hilabeteko

ume baten aitak. Hala ere, haren ustez, ez da nahikoa: "200 euro horiek ez diote zaintza eta kontziliazio arazo potoloari erantzunik emango. Gainera, dirulaguntza guztiak jasoko dute, eta ez bakarrik benetan behar dutenek, errenta baxuagoak dituztenek, langabezian daudenek, umearen zaintzarako lana utzi dutenek". Bi seme-alabaren ama da Arrasateko Ainhoa Elortza. Txikiak 11 hilabete ditu eta 200 euro jaso ahalko dituzte urtean, 3 urte betetzen dituen arte. "Beti dira ongi-etorriak laguntzak, edozein erakoak izanik ere. Zalantza dut bere horretan jaiotza-tasa sustatzeko balioko duten, baina familioi ongi etorriko zaigula zalantzarik ez. Bizimoduaren garestitzeak eragin itzela izan du familiengan eta beti da laguntza bat. Hala ere, ikusi egin behar noiz iristen diren, eskaera asko tramitatu beharko dituzte denbora gutxian eta baliteke horrek atzerapenak eragitea". Amaia Biain eta Andoitz Barriola hiru seme-alabaren guraso dira. Txikiak ez ditu 2 urte oraindik eta laguntza eskatu ahal izango dute. "Laguntzak ez ditu seme-alabak hezteko familioi izan ditzakegun arazo guztiak konponduko, baina ondo etorriko da, zalantzarik ez. Hala ere, diru sarreren arabera banaketak egitea bidezkoago litzateke, ezin baitira zaku berean sartu diru sarrera altuko eta baxuko familiak", azaldu dute.

ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 ESTRATEGIAREN BAITAKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK

Martxoaren 10era arte matrikulatu daiteke UNEDen

UNEDek bigarren lauhilekoko irakasgaietan matrikulatzeko aukera eskaintzen du

Miren Arregi Amasorrain BERGARA Ezohiko matrikulazio-epea zabaldu du UNEDek, bigarren lauhilekoan izena emateko. Hala, UNEDek eskaintzen dituen unibertsitate ikasketak, gradu, master edo doktorego programa bat

online edo prestakuntza erdi-presentzialean egiteko interesa dutenek martxoaren 10era arte dute epea, ikasturte hasieran matrikularik ez egin arren eta lehen lauhilekoko irakasgaiak jaso ez badituzte ere. Ez dago

plaza-mugarik, ez dago gaintu beharreko notarik eta ikasle bakoitzak komeni zaion kreditu-kopurua aukeratu ahal izango du. Ezohiko matrikulazio-epe horren bitartez, UNEDek "beste urrats" bat egin gura du interesdunei beren unibertsitate-graduak egiteko aukerak errazteko helburuarekin. Informazio guztia eskuratu daiteke www.uned.es/ca-bergara webgunean edo zentroarekin harremanetan jarritik: 943 76 90 33 zenbakian edo info@bergara.uned.es helbidean.

First Lego League, bihar, MÜren Iturrieko Campusean

Bihar, goizeko hamarretan hasita, First Lego League torneoaren Euskadi mailako kanporaketa egingo da Mondragon Unibertsitateko Iturrieko Campusean. Bihar lehiatuko diren taldeek estatu mailako First Lego League finalerako sailkatzea izango dute helburu. Gaur-gaurko zientzia arloko gai bat landuko dute ikasleek; izan ere,

Superpowered erronka medio, haien programa zientifikoan energia nondik datorren eta nola banatu, nola biltegitatu eta nola erabiltzen den aztertuko dute. Biharko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko hamabost ikastetxetako ikasleek hartuko dute parte. Guztira, 400 inguru batuko dira, 43 taldetan banatuta. Parte-hartzaileak bi kategoriatan lehiatuko dira: 25 taldek *Challenge* kategorian hartuko dute parte eta hemezortzik, berriz, *Explore* kategorian.



Langileak Mondragon Assembly-n; instalazio horiek eta Lanbide Eskolakoak bisitatuko dituzte jardunaldian. GOIENA

Berritzeko aukeren berri emango diete enpresei

Debagoieneko enpresa txiki eta ertainetako kideek berrikuntza-gaitasunak indartzeko jardunaldian parte hartu ahalko dute martxoaren 16an, osteguna, Aretxabaletako Lanbide Eskolan, Enpresarek, Mankomunitateak eta Innobasquek antolatuta

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak aholkularitza, laguntza, prestakuntza, bazkideen bilaketa eta informazioa eskaintzen dizkie euskal enpresei, errazago sar daitezkeen berrikuntza eta ikerketa-proiektuak finantzatzeko Europako Batzordearen funtsetan. Ildo horretan, *Berritzen laguntzeko zerbitzuen aurkezpen jardunaldia* egingo dute Aretxabaletako Lanbide Eskolan, 15:00etatik 17:00etara, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Enpresarek -Bergarako eta inguruko industria ehuna sustatzeko elkarte- arteko elkarlana lagun.

Jardunaldia "eskualdeko enpresen berrikuntza-gaitasunak indartzeko" dago bideratuta. Bertan parte hartzeko, Innobasquearen webgunean eman daiteke izena. Innobasqueko proiektu-arduradunen eskutik berrikuntza metodoetan sakonduko dute bailarako enpresetako kideek, gakoak emango baitizkie-

te enpresa bakoitzaren berrikuntza-mailaren diagnostikoa egiteko, erronka zein aukera-eremuak atzemateko eta lehiakortasuna hobetzeko, eskuragarri dauzkaten tresna zein eragilean mapa aurkeztuta. Debagoieneko lau enpresen kasu praktikoak ezagutzeko aukera ere egongo da. Kasu inspiratzaile horietako bat, Mondragon Assembly, bertatik bertara ezagutzeko parada ere izango dute ekitaldiaren amaieran.

Topaketa hasi aurretik, ordu erdiko tartean, Aretxabaletako Lanbide Eskolako instalazioak erakutsiko ditu hezkuntza-zentroko zuzendari den Joseba Beristainek. Jardunaldiaren aurkezpena Juan Bautista Ayerbek

BERRIKUNTZAREN ARLOAN EGIN DUTENA AZALDUKO DUTE BAILARAKO LAU ENPRESAK

egingo du, Enpresareko zuzendari exekutiboak. Ondorengo 45 minutuetan *Nola kudeatu zure ETEaren berrikuntza: autodiagnostikoa, metodologiak eta laguntza-konponbideak* izeneko hitzaldia egingo dute Innobasqueko Uribarri Goikuriak eta Olga Gomezek eta AFM Cluster For Advanced And Digital Manufacturing-eko Jon Arreguik.

Gertuko kasuak

Hurrengo gaiaren helburua Debagoieneko ETEen berrikuntza kasu praktikoak ezagutzeko da. Lazpiurko zuzendari nagusi Ander Aramburuk, Metagrako Finantza zuzendari Javier Ibarrek, Mondragon Assemblyko Ikerketa eta Garapen arloko zuzendari Jean-Philippe Aguerrek eta Industrias Ugatuko zuzendari nagusi Amaia Ugaldek egingo dute berba. Bukatzeko, Oihana Agirrek, Mankomunitateko Enpresa eta Energia teknikariak, hurrengo urratsak zehaztuko ditu.



Elgetako kaleak zurituta joan den astelehenean. IBAN ARANTZABAL

Hotza, izotza eta elurra izan dira protagonista otsail bukaeran

Elurra itsas mailaraino iritsita, bailarako herriak zuritu egin ziren astelehenean; asteburuan ere hotz egingo du

H.L. DEBAGOIENA

Iragarritako moduan, tenperatura baxuekin hasi zen astea, 2 eta 6 gradu arteko maximoekin, eta horrek izotza eragin zuen. Baita elurra ere. Otsailaren 27ko eguerdi partean izan ziren zaparrada mardulenak. Mendateetako errepideetan eragina izan zuen denboraleak, Kanpanzar itxita egon baitzen une batzuetan; Kruzeta kateekin gidatu beharra zegoen eta Gatzagan, Pagatzen, Deskargan eta Arantzazun arretaz gidatzea gomendatu zuen Trafiko Sailak. Horrez gain, Lurraldebus-eko autobus

zerbitzu batzuk bertan behera geratu ziren.

Eguraldi hodeitsua

Asteburura begira, Euskalmeten iragarpenen arabera tenperaturak egonkor mantenduko dira, 3 eta 10 gradu artean. Elur-kota 1.000 metro ingurura igoko da eta herriguneetan euria egin dezake. Astelehen eta martitzenean asteburuan baino hotz handiagoa egingo du.

Urkuluko urtegiako emaria zertxobait igo da azken egunotan, eta, gaur-gaurkoz, betetze-maila %70ean dago, alerta egoeran.



ANDONI GOITI

Hiru zauritu auto-istripuan

Martitzen arratsaldean, otsailak 28, kamioi batek eta auto batek talka egin zuten GI-627 errepidean Bergaran, Miguel Altuna institutuaren egoitza berriaren parean, Arrasateko noranzkoan. Ertzainak, udaltzainak, suhiltzaileak eta bi ambulanzia bertaratu ziren hiru zaurituak artatzeko; bi Debagoieneko ospitalera eroan zituzten eta bat Gasteizera, Santiagora.



ZABALIK

MONIKA MADINABEITIA MEDRANO

40 segundo

40 segundo 0,666666667 minutu dira, 0.011111111 ordu. Huskeria, ezta? Osakidetzan medikua den Iñaki Peñari lapurtu dizkiot gaurko izenburua eta gaia, hura eta hark eskainitako segundoak baitira gaurko protagonista nagusiak.

Stephen Trzeciak eta Anthony Mazzarelli medikuek (Cooper University Health Care, New Jersey) frogatu zuten pazienteak errukiz tratatzeak, errukia erlijio-konnotaziorik gabe ulertuta, paziente eta medikuentzat, bientzat dela onuragarria. Diotenez, gaixoekin aritzen direnek arreta emozionala eskaintzen dutenean balio du mina eta antsietatea arintzeko, osatze prozesua bizkortzeko, kostu medikoak jaisteko eta asebetetze pertsonala sentitzeko.

Adimen artifizialarekin liluratuta, distrahituta, gauden garaiotan, non tematuta gauden makina batek gizakien

ADIMEN ARTIFIZIALAK LILURATUTA, IZAKI BIZIDUNOI AHAZTU EGITEN ZAIGU GIZAKI IZATEA

garunaren eta bere funtzionamenduaren ulermena areago dezan, izaki bizidunoi ahaztu egiten zaigu gizaki izatea. Kostatzen zaigu baita 40 segundo hartzea ere, eta, oraindik gehiago,

enpatiarako. Oin-ohar gisa, enpatia da beste baten azalean jartzea versus gure ustez hark senti edo pentsa beharko lukeenaz doktrinatzeari, sarri egiten dugun bezala. Indartzen dabilen praktika falta horretan murgilduta gaudela, agian, laster, horrenbeste miresmen sortzen duen Chat GPTri galdetu beharko diogu ea zer egin behar dugun hiltzear gaudela.

Iñaki Peña orain dela gutxi ezagutu nuen, aurrez aurre, ospitalean. Hunkitu egin ninduen haren zereginak albo batera utzi eta gure sendi maitearen amaieran gurekin egoteko tartea hartu izanak. Ez dakit 40 segundo bakarrik izan ziren, baina lagundu zigun mina pixka bat arintzen. Eta eskertuta gaude. Zorionez, Iñaki Peña bat baino gehiago dago Osakidetzan. Zoritzarrez, ez dira nahikoak. Zoritzarrez ere, egungo sanitarioen lan-baldintzek ez dute batere laguntzen.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Royde kooperatibaren urteurrenean

MIKEL ERRASTI LEGAZPIA

ROYDEREN IZENEAN BERGARA

Ariketa txiki bat proposatu nahi dizuet: orain dela 40 urte non eta zertan ari zineten galdetuko balizute, gai izango zinatekete erantzuteko?

Askorendako nekeza izango da gogoratzea zertan zineten; beste askorendako, ezinezkoa, jaio gabe egongo zineten eta.

1983ko martxoaren 3an, Royde kooperatiba sortu zen Bergarako Amillaga kalean.

Aurretik Sussen Vasca bezala ezaguturiko Alemaniako filiala erosi zuten bertan lanean zebiltzan langileak.

Ez zen erraza izan: inongo esperientziarik gabe enpresa baten kudeaketan, eta kooperatibismoan; langile izatetik ugazaba izatera oso denbora laburrean. Hasierak, gainera, beste traba batzuk ere izan zituen: egoera ekonomikoa ez zen oso lagungarria eta, inguruko enpresetan lana soberan zegoenez, ohikoa izan zitekeen beste lantegi batera lan bila jotzea.

Testuinguru ezkor hura kontuan hartuta ere, langile talde batek aurrera jarraitzea adostu zuen, non eta beraien etxeak abal bezala jartzearaino, enpresa gaizki egonez gero zabalik mantendu ahal izateko.

Roydek etengabeko berritze eta gure bezeroen behar eta

eskariei erantzun ahal izateko bideratuko egokitzapen prozesu etengabea dihardu.

Ezinbestekoa zaigu gure hornitzaileekin saretutako harremana aitortzea eta herriarekin eta ingurunearekin harremanetan eta gizarte proiektuetan parte hartzea.

Roydek 40 urtean aurrera egin du; gure ondasun garrantzitsuena pertsonak izan dira eta izango dira. Eskerrik beroenak Royden jaiotze eta garapenean lana sendo eginez bideragarria bihurtu zenuten hasierako langile zein bazkideei eta Roydetik pasa zaretzen guztiei, denbora luzeago edo laburragoan izanda ere; izan ere, guztien lana oso baliagarria izan zaigu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Mugari horrela begiratzea oso interesgarria izan da"

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN ANTROPOLOGOA

Iñigo Barrena Kortabarría ARRASATE Iraitz Agirre antropologo arrasatearrak *Intzura* liburua aurkeztu du, Ivan Gomez artista irundarrarekin batera, Madrilén egin berri den Arco azokan. Irun eta Hendaia arteko Bidasoa ibaian dagoen Intzura uhartea abiapuntu hartuta, pisu artistiko handia duen proiektua da. Horrekin batera, fikziozko zortzi lagun arteko gogoeta-aldia ere jasotzen du, non, besteak beste, mugaren, historia kontatzeko moduen, euskararen eta genero ikuspegiaren inguruko gogoetak jasotzen diren. **Zer moduz Arco azokan ikusi eta ikasitakoarekin?**

Oso ondo. Sorpresa izugarria izan da. Duela urte batzuk landutako proiektu bat izan zen hau, Hendaia eta Irun artean dagoen uhartearen ingurukoak, eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bati esker argitaratzeko aukera izan dugu. **Nola abiatu zen proiektua?**



Iraitz Agirre Aranguren. IÑIGO BARRENA

Lagunen bitartez. Adiskide dudán Anartz Ormaza Ivanekin beste proiektu batean ari zen eta hark galdetu zion ea antropologoren bat ezagutzen zuen, eta nire izena eman

zion. Irungo Udalak urtero ematen du Ribera 18 izeneko beka bat, baina oso ezaugarri bereziak batu behar ziren 2018. urtean aurkeztu ginenean. Bidasoa edo muga ardatz duen proiektua izan

behar zen, eta antropologo eta artista batek osatutako bikotea ere bai. Hasieratik harremana oso ona izan zen. Ondoren, tobera herri antzerkia abiapuntu hartuta proiektua egosten hasi ginen; ideia horrekin, nola epaitzen dugun historia, izeberg bat bezala ulertua, hau da, dokumentu ofizialak gainazalean daudela, baina guri interesatzen zaiguna azpian dagoena dela.

Zergatik da berezia Intzura uhartea?

Uhartea daukan ezaugarri bitxienetakoa munduko kondominio txikiena dela da. Honek esan gura du lurralde konpartitua dela. Kasu horretan, Espainiako Estatuaren eta Frantziako Estatuaren jabetza-lur bat da, baina sei hilabetetik behin aldatu egiten da muga. Horregatik, munduko leku bakarra da zu bertan egon eta mugak zeharkatzen zaituena.

Norekin egon zarete eta zertaz hitz egiteko baliatu duzue?

Ivanen eta bion arteko lehen elkarrizketa oso interesgarria izan zen; interesatzen zitzaizkigun gaiak zerrendatu genituen, lehenik, gure ingurukoak ziren pertsonak edo interesgarriak iruditzen zitzaizkigunak aukeratu genituen, uste

dugulako zer esana izango zutela identifikatu genituen gaiaren inguruan. Amets Arzallusekin nazioen historiaz aritu gara, Eneko Bidegainekin identitatearen inguruan, Edurne Epelderekin bakea jorratu dugu. Beste elkarrizketa interesgarri bat Maggie Bullen Antropologia irakaslearekin izan genuen; Maria Ruido artistarekin ere izan gara, baita Anartz Ormaza arkitektoarekin, eta sorpresa hartu genuen Balbanera Nietori egindako elkarrizketarekin. Sagrario Lopez irungo artxibozaina ere bai. Ikusi genuen elkarrizketa horiek oso mardulak zirela eta antzerki baterako ez zutela ematen, eta, horregatik, antzerki formatua du liburu horrek, libreto bat da.

Ezohiko proiektua izan da; gustura aritu zara?

Bai. Niretzat, baina, luzea. Azkenean, badakizu, lana eta enplegua ez dira gauza bera eta bata bestearekin lotu beharra izaten da; Ivani oso eskertuta nago proiektu horretan sartu izanagatik. Mugari horrela begiratzea oso interesgarria izan da, bakoitza ze lekutatik hasten garen begira kontuan izanda gauza asko ikasten direlako. Gainera, jende interesgarria ezagutu dut.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

'BERGARA KANTARI'

SAIO BERRIEN ESTREINALDIA ASTEBURUAN
MARTXOAREN 4AN, ZAPATUAN, 16:00ETAN
MARTXOAREN 5EAN, DOMEKAN, 09:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.



Euskararen alde lanean jarraitzeko gogoz daude

Geikek, Arrasateko euskalgintzako eragileak batzen dituen lankidetzaren mahaiak, Euskaraldiaren balorazioa egiteaz gain, epe motzean izango dituzten langaien berri eman du; hau da, arlo sozioekonomikoa eta euskararen transmisioa eta sozializazioa

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE "Euskaraldia duela hiru hilabete bukatu genuen arren, Arrasaten ariketa antolatzen aritu ginen eragileok ez gara geldi egon. Abenduan barrura begirako balorazioa egin genuen eta urtarrilean, berriz, ariketan parte hartu zuten entitateen eta norbanakoen balorazioak jasotzen aritu ginen", azaldu du Amaia Aranak, Arrasateko Udaleko Euskara teknikariak.

Adierazi du, entitateei begira, inkesta bana bidali zietela parte hartu zuten 186 erakundeei eta horietako hamabostekin elkarriketa pertsonalizatuak egin zituztela. Norbanakoei dagokienez, azken edizioan 2.961 herritarrek hartu zuten parte Euskaraldian eta horietatik zozir aukeratutako 80 herritarri bidali zieten inkesta. "Gure nahia zen entzute saio bat egitea, baina, quorum nahikorik ez genduzenez lortu, balorazioak galdetegi bidez eskatu ditugu", gaineratu du Aranak.

Jasotako iritzien eta ekarpenen ondorioak arrasatearrekin partekatze asmoz batu dira asteon: "Euskaraldiaren zikloari amaiera eman eta 2023rako ditugun asmoen berri emateko".

Hainbat dira atera dituzten ondorioak. "Batetik, beste behin ere, ikusi dugu hizkuntza ohi-turak aldatzeko ariketa ona dela Euskaraldia. Bestetik, hamabost egunean erabateko aldaketak egitea oso zaila den arren, aldaketa txiki ugari bizipenak jaso ditugu balorazioetan; batez ere, norbanakoen eta entitateen arteko harremanetan. Hau da, eguneroko harreman txiki baina funtzionaletan eragiteko gaitasuna dauka, bereziki, Euskaraldiak", zehaztu du Aranak.

Lanean jarraitzeko prest

Behin Euskaraldia pasata, erlaxatu eta lehengo egoerara bueltatzeko arriskua hor dagoela



Geikeko kideek eguaztenez egindako prentsa agerraldia. IMANOL BELOKI

2.961 HERRITARREK ETA 186 ERAKUNDEK HARTU ZUTEN PARTE JOAN DEN URTEKO EUSKARALDIAN

ohartarazi dute. "Badakigu, halaber, hizkuntza ohituren aldaketa arnas luzekoa dela; harreman estua ditugunekin, nagusiki".

Horregatik guztiagatik sortu zuten, hain zuzen, Geike lankidetzaren mahaiak, "euskararen erabileraren alde lanean indarrak batu eta elkarrekin eragiteko, Euskaraldia bezalako ariketan bidez edota, bestela ere, euskaraz gehiago hitz egiteko ahalegina egiteko prest dauden arrasatearrei horretan laguntzeko".

Bi ardatz nagusi

Epe motzerako, bi ardatz nagusi lehenetsi dituzte: arlo sozioekonomikoa eta euskararen transmisioa eta sozializazioa. "Ez gara hutsetik hasiko, ez batean ez bestean", azaldu du Iñaki Telleriak, Txatxilipurdiko kideak. "Ugari dira arlo sozioeko-

nomikoa euskalduntzeko abian ditugun ekimenak: Udaleko Euskara Zerbitzuaren programa, Emunek enpresetan kudeatzen dituen euskara planak, euskaltegiak eskaintzak, AEDk lan munduan eragiteko daukan lan-ildo eta abar".

Hizkuntzaren transmisioa eta sozializazioari dagokionez, "zentzurik zabalenean" helduko diote, "transmisioa ez baita soilik familia barruan eta ikastetxeetan goitik behera gertatzen den fluxu bat, transmisioa eta sozializazioa baitira kirol taldeetan, entrenatzaileek egiten dutena, Udalak haur eta nerabe etorkinei eskaintzen dizkien erretortzu saioak, etorri berriei zuzendutako Ekin Emakumeen Auzoko egitasmoa eta Txatxilipurdiren Zuaz proiektua", dio Telleriak. "Horrez gain, baita AEDren Zahar-Berri mintzapraktika, ikastetxeetako murgiltze planak eta Txatxilipurdik kudeatzen dituen ludoteka eta gazte txokoak".

Goiena Komunikazio Taldea bera ere multzo multzo horretan kokatu dute, "euskararen komunikazio komunitarioa sustatzeko" tresna gisa.



Itxaropena plazan jarri duten gailu mugikorra. A.R.K.

Airearen kalitatea neurtzeko gailua jarri dute Itxaropenan

Mugikorra da eta neurketen emaitzen ostean erabakiko dute neurriren bat hartzea beharrezkoa den edo ez

E.A.B. ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak airearen kalitatea neurtzeko gailu mugikor bat ezarri du Itxaropena plazan, Arrasateko Udalak Uribe eta Uribarri auzoetako kutsaduraren egoera aztertzeko eginiko eskaeraren ostean. Joan den astean jarri zuten eta dagoeneko airea aztertzen ari da. Halere, ez da Arrasaten dagoen gailu bakarra, Jose Maria Arizmendiari plazan funtzio bera betetzen duen neurgailu finko bat baitago.

Maria Ubarretxena Arrasateko alkatearen arabera, auzotarren eskariari erantzun diote era horretara, eta neurketen emaitzek adieraziko dute zein den aireak eremu horretan duen kalitatea. "Aztertuko da ea neurriren bat hartzea beharrezkoa den".

Dena den, Ubarretxenak erantsi du Jose Maria Arizmendiari plazako neurgailuaren

emaitzen arabera Arrasateko airearen kalitatea "bikaina" dela. Hain justu, 0,74 miligramo karbono dioxido zenbatu zituzten metro kubiko bakoitzeko 2021ean. "Eusko Jaurlaritzak Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Estazioa du Jose Maria Arizmendiari plazan, eta, han bildutako datuen arabera, Arrasaten 0,73 miligramo karbono dioxido (CO2) zenbatu ziren metro kubiko bakoitzeko 2021ean. Zifra hori parametro positiboan dago. Izan ere, 0 eta 5 miligramo artean badago, oso ona da kalitatea".

2022ko datuak, "epe laburrean"

Halaber, nitrogeno dioxidoaren datuak ere "guztiz positiboak" izan ziren, eta 10 mikra baino diametro txikiagoko partikulek ere "datu onak" utzi dituzte.

2022ko datuei dagokienez, berriaz, "epe laburrean" emango dituzte ezagutzera.

Hizkuntzaren erabileraz eztabaida feminista bihar

Bihar, martxoak 4, hizkuntzaren erabileraren inguruko eztabaida feminista egingo dute Emakume Txokoan, 10:00etatik 13:00etara, Jabetze Eskolaren baitan. Teresa Maldonadok dinamizatuko du saioa eta parte hartzeko aurrez eman beharko da izena, emakumetxokoa@arrasate.eus-era idatzita edo 618 20 62 33ra deituta.

Bi zebra-bide adimendun gehiago jarri dituzte herrian

Arrasateko Udalak bi zebra-bide adimendun jarri ditu: bata Gipuzkoa etorbidean (38an) eta bestea Nafarroa etorbidean (2an), Kultura eta Lan Taldearen bidez. Otalora Litzentziaduna kalekoarekin, hiru dira orain. Azken hori izan zen, hain zuzen, Gipuzkoan jarri zuten lehena, 2021ean. Bi berriak jartzeko inbertsioa 21.089,43 eurokoa izan da -BEZ barik-.

Zaintza ardatz hartuta, bi mobilizazio eguaztenean

Martxoaren 8an elkarretaratzera egingo dute, 11:15ean, Herriko Plazan, Arrasateko Neska* Gazteak taldeak eta Ikamak antolatuta. Bestetik, Arrasateko Mugimendu Feministak deituta, manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Biteri plazatik abiatuta

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Aurtengo Martxoaren 8a zaintzen inguruko kontzientziazio terminoetan "jendaratean inflexio-puntu bat sortzeko funtsezko unea" izango dela azaldu du Arrasateko Mugimendu Feministak. "Feminismotik hasi berri dugun prozesu baten abiapuntua, alegia".

Zaintza krisiak aurpegi ugari dituela nabarmendu dute: "Gaur egun oraindik, eta, gehienbat, emakumeak* gara zaintza sostengatzen dugunak, horrek dakarren gainkarga, lan bikoizketa, prekarietate eta baldintza desorekatu guztiekin. Eta krisi honek oraindik eztanda egin ez badu, etxeko langileen esplotazioaren ondorioa da; lan baldintza prekarioetan, desaraututako sektore batean, Atzerriartasun Legeak bultzatutako irregular-tasun eta diskriminazio egoeran... Ondorioz, krisi sozialaren areagotzean sakonduz".

Horrek guztiak zaintza esku-bide kolektibo baten alde egitera bultzatzen dituela gaineratu dute. "Horregatik, mugimendu feminista berriz aktibatuz, egungo zaintza erregimen kapitalista eta patriarkala eraldatzeko, zaintzak erantzukizun sozial bihurtzeko eta bide honetan aliantza sendoak eta agerikoak



Astleheneko bileraren ostean, mobilizazioetarako dei egin zuten. A.M.F.

sortzeko, mobilizazio prozesu bati ekin diogu", adierazi dute. Hala, epe luzerako aurreikusten duten prozesu horretan, lehen mugarrri gisa Martxoaren 8a markatu dute. "Euskal Herrian eta Euskal Herriatik, Arrasaten eta Arrasateetik, zaintzak irauliz dena eraldatzeko, elkarrekin, kolektibotik egingo dugu. Aurtengo Martxoaren 8an ere erdigune eta bazter guztietan mobilizatuko gara".

Astlehenean egin zuten antolatutako ekintzen berri emateko bilera informatiboa, Kul-

turaten, eta bi mobilizazio nagusi deitu dituzte Martxoaren 8rako: 11:15ean, elkarretaratzera, Herriko Plazan, eta 19:00etan, berriz, manifestazioa. Azken hori Biteri plazatik abiatuko da eta honako ibilbide hau izango du: Biteri-Garibai etorbidea-Abaroa-Kontzezino-Nafarroa etorbidea-Aprendices kalea-Txaeta-Zalduspe-Nafarroa etorbidea-Etxetxikiak kalea-Gipuzkoa etorbidea-Maalako biribilgunea-Otalora Lizentziaduna-San Frantzisko kalea-Seber Altube-Biteri.

NATOren eta Europar Batasunaren gaineko hitzaldia domekan

Etzi, martxoak 5, NATOren eta Europar Batasunaren gaineko hitzaldia egingo du Askapenak gaztetxean, 18:30ean. "Helburua da koiuntura irakurketa bat eta bi erakunde imperialista horien ekintza eta politikien atzeko logika ulertu zein analisirako tresnak eskaintzea", azaldu dute Askapenako kideek.

Bestalde, Askapenak, Euskal Herriko beste eragile batzuekin batera, mobilizazioa deitu du martxoaren 11rako. Bilboko Eliptika plazan izango da, 17:30ean, "NATO buru duen azken ofentsiba imperialistari aurre egiteko eta Euskal Herria antiimperialistaren aktibazioa aldarrikatzeko".

Arrasateetik autobusa egongo da eta 15:00etan irtengo da, Zalduspeko geltokitik. Itzulerako autobusa, berriz, 20:30ean irtengo da Bilbotik. Izena emateko zerrenda Basati tabernan dago. Langabeendako prezioa 5 eurokoa izango da eta langileendako prezioa, berriz, 10 eurokoa.

Arrasaten bizi diren oñatiarrek bazkaria egingo dute Errekan

Martxoaren 11n, zapatua, bazkaria egingo dute Arrasaten bizi diren oñatiarrek, aspaldiko ohi-turari jarraituz, eta interesatuek izena eman beharko dute Erreka Jatetxean, domeka baino lehen. Iturriotz kalean dagoen Udalpe elkartearen elkartuko dira lehenik, 13:15ean, eta ondoren egingo dute bazkaria, 14:30ean, Erreka Jatetxean.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Martxoaren 8a

Iritsi da gure eguna –egia esan, gure eguna urteko egun guztiak dira–. Denok gogoratzen dugun egun hori, Martxoaren 8a, asteko edozein egun izanda ere, beti garrantzitsua izango dena. Emakumeen, berdintasunaren, aintzatespenaren eta gure eskubideen aldeko borroka gogoratu eta berreskuratzeko eguna. Eta Alderdi Sozialistatik bat egiten dugu munduari erantzuteko eta esnatzeko aldarrikapen- eta borroka-jardunaldiarekin, eta emakumearen –gure jarduketaren– jardunak bizitzaren arlo guztietan duen garrantzia azpimarratzen dugu. Izan ere, sozialisten ezaugarri den zerbait badago, emakumeen emantzipaziorako borroka da; ezin da sozialista izan feminista izan gabe.

Egun hori oso garrantzitsua da gure egutegian; izan ere, aukera ematen digu gogoratzeko, berdintasunaren bila asko aurreratu dugun arren, oraindik bide luzea dugula egiteko. Gainera, azken hilabeteetan ikusi dugu emakumeen eskubideak berriro ere zalantzan jartzen dituztela eskuinak eta ultraeskuinak, eta Alderdi Sozialistatik ez dugu onartuko jada eskuratutako eskubideetan atzera eginarazi nahi diguten alderdien ikasbide bakar bat ere.

VITALDENT

ARRASATE

Otalora lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

*200€-ko deskontua INPLANTEA + KOROA jartzeko TRATAMENDUARI aplikatuta baimen estandeko ORTODONTZIA IKUSEZINAREN TRATAMENDUAN. 2023ko martxoaren lehen egunetik 30era bitartean. Biki baimen konbinatuaren bidez tratamenduetan erabilgarri izango da deskontua. Er da mutagieria beste deskontu eta konpainien. Er da bategarritasun Vitaldent-ek diruzteko gogortutako interesetan erabiltzeko ezin izango du. Kontuak zuzentzeko erabilgarri izango dira. vitaldent.com. Ozean-erregistro zenbakia: 20C1514042. IPI 43.29



-200€

zure ortodontzia ikusezinean eta/edo
inplantea + koroa* jartzeko
tratamenduan



Txatxilipurdiko hezitzaileak, asteon, Aldai parkean. H.L.

Udako aisialdian, Oriora eta Garaionera martxa

Txatxilipurdi elkarteak 9 eta 18 urte artekoen udaleku itxien izen-ematea ireki du. Hiru adin tartetan banatuta, gazteenek Ozeta inguruko Sorginlekura joko dute eta, nagusienek, 'Kosta ala kosta' egitarau ibiltarira. 90 lagunentzako tokia dago

Hasier Larrea ARRASATE

Urtean zehar lantzen dituzten balioei jarraipena emango die Txatxilipurdik uztail hasierako udalekuean, 29. aldiz aurten, "aisialdi hezitzaile euskalduna landuz eta bizitzarako gaitasunak garatuz, hala nola euskaltzaleatasuna, parte hartzea, autonomia, naturarekin harremana, aniztasuna, elkar zaintza eta feminismoa".

Etetik kanpo

Hiru proposamen ezberdin dakartzate aurten. Horietako biren kokagunea Garaion izango da, Ozeta (Araba) aldeko sorgin-gunea, uztailaren 1etik 9ra bitartean. LHko 4., 5. eta 6. mailetako neska-mutilek Aizkomendi izeneko herrixka osatuko dute han eta DBHko 1. eta 2. mailetakoeak, Gebara herrixka. Antolatzaileek aurreratu dutenez, bakoitzak bere lo-lekua, elkar-gune eta jolas eremu propioa izango du. Hala, udalekuak "abenturaz beteta eta giro goxoan"

pasatzera joango dira, eta "par-taideen hitza hitza kontuan izanik" adostuko dituzte ekintzak.

Hirugarren aukera *Kosta ala kosta* egitasmo ibiltaria izango da, DBHko 3. eta 4. mailetako eta batxilergoko gazteendako. Ekainaren 30etik uztailaren 8ra bitartean, Gipuzkoako mendietan eta kostaldean zehar ibiliko dira etapaz etapa, Arrasatetik Oriorako bidea hartuko baitute. Pandemiako etenaldia gaindituta, *Kosta ala kosta* dinamikak berrikuntzak ekarriko ditu, "formatuari eta ibilbideari buelta bat" emango baitiote.

Izena emateko moduak

Udaleku bakoitzean 30 lagunek hartu ahalko dute parte, gehie-

ARRASATEN ERROLDATUTAKOEN LEHENTASUNA IZANGO DUTE IZEN-EMATEAN, HILAREN 10ERA ARTE

nez. Izen-ematea apirilaren 28ra arte egongo da zabalik eta Arrasaten erroldatutakoek lehentasuna izango dute martxoaren 10era arte. Txatxilipurdiren egoitzan –Nafarroa etorbidea, 23– edota webgunean egin daitezke inskripzioak.

Edozein zalantza argitzeko asmoz, hezitzaileak hasiak dira kaleko informazio-puntuak jar-tzen; atzo arratsaldean Seber Altube plazan egon ziren eta martxoaren 7an, martitzena, ere egongo dira, 17:30etik 19:00etara. Telefonozko arreta nahi izanez gero, interesatuek 943 79 54 46ra dei dezakete.

Aukera guztiek izango dute prezio berbera: 330 euro. Baldintza batzuk betez gero beharpenak ere jaso ahal izango dira: AEDko bazkideek zein familia ugariak %5eko deskontua izango dute eta bi baldintzak betetzen dituztenek, %10ekoa.

Arrasaten izango diren udaleku irekiei buruzko informazioa aurrerago emango dute.



ARTGAZKI

Ikerketarako dirulaguntza

Artgazki elkarteak 705 euroko ekarpena egin diote Espainiako Erreakitismo eta Osteomalazia Heredatuaren Elkarteari –AERYOH–. Hori izan da Udazkena Euskal Herrian lehiaketaren VIII. edizioako argazkiak saldua jaso duten kopurua, eta asteon eman diote bi elkarreetako kide den Alberto Caballerori; gaixotasun hori pairatzen duen haur baten aita da.

Siria eta Turkiako lurrikaretako biktimei laguntzeko kanpaina

Harreman gobernuaz kanpoko erakundeak dei egin die herritarrei "milioika kalteturekin eskuzabal jokatzeko"

H.L. ARRASATE

"Inork ezin die guztiei lagundu, baina guztiok lagun diezaiokegu norbaiti"; filosofia hori du ardatz Harreman elkarre solidarioak, munduko herritar txi-roenei babesa emateko helburuarekin. Oraingoan, Sirian eta Turkian jarri dute arreta, "han gertatzen ari diren lurrikara izugarriek pertsona pobreenak kaltetu dituztelako gehien, beti bezala". Larrialdi egoera hori "asko" luzatuko dela-eta, Harremanen ustez "betebehar morala da biktimen sufrimendua gogoan

izatea", eta horregatik jarri du beste kanpaina bat abian: "Dirua biltzeko eta, gure ahalbideekin, zorigaitz lazgarri hori arintzeko". Bildutakoa kaltetutako eremuetan espezializatutako "gure konfiantzazko eta sarritan lan egin ohi dugun GKEetako bati" emango diote.

Ekarpena egin nahi duenak Harremanen lau kontu korronteak ditu eskura (Ikus *goiena.eus*-eko albistea). Dirua nora bideratua izan den eta zertan erabili den jakinarazteko hitzaldia egingo dute aurrerago.

Lanaren etorkizuna jorratuko dute gaur Mundukideek eta MUK

The gig is up dokumentala ardatz hartuta, ekonomia digitalari buruz hausnartzeko parada egongo da gaur, ostirala, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian. Ikus-entzunezkoak mezu hau helaraziko du: "Ekonomia digitalak 5 bilioi euro baino gehiago mugitzen ditu munduan, eta, hala ere, iraultza teknologiko horren atzean dau-

den langileen istorioak ez dira ikusgai jarri, janaria entregatu, bidaiak autoan partekatu eta adimen artifizialerako irudiak etiketatzen dituztenenak, esate-rako".

Proiektzioaren ostean eztabaidarako tartea irekiko dute, "ekonomia digital berri horren alternatiba bidezkoagoak" mahai gaineratzeko. Lankidetzarako Euskal Agentziako Paul Ortégak, Maria Ubarretxena alkateak eta Mundukideko Iñigo Albizurik egingo dute berba.

Oinarrizko ziklismoan ereiten Dorletako Ama

Joan den zapatuan aurkeztu zituen Dorletako Ama ziklismo eskolak harrobian izango dituen 21 txirrindulariak: "Gazteei oinarrizko txirrindularitza erakustea da helburua, errendimendutik urrun", dio Patxi Torresek. Bihar lasterketa dute Markuleten

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Dorletako Ama txirrindularitza taldeak Bergarako Lokatza ziklismo eskolarekin daukan hitzarmenari esker infantil mailatik gorako ziklistak Bergarako taldean dabilta. Hala, Dorletako Aman oinarrizko ziklismoarekin dabilta lanean, eta, horretarako, klubean Mikel Iribecampos, Aitor Juaristik eta Julen Axpek dihardute gazteenekin lanean. "Helburua ez da errendimendua. Gaztetxo horiek txirrindularitzara erakartzea da helburua; astean bitan entrenatzen dira eta jolasak egiten dituzte, bizikleta gaineko teknika lantzen dute...", dio klubeko kide Patxi Torresek.



Zapatuan egindako talde-argazkian, ziklistak entrenatzaileekin. DORLETAKO AMA

21 ziklista harrobian

Joan den zapatuan egin zuten taldean aurkezpena, beste urtebetez klubeko babesle nagusia izango den JMA lantegiaren ondoan. Eta bertan, benjamin, alebin eta infantil mailako 21 txirrindulari aurkeztu zituzten. Benjamin mailan, Maddi Agirretxe, Oinatz Bailez eta Aratz Arana ariko dira. Alebin mailan, berriz, Auritz Garai, Xabi Lasaga, Nile Agirretxe, Oxel Kortabarria, Itoitz Olaziregi, Ainhoa Plaza, Markel Diaz eta Peru Errasti.

FEDERAZIOAK LASTERKETAK BERTAN BEHERA UTZI IZANAK EZ DU ERAGINIK HARROBIKO PROBETAN

Infantil mailan, azkenik, hamar ziklista ariko dira: Katixa Navarro, Maialen Sancho, Izaro Ezpeleta, Aratz Larrañaga, Aimar Axpe, Oxel Isazelaia, Beñat Plaza, Eñaut Olaziregi, Lier Torres eta Eñaut Garai.

Zapatuan Markuleten

Gipuzkoako Federazioak kade-mailatik gorako lasterketak bertan behera utzi behar izan ditu aste barruan (Ikus 40. orrialdea), baina neurri horrek ez du oinarrizko txirrindularitza eragiten, eta bihar, zapatua (16:30), Arrasateko Markuleteko industrialdean gaztetxoek lasterketak egingo dituzte: "Kategoria horietan lasterketak zirkuitu itxietan egiten dira, normalean industrialdeetan; horrenbestez, ez dira bidegurutzak zaintzeko motorrak behar".

Sei neska dituzte taldean

Aurtengo denboraldian Dorletako Amako harrobian sei neska izango dituzte, benjamin mailan bat, alebinetan bi eta infantil mailan beste hiru txirrindulari: "Pozik gaude, neska talde polita dugu, ea kopurua hazten joaten den". Maddi Agirretxe, Ainhoa Plaza, Katixa Navarro, Maialen Sancho, Izaro Ezpeleta eta Nile Agirretxe dira emakumezkoak.



Harrobiko sei neskek, entrenatzaileekin batera. DORLETAKO AMA



Tourreko tropela, iaz. WIKIPEDIA

Tourraren eraginez Arrasateko kaleak bost orduz itxiko dituzte

Herri barruko zirkulazioan eragina izango du uztailaren 2ko etapak; ibilgailuak erretiratu beharko dira ibilbidetik

X.U. ARRASATE

Uztailaren 2an, domeka, Frantziako Tourrak Arrasateko kaleak zeharkatuko ditu, eta Udala hasi da lanak aurreratzen. Etapa hori Gasteizen hasiko dute eta tropela Aramaiotik etorriko da, Urribarritik sartuko dira herri-gunera (13:45) eta Udako biribilgunetik Zarugalde alderako bidea hartuko dute txirrindulariek, Arbolapetatik pasako dira, Maalako biribilgunetik, eta Gipuzkoa etorbideetik Musakolarantz joango dira. Alegia, Arrasate alderik alde zeharkatuko dute ziklistek.

Horren ondorioz, lasterketa pasatzen den ibilbidean herri barruko zirkulazioa bost orduz itxita egongo da (09:55-14:55). Bada, Udalak aurreratu duenez, egun horretarako beharrezkoa izango da ordu tarte horretan aparkatuta dauden ibilgailu guztiak kentzea, edukiontzia baztertzea, garbiketarako operatibo berezi bat ezartzea eta ibilbidea txirrindularien beharretara egokitzea. Txirrindulariak hamar minutuan igaroko dira Arrasatetik, baina bi ordu lehenago Tourraren karabana iritsiko da Arrasatera.



ART

Pirolitikak ederto Sevillan

ARTko Amak Pirolitikak taldea Sevillan izan da asteburuan, lagunarteko bi partiduko jokatzeko, eta, adierazi dutenez, "zoragarri" ibili dira, bai partiduetan eta baita zelaitik kanpo ere. "Esperientzia itzela izan da. Dagoeneko gogoz gaude Bilborako", diote. Izan ere, martxoaren 25ean Mater Series jokatu dute Bizkaiko hiriburuan.



Quo ikuskizuneko bi dantzari oholztan. BLANCA RAZQUIN

Dantza garaikideaz gozatzeko aukera aparta

Dantzaz konpainiak 'Quo' ikuskizuna aurkeztuko du Amaia antzokian bihar, zapatua, 19:30ean hasita. Punta-puntako hiru koreografoen pieza bana taularatuko du dantzari gaztez osatutako taldeak. Emanaldia "patxadaz" jarraitzeko modukoa da

Hasier Larrea ARRASATE

Egoitza Erreterian duen konpainia da Dantzaz, ikasketa garaikideak egin dituzten dantzari gazteekin lan egitea lehenesten duena. Fernando Saenz de Ugarte zuzendariari garrantzitsua iruditzen zaio baldintza hori betetzea, hemen dagoen talentuari eta freskotasanari balioa emate aldera. Honelaxe adierazi du Arrasate Irratian: "Gipuzkoan dantza non-nahi aurki dezakegu, ez da nolanhiko zaletasuna; kalkulatu dugu 15.000 dantzazale inguru daudela, euskal dantza taldeek, mota guztietako praktikek eta akademiek hauspotuta".

Estreinatzen dituzten sorkuntzak sarri eroaten dituzte Amaia udal antzokira, publiko orokorari eta baita ikastetxeetako neska-mutilei erakusteko. "Poz-pozik" etorriko dira oraingoan ere. Gaur egun, gainera, dantza egin eta ikustea "gero eta beharrezkoagoa" dela aipatu du Saenz de Ugarte zuzendariak:

"Pandemia osteko aroa bizi dugun gero".

Hiru gai, hiru ikuspuntu

Quo ikuskizuna Hilde Hoch, Gil Harush eta Wubkje Kuindersma koreografoen piezekin osatutako mosaikoa da. Autoreak euren izenek diotena baino lotuago daude Euskal Herrira: "Hoch donostiarra da, hango dantza eskolan eman zituen lehen pausoak, eta gero Alemanian aritzen urte asko lanean, konpainia nazionalen eta abar; Harush jatorri israeldarra du eta Donostian bizi da, euskara ikasten dihardu".

Lehenengoak ondutako lana *Quorum* deitzen da: "Gure ondarea kontuan hartzen duen

FAMILIAN EDOTA LAGUNARTEAN "LASAITASUNEZ" JOATERA GONBIDATU DU ZUZENDARIAK

pieza hunkigarria da, etorkizunari buruzkoa eta ura, sua, airea eta lurra modu abstraktuan proiektatzen dituen". Bigarrena, berriz, beti telefonoari begira egotearen ondoriozko FOMO gaixotasunean dago oinarrituta, eta *house* erritmoak nagusi diren festa bat du eszenatoki: "Hausnarketa honetatik abiatzen da: nola da posible festa batean egon eta aldi berean ez egotea?".

Berritasun ukitua Kuindersma holandarraren *Youth*-ek emango dio, aste honetan batu baita Quo-ren programara. Gaztetasuna du ardatz, "baina agure batzuen begiradatik".

Hamar dantzari izango dira oholta gainean mugituko direnak, bertakoak eta nazioartekoak, italiarrak kasu. Ikus-entzuleei zinemara joango balira bezala hartzeko gonbidapena luzatu die zuzendariak: "Dantza garaikidea lasai hartzea lortu behar dugu, beldurrak eta galderak atzean utzita; zentzumenak piztu eta ea zer gertatzen den".

Bertso-saio umoretsua egingo dute lau emakumek gaur zortzi

Bea Egizabalek jarritako gaiei erantzungo diete Ane Labakak, Oihana Bartrak eta Miren Artetxek, Kulturaten

H.L. ARRASATE

*Bertso-klow*n saio moduan definitu du Emakume Txokoak datorren ostiralerako, hilak 10, Kulturaten antolatu duen ekitaldia, 19:00etan hasita. Bereizitasun hori Beatriz Egizabalek emango dio. "Ez espero gai jarzaile serio batekin topo egitea; sudur gorria janzten dudanean, ingurukoak barrez leherrarazi eta zur eta lur uzten ditut eta", azaldu du Lasarteko *clown*-ak.

Haren ateraldiak inspirazio-iturri izango dira Ane Labaka, Oihana Bartra eta Miren Artetxe bertsolarientzat. Elkar eza gutzen dute laurek; bereziki, Labakak eta Egizabalek, bost urtez aritu baitira *Erradikalak gara* bertso-bakarrizketa aurkezten. Ostiralekoa "umoreari buruz hausnartzeko" saioa izango da, publiko guztiarentzako irekia, eta erakutsiko du "ber-



Bea Egizabal. GOIENA

tsolaritza formatu apurtzaileekin" uztartu daitekeela.

Donostiako Guardetxean egin zuten saio esperimentalak, baina ez zen antzerkiaren eta bertsoaren arteko lehen fusioa izan, "lehendik ere Egañak eta Lipusek nahasten baitzituzten bi arloak".

Kontzertu erraldoia egingo dute hilaren 11n udal pilotalekuan

Arrasate Musikalek 50. urteurrena ospatzeko 300 musikari eta abeslari batuko ditu Uarkapen datorren asteko zapatuan, 19:00etan hasita. Musika eskolako bandak eta orkestrak emango diote hasiera ekitaldiari, nork bere aldetik, eta ondoren, bi taldeak ikasleekin, Goikobalu abesbatzarekin, Txorbela Otxotearekin, Izaskun Murgia elkar-

te lirikoarekin, Arrasateko parroikia-koruarekin eta Bergarako Orfeoia-rekin irtengo dira oholztzara, Edu Arzamendik gidatuta. Guztiek batera interpretatuko dituzten piezen artean egongo dira Ennio Morriconek *The Mission* filmerako egokitutakoak, Juan Arzamendiren *Mari Errauskin* obrakoak eta Arrasate Musikalen ereserkia. Musika eskolako 37 kide omentzeko ere baliatuko dute hitzordua. Sarrerak 10 eurotan daude salgai Kajoin, Monten eta Ezkiñan.

Iban Gonzalezen 'Elbira' dokumentala martitzenean Amaian

Ikastolen sortzaile eta emakumeen eskubideen aldarrikatzaile izan zen Elbira Zipitriari buruzko dokumentala zuzendu du Arrasaten bizi den Iban Gonzalez aretxabaletarrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Baleuko ekoiztetxearen eskutik. Ikus-entzunezkoa hilaren 7an 19:30ean proiektatuko dute Amaia udal antzokian.

Poparen bueltako kontzertua egingo du Bengok Koolturen

Oiartzuar abeslari gazteak estreinako albuma kaleratu du berriki, *Bizirik* izenekoa. Egun bogan dauden estiloak nahasten ditu freskotasunez betetako kantuetan, eta horiek aurkezteko biran dago murgilduta otsaila ezker. Laugarren geltokia izango du Arrasateko gaztetxea, Kooltur Ostegunak egitasmoaren baitan, hilaren 9an, 22:00etan.

DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

"Oso harreman estua dugu talde feministekin"

JONE UNZAGA BERDINTASUN TEKNIKARIA

2019 amaieran hasi zen Berdintasun teknikari lanetan Aramaion. Herriko talde feministekin elkarlanean, egitarau zabala prestatu dute Martxoaren 8aren bueltan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Itur Zuri emakume elkartearekin eta Aramaioko Feministak taldearekin harreman estua du Berdintasun teknikari Jone Unzagak. Emakume guztiengana iristea garrantzitsua dela dio, eta horretarako kultura erreminta ahaltzua dela nabarmendu du.

Martxoaren 8ko egitaraua antolatzekoan non jarri duzue arreta?

Aurten, mugimendu feministak markatu du gaia. Agroekofeminismotik jarri nahi izan dute arreta, zainketetan... Hori izan da aurten jarri dugun ikuspuntua.

Badira hiru urte Berdintasun teknikari lanean zabilzala; urte horietan guztietan lana egonkortu egin da? Zer aldatu da?

Egia da oraindik asko falta dela guztiz egonkorra izateko; bidea oraindik ere luzea da. Baina egia da gero eta eragile gehiagorekin egiten dudala lan eta gero eta eragile gehiagoren artean sortzen ditugula berdintasunaren aldeko ekintzak edo ekimenak eta feminismoa zentroan jartzen dituzten ekintzak. Mugimendu handiagoa dagoela nabaritu dut.

Udalean ere, Berdintasun Sailaz gain, zeharkako politikek garrantzi handia izango du zure lanean.



Jone Unzaga, bulegoan. J.U.

Gauza bat da Martxoaren 8a edo Azaroaren 25a antolatzea. Beti izaten dugu programazio-lan handia egun horietan; hainbat eragilerekin lotzen duguna, gainera. Baina, horrez gain, badaugu barne mailan egin behar den beste lan bat, eta lan hori motelagoa da, zailagoa. Gauza gehiago mugitu behar dira eta arlo guztietan elkarlanean egin behar da lan. Horrek eskatzen du denbora luzeagoa.

Nola ikusten duzu Aramaion mugimendu feministak egun duen egoera?

Guk oso harreman estua dugu Aramaion dauden talde feministekin. Urtean zehar elkartzen gara gaiak komentatu eta elkarrekin lantzeko; eta Martxoaren 8aren bueltan eta Azaroaren 25aren bueltan beti saiatzen gara elkarrekin egindako programazioa sortzen edo, behintzat, lan-ildo berberak aukeratzeko, denok norabide bera izateko. Urtean zehar ere harremana oso estua izaten da herriko bi taldeekin; azken finean, aliatuak dira, aliatu naturalak.

Hainbat eraikin konpontzen dihardute azken asteetan

Eskolako, udaletxeko eta Etxaguengo errotako teilatuak txukundu dituzte, eta plazako zubia garbituko dute orain

A.E.G. ARAMAIO

Barrundia SL enpresa hainbat lan egiten dabil udalerrian. Otsail erdialdean hasi zituzten lanak. Eskolako, udaletxeko eta Etxaguengo teilatuak konponduko dituzte lehenengo, eta ondoren,

Itur Zuri kaleko zubiarekin jarraituko dute.

Azken denboraldiak eskolako teilatuan sortutako kalteak konpondu eta mantentze-lanak egiteko 541,80 euro bideratu dituzte; udaletxeko teilatuan gaizki

dauden teilak ondo jarri eta mantentze-lanak egiteko 2.072,12 euro bideratu dituzte; eta Etxaguengo errotako teila apurruak konpontzeko 1.306,80 euro bideratu dituzte. Gainera, behin lan horiek eginda, errota barrutik konponduko dute ondoren.

Lan horiek amaitzen dituztenean, Itur Zuri kaletik Bizente Goikoetxea plazara doan egurrezko zubia konponduko dute. 3.748,34 euro bideratuko dituzte zubia garbitu eta mantentze-lanak egiteko.



Itur Zuri kaletik plazara doan egurrezko zubia. A.E.G.

Egitaraua

Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Martxoak 4

- **10:00** Agroekofeminismo tailerra, kultura etxean.
- **14:30** Bazkaria, eskolako jangelan.

Martxoak 5

- **18:30** Kafea eta zozketa.
- **19:00** *La vida era eso* zinemak-kafea, kultura etxean.

Martxoak 8

- **18:00** Emakumeen Nazioarteko Eguna. Kontzentrazioa, plazan.

Martxoak 12

- **19:00** *Madres paralelas* zinema-ziklo feminista, kultura etxean.

Martxoak 23

- **18:00** *Ama*Eme*Ume* liburuaren aurkezpena Estitxu Fernandezekin eta Erika Lagomarekin, kultura etxean.

Martxoak 26

- **19:00** *El acontecimiento* zinema-ziklo feminista, kultura etxean.

Apirilak 1

- **19:00** *Tabuen kutxatik oholtzara-(Min)bizia* bertso saio feminista, kultura etxean.

Ikusiz Gozatu taldearekin ere egiten duzue lan berdintasunaren alde, eta zinema-ziklo feministak antolatu.

Oso garrantzitsua da zinema elkartek egiten duen lana. Izan ere, publiko ezberdinetara iristeko aukera egoten da antolatzen den ekintza motaren arabera. Nik uste dut kultura oso erreminta ahaltzua dela feminismoa hedatzeko, baita horren inguruan hausnartzeko ere.

Udaleko teknikari moduan, helburua emakume guztiengana iristea izango da. Aramaio herri txikia

izanda, nola eragiten du horretan? Zure ustez, lortzen da helburua?

Nire ustez, Aramaio moduko herri txikiek abantaila hori dute. Oso erraza da eragile guztien artean lan egitea; gainera, behala iristen dira mezuak pertsona guztiengana.

"KULTURA OSO ERREMINTA AHALTZUA DA FEMINISMOA HEDATZEKO ETA HAUSNARTZEKO"



Manex Agirre, Danel Herrarte eta Martin eta Sabin Abarrategi. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Finalerako sailkatu da laukote aramaioarra

Lehen finalurrekoan nagusitu da Izena Pentsau Bida taldea Gasteizko Bertsilikaren aurka. Beste bi finalurreko geratzen dira jokatzeko: martxoaren 4an eta martxoaren 12an jokatuko dituzte, Bastidan eta Murgian, hurrenez hurren

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Martxoaren 25ean Laudion jokatu den Bertso Kuadrilla Arteko finalerako sailkatu da Aramaio Izena Pentsau Bida taldea. Domekan, otsailaren 26an, jokatu zuten finalurrekoa, Aguraingo Zabalarten. Gasteizko Bertxilikarekin nor baino nor gehiago ibili ziren aramaioarrak. Giro politean eta barre algara artean jokatu zuten Arabako Bertso Kuadrilla arteko lehen finalurrekoa. Aramaioarren partetik Martin Abarrategi, Danel Herrarte, Manex Agirre eta Sabin Abarrategi aritu ziren kantuan; Bertxilika taldetik, berriz, Aroa Arrizubieta, Maddi Agirre, Hegoi Amabizka, Samuel Rodriguez eta Eukene De los Aires.

Askotariko ariketak

Talde bakoitzaren agur kolektiboaren ondoren, bertsolariak hainbat ariketa egin behar izan zituzten: binaka ofiziotan, hiru-naka koplari, asmakizuna hiru-

naka... Epaimahaiak osatu zuten Iker Elexpuru Izena Pentsau Bida taldeko ordezkariak; Bertxilika taldeko ordezkari Txomin Elorzak; eta Arabako Bertsozale Elkartearen izenean Ainhoa Aizpuruak.

"Lagun artean ondo pasatu dugu", adierazi du taldeko kide Martin Abarrategik. Lehenengo faseko saioetan agurra puntua-

garria izan da, eta horren aitzakian bertso eskolan elkartzeko aukera izan dute, agurra prestatzeko. Finalera begira, agurrak ez du horrelako pisurik izango. Finalerako hiru talde sailkatuko dira. Azken Kuadrilla Artekoan Izenbakuek taldea nagusitu zen; taldekideak ziren, besteak beste, Manex Agirre eta Danel Herrarte.

Finalerako txartelaren bila

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoan beste bi finalurreko geratzen dira jokatzeko. Bihar, zapatua, Bastidako kultura etxean 2. finalurrekoa jokatu dute Lautadako Beeeeertsolariak taldeak eta Gasteizko Errexela taldeak. 19:00etan mokadutxoak jateko aukera izango dute eta 19:30ean hasiko da saioa. Bastidako bertso saioa ikusteko sarrera libreza izango da.

Hirugarren eta azken finalurrekoa Murgian izango da, martxoaren 12an. Gasteizko Katuko Muinoak taldeak Arabako Errioxako Txandrio taldearen aurka neurtuko ditu indarrak. Udaletxean izango da saioa, 18:30ean. Hirugarren saio horretan ere mokadutxoak egingo dute saioa hasi aurretik, 18:00etan. Saiorako sarrera libreza izango da.

Gazte mailan lehiatuko da aurten Edurne Ormaetxea

Lokatza KEko ziklista aramaioarrak domekan hasiko du denboraldia: Espainiako Kopako proba, Nojan

A.E.G. ARAMAIO

Txirindulari denboraldia aste bukaeran hasiko dute hainbat kategoriatan; tartean, Edurne Ormaetxea ziklista aramaioarrak. Bergarako Lokatza ziklismo eskolako kidea da, eta aurten kategoria berria estreinatuko du: gazte mailan lehiatuko da. "Uste dut iaiztik pausotxo bat eman dudala, baina oraindik ez dakit ze mailatan egongo den tropela", adierazi du Ormaetxeak.

Daukan guztia ematera irtengo dela dio, eta helburua laster-

keta amaitzea izango dela nabarmendu du. Espainiako Kopako lasterketa izango dute etzi, domeka: Nojan jokatu dute, 09:05ean hasita.

Denboraldia Kantabriako lasterketarekin hasiko dute eta hurrengo etxe inguruan izango da: hain zuzen, martxoaren 19an III. Igartza Sari Nagusia jokatu dute, Beasainen. Espainiako Kopan zortzi lasterketa izango dituzte; Euskal Herrian jokatu direnak Beasaingo eta Lizarrakoa –ekainaren 3an eta 4an– izango dira.

Laburbirako film laburrak martxoaren 19an emango dituzte

Euskarazko film laburren zirkuituak geldialdia egingo du Aramaion, Txirritola Euskara Elkartearen eskutik, martxoaren 19an. Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Laburbira zikloaren XX. aldia izango da aurtengoa, eta martxoaren 6tik apirilaren 5era bitartean erakutsiko dituzte film laburrak, herri herri.

Martxoaren 19an, 19:00etan, kultura etxean izango da film laburren emanaldia. Zazpi lan emango dituzte: Maria Bartolomeren, Erik Camposen eta Fernando Martinen *Olatuen isiltasuna*; Marina Perosanz zuzendariaren *Muskil*; Iulen Aranaren *Koadro Goriari Heldu*; Mainer Oleagaren *Irrits* film laburra, Huhezinema jaialdian lehen saria lortu duena; Ane Cuestaren *Asko falta da?*; Leire Egañaren *Erlojupekoa*; eta Josu Martinezen *Hitzak*.



MIGUEL LOITI

Astondoa eta Etxabe nagusi

Barikuan mus txapelketa jokatu zuten Alaiak erretiratuen elkartearen Angel Astondoa eta Begoña Etxabe izan ziren irabazleak. Hurrengo jardura prest dute erretiratuek: martxoaren 15ean ibilaldia egingo dute Urkulutik Aretxabaletara, eta salda eta pintxoak hartuko dute han. 09:00etan irtengo dira, eta itzuli, 13:00etan. Martxoaren 13rako eman behar da izena.



Udal ordezkariak, Atxabalta Mugimendu Feministakoa eta UDAkoa, ekitaldien berri ematen duen kartelarekin. ANABEL DOMINGUEZ

Bizitzak erdigunean jartzeko aldarria kalera

Udalak, Atxabaltako Mugimendu Feministak eta UDAk bat egin dute Martxoaren 8aren bueltako ekitaldiak antolatzeke; 'Erantzukizun sozial bihur dadin, ez negozio; denon bizitzak erdigunean' leloa duen manifestazioa izango da eguneko izarra

Mirari Altube ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Eguren aldarrikapenak herritar guztiengana irits daitezen ekin-tzaz betetako egitaraua antolatu dute Udalak, Atxabaltako Mugimendu Feministak eta Aretxabaleta kirol elkarteak. "Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasunean aurrera egiten jarraitzeko beharra" agerian uztea dute helburu ekitaldi horiek.

"Aldarrikatzea, ezinbestekoa"

Aste bukaeran hasita hainbat kultur, kirol eta aldarrikapen jarduera izango dira. Horien artean daude emakumeen frontenis txapelketa, bakarrizketa bat, Aresko martxa, ipuin saio bat eta dokumentalak (Agenda osatua 11. eta 12. orrietan).

Hala, Udalak bat egin du Martxoaren 8ko aldarrikapenekin, eta zera adierazi: "Ezinbestekoa da Emakumeen* Eguna aldarrikatzen jarraitzea; jasaten duten zapalkuntza egiturazkoa da, eta

antolaketa ekonomiko, politiko zein ideologikoan errotuta dago. Oraindik ere emakumeek* bereizkeria pairatu behar dute emakume* izate hutsagatik, eta diskriminazio hori beste batzuekin gurutzatzen da: sexu-orientazioa, klasea, etnia, adina, migrazio-estatusa eta genero-identitatea, besteak beste. Ondorioz, politika feministak zeharlerrokotasunez garatzea beharrezkoa da sistema patriarkala arrakalatzeko".

Eguaztenean manifestazioa

Eguaztenean manifestazioak batuko ditu aldarrikapen nagusiak –goiz partean hainbat ikastetxetan lanketak egingo dituzte–. Atxabaltako Mugimendu Femi-

**MANIFESTAZIOA
PLAZATIK ABIATU ETA
ZAHARREN
EGOITZARA JOANGO
DA LEHENENGO**

nistak deituta *Erantzukizun sozial bihur dadin, ez negozio; denon bizitzak erdigunean* leloa izango du eta zaintza-eredua eraldatzea eskatuko dute "sistema publiko-komunitario feminista baterantz" iristeko. Horrekin bat egin dute herriko hainbat eragilek eta manifestazioen euren aletxoak jarriko dute, besteak beste, Neska* Gazteen Taldeak, Auzokok, Jaikik, Aretxabaleta Lanbide Eskolako kideek eta Erdu feminista taldeak.

Herriko Plazatik abiatuko da, 18:30ean, eta Otalora kaleetik bueltan zaharren egoitzaraino joango da lehenengo, han egiten den lana agerian uzteko. Ondoren, Errekabarren kaleetik Andramari auzuneari buelta eman, eta Mitarte eta Durana kaleetatik Herriko Plazaraino iritsiko da. Han azalduko dituzte zaintza-eredua aldatzeko arrazoiak, eta hurrengo pausoen berri eman; bukaerako unea Jaikik gidatuko du, herritarrak batuko dituen dantza batekin.

Udaltzain bat kaleratua lankideen intimitatea urratzeagatik

Epai batek emakume lankideak aldageletan grabatzen zituela frogatuzat emanda hartu du erabakia udalbatzak

Txomin Madina ARETXABALETA

Martitzeneko ezohiko osoko bilkuran, udaltzainburu izandako R. B. M. kaleratzea erabaki zuten, han batutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin –EAJ-koak eta EH Bildukoak–.

Udaltzainburu ohiaren eginkizunak behin-behinekoz etenda zeuden 2021eko otsailaren 24a ezkerro, bi emakume lankidek haren aurkako salaketa jarri zutelako, udaltzainen aldagelan tableta bateko kamerarekin udaltzain emakumeak grabatzea egotzita. 2022ko urriaren 3an eman-

dako epaian Bergarako epaitegiak frogatuzat eman zuen salaketa eta zortzi hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zitzaion akusatuari, intimitatearen aurkako delituegatik. Epaia bi aldeek adostu zuten.

Gertatutakoa diziplina falta oso astuna izan zela arrazoituta Udaleko idazkariak zerbitzutik kentzeko egindako proposamena izan zen martitzenean onartutakoa.

Udaleko Berdintasun batzordeak gaiari buruzko adierazpen instituzionala aterako du.

Martxotik abian Txarapeako ezponda egonkortzeko lanak

Drainadura hobetzea eta mendi-hegalari eustea dute helburu eta hiru hilabete eta erdi iraungo dute

M.A. ARETXABALETA

Martxoan hasita, Txarapeako 40. eta 42. etxebizitza-blokeen atzealdean hainbat lan egingo ditu Miramar Gunitados enpresak; 374.679 eurotan –BEZa bane– esleitu dizkio Udalak.

Drainadura hobetzea eta mendi-hegalari egonkortasun handiagoa ematea dute helburu lan horiek. Ura drainatzeko Kaliforniako drainak erabiliko dituzte –horman txertatutako hodi zulatua–. Drain horiek ezpondaren lur-bolumena eta harkaitzeko ura jasoko dute eta gaina-

zalean kokatutako drainatze-sistemetara eramango dute. Era berean, mendi-hegalari hobeto eusteko, sare geomalla sistema jarriko dute, ainguraketa edo buloien bidez, kableekin indartuta.

Lanok hiru hilabete eta erdian bukatzea espero dute. Horiek 30. eta 32. zenbakien artean dagoen oinezkoendako sarbidean aldizka eragina izango dutela ohartarazi du Udalak; garajeetarako sarbideetan eraginen bat izanez gero alde zuzenetik jakinaraziko duela gaineratu du.

Garuneko gimnasia tailerra 60 urtetik gorakoendako

Garuna estimulatzeko diseinatutako gorputz mugimendu eta ariketa mentalez osatutako jarduera eskainiko die Atxabalta-Mugik 60 urtetik gorakoei. Saioak martxoaren 8an, 10ean, 15ean eta 17an izango dira, 11:15etik 12:45era, Ibarra kiroldegian. Izena emateko epea martxoaren 6ra arte egongo da zabalik –debalde da, baina leku mugatuekin–. Horre-

tarako, kiroldegira jo behar da: 943 03 98 42 telefonora deituta edo atxabaltamugi@gmail.com helbidera idatzita.

Garuna estimulatzeko hainbat ariketa-mota konbinatzen dira: koordinazio motorreko ariketa fisikoak; gorputz-perkusioa eta lateralitateko ariketak; eta erronka mentaleko ariketak. Eta horiek dakartzaten onurak asko direla diote: kontzentrazioa erraztea, informazioa mantentzeko gaitasuna hobetzea eta sormen-gaitasuna areagotzea.

Bueltan da Loramendiren literatura lehiaketa

Hogeita zazpigarrenez deitu du euskara elkarteak eta hainbat urtetako etenaldiaren ondoren itzuli da; Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasleei bideratu diete eta apirilaren 24a arte izango dute lanak aurkezteko epea

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletan bizi edo ikasten duten neska-mutikoei bideratutako literatura lehiaketa antolatu du Loramendi elkarteak; 8 eta 16 urte arteko guztiek izango dute lanak aurkezteko aukera –bakarka zein taldeka, hiru gehienez– eta horretarako azken eguna apirilaren 24a izango da. Pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren dator bueltan eta hogeita zazpigarrenez egingo dute.

Literaturara gerturatu

Ume eta gaztetxoak literaturara gerturatzea du helburu aurtengoak, Loramendiko dinamizazioa Ainhoa Sanchezen esanetan: "Haiek ikus dezaten euskaraz sortzeko zenbat aukera dauden. Horregatik, fantasia mundura bideratu ditugu gaiak, egunero kontsumitzen dituzten kontuak euskaraz ere egon daitezkeela erakusteko eta, gainera, eurek sor ditzaketela aditzera emateko". Berrikuntzaren bat edo beste ere badago: "Ipuin kontatua" kategoria sartu dugu DBHkoendako; istorio bat kontatu beharko dute, baina audio bidez".

Adinaren arabera lau multzo egin dituzte eta bakoitzaren barruan hiru kategoria zehaztu. Lanak Loramendiren behlogora eroan beharko dira eta helbide elektronikoa erabilia aurkezteko aukera ere izango da –gaian jarrita Loramendiko XXVII. Literatura Lehiaketa–, honako helbide honetara bidalita: euskara@loramendielkartea.eus.

Sariak maiatzaren 11n

Ziklo eta kategoria bakoitzean sari bakarra banatuko dute: Aretxarteko dendetan gastatzeko bonuak. Epaimahaiak lan horien maila egokia ez dela iritziz gero, ez da saririk banatuko, baina aipamenezko sariak egon daitezke. Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 11n egingo dute.



2018an egindako lehiaketan sariak banatzen. GOIENA

Lehiaketaren oinarriak

Hona hemen adinaren arabera eskatutako kategoriak eta horietako gaiak.

Lehen Hezkuntza 3. eta 4. mailak

- **Ipuina** Gaia: librea. Bi orri, gehienez.
- **Deskribapena** Gaia: izatea gustatuko litzazukeen superheroi. Bi orri, gehienez.
- **Bertsoa** Gaia: zer eskatuko zenioke superheroi bati? Bertso bat zortziko txikian edo bi koplak.

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak

- **Ipuina** Gaia: fikziozko istorioa. Bi orri, gehienez.
- **Deskribapena** Gaia: gustuko dudana abesti bat: zer kontatzen du? Zer sentiarazten dit? Bi orri, gehienez.
- **Bertsoa** Gaia: zer eskatuko zenioke superheroi bati? Bertso bat, zortziko txikian edo handian.

DBH 1. eta 2. maila

- **Ipuina** Gaia: fikziozko istorioa. Bi orri, gehienez.
- **Deskribapena** Gaia: gustuko dudana abesti bat: zer kontatzen du? Zer sentiarazten dit? Bi orri, gehienez.
- **Gogoeta** Gaia: nolakoa izango nintzateke superheroi bati? Bi orri, gehienez.

DBH 3. eta 4. mailak

- **Gogoeta** Gaia: nolakoa izango nintzateke superheroi bati? Bi orri, gehienez.
- **Kontatutako istorioa** Gaia: 2100. urtean kokatutako istorioa. Audioak 10 minutu, gehienez.
- **Poesia** Gaia: zer esango zenioke zure buruari? Bi orri, gehienez.

Alokairu programa garatzeko proposamena egin du EH Bilduk

Udalak hamar urtean hamabost etxebizitza erostea gurako lukete, "herritarren beharrei" erantzuteko

M.A. ARETXABALETA

2023ko udal aurrekontuan 106.000 euroko partida bat sortzea adostu zuen udalbatzak, EH Bilduk aurkeztutako emendakin batetik abiatuta, Udalak etxebizitzak erosi eta alokairu programa bat garatzeko.

Alokairuzko etxebizitza bat lortzea ia ezinezkoa dela Aretxabaletan dio EH Bilduk, eta "oso garestiak" direla. Horregatik, proposatzen duena da hamar urtean hamabost etxebizitza erostea eta alokairu publikoaren programa bat lantzea. Horretara,

"inbertsio plan bat" garatu dute: "Epe horretan bi milioi euroko inbertsioa aurreikusten du".

Alokairu programa horren helburua zein den zehaztu dute: "Familiek, gazteek edo/eta norbanakoek dituzten beharrei erantzun zuzena emateko etxebizitza ezberdinak edukitzea da asmoa". Eta errentaren arabera alokairua zehaztuko litzatekeela gaineratu dute. Alokairu programarekin ez dela nahiko izango ere eman dute aditzera eta diote beste ideia batzuk ere badituztela.

Erljio-musika emanaldia eskainiko du abesbatzak etzi

Santa Teresaren jaiotzaren V. mendeurrena dela eta Avilan emango duen kontzertua gertatzeko izango da

M.A. ARETXABALETA

Santa Teresaren kanonizazioaren 400 urteak ospatzeko egingo den elizkizunera gonbidatu dute Aretxabaleta Abesbatza. Martxoaren 12an izango da, Avilan, eta aurreko egunean beste kontzertu bat emango dute eliza berean.

Elizkizun hori prestatzen dihardu azken asteotan, eta domekan, martxoaren 5ean, Aretxabaleta-ko parrokiaren (19:00) eskainiko du gertatutakoa.

Gregoriano kantuak izango dira ardatz eta, besteak beste,

abestuko dituzte *Veni creator spiritus* ereserkia, *Media vita* Garizumako erresponstua eta *Congraudeant* (Kalixtino kodexa). Kontzertua borobilduko dute beste erlijio-abesti batzuekin; *Maestra de la luz* Santa Teresaren ereserkia, *A Cristo crucificado* sonetoa eta *Cántico espiritual*.

Jose Luis Franzesena organo-jole azpeitiarrak egingo die lagun ekitaldian eta bakarlariak honako hauek izango dira: Mariatzen Urkia, Mari Carmen Etxeandia eta Maider Garai.

'Irati' filma aste bukaeran; domekan, Kepa Errastirekin

Paul Urkijok zuzendutako *Irati* filma Arkupera iritsiko da asteburuan. Gaur, egubakoitza (22:00), zapatuan eta domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) ikusteko aukera izango da. Domekako emanaldia, gainera, Kepa Errasti aktore aretxabaletarak aurkeztuko du, filmean parte hartu baitu. Emanaldietarako sarrerak salgai daude.

'Bullying' egoeren gaineko hitzaldia gurasoendako

Bullying egoerak minimizatzeke ingurune segurua nola sortu hitzaldia –euskaraz– eskainiko die Ortzadar enpresak gurasoei martxoaren 7an, Arkupen (18:00). Horren helburua da familiei euren seme-alabentzako ingurune seguru eta babesleak sortzen laguntzea, baita balizko arrisku, jazarpen edo *bullying* egoerak antzematen ikastea ere.



Martitzenean osoko bilkuren aretoan batu ziren udalbatzako kideak. I. BELOKI

M8a hizpide, Eudelek aurkeztutakoa onartuta

Bilduk herriko talde feministekin batera osatutako Martxoren 8ko mozioa aurkeztu arren, Eudelek eskatuta EAJk aurkeztutako mozioa irten zen aurrera martitzenean egin zen otsaileko osoko bilkuran, baiezko zazpi botorekin eta hiru abstentziorekin

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Martitzenean egin zen otsaileko osoko bilkura, eta gai zerrendan azpimarratzeko puntuak izan ziren, batetik, 2023ko Martxoaren 8a dela-eta Eskoriatzako EH Bilduk aurkeztutako mozioa; eta, bestetik, Eudelek eskatuta Eskoriatzako EAJk aurkeztutako mozioa. Bilduk aurkeztutakoaren emaitza honako hau izan zen: abstentzioa, sei boto ezezko eta hiru baiezko; EAJk aurkeztutako mozioak, berriz, baiezko zapi boto jaso zituen eta hiru abstentzio.

Herriko eragileekin lanketa

Lehenbizi, EH Bilduren mozioa izan zuten hizpide, eta Nestor Arana EH Bilduko bozeramaileak egin zuen egunerako prestatutakoaren irakurketa. Hauxe adierazi zuen: "Krisiaren azalratzeak batzuegan eragiten duen paralisiaren aldean, mugimendu feministaren deiarekin bat egiten dugu. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta

sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitze garaia da". Horrekin batera, zaintza mahai bat martxan jartzea; etxetzeko laguntza-zerbitzuaren eredu eta funtzionamendua egokitzea; eta Euskal Herriko Mugimendu Feministak abiatu duen dinamikarekin bat egitearen aldeko hautua egiten dutela azpimarratu zuen, besteak beste.

Horren harira, Josu Ezkurdia EAJko bozeramaileak ezezko botoa ematearen gainean honako hau argudiatu zuen: "Ez gaudesaten dituztenen kontra, baina Eskoriatzako EH Bilduk uste du beste eragile eta lantaldeek baino gehiago dakiela. Guk Eudelek planteatutakoa defen-

EAJ-K AURKEZTUTAKO MOZIOA IRTEN ZEN AURRERA, BAIEZKO 7 BOTOREKIN ETA 3 ABSTENTZIOREKIN

datuko dugu; Euskadi mailan garatutakoa da, alderdi politiko guztiak daudena, eta izugarriko lana egiten dute halako adierazpen bateratuak ateratzeko".

Alkatearen zehaztasunak

EH Bilduk egindako mozioari zuzenduz honako hau adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak: "2018ko apirilean, gaur egun ditugun etxetzeko zerbitzuko langileekin eta euren ordezkari sindikalekin egon ginen; hain zuzen, aurretik Bilduk eginda zuen lizitazioa egokitzeko euren nahietara. Beraz, 2018an ateratakoea eurekin adostutakoa izan zen. Egoerari buruz, une honetan, zerbitzuak gorabehera asko ditu; Aldundiarekin hitzarmen bat dugu eginda, eta, egoera ekonomikoaren arabera, gehienez hamabost euro orduko ordaintzen dute erabiltzaileak, eta, nolabait, gizarte zerbitzuetako teknikarien arabera, eurekin adostutako zerbitzu bat eskaintzen da...".

Natalia Urteaga sexologoaren hitzaldia izango da hilaren 9an

Ideal erromantikoetatik harago dauden moduak izango ditu berbagai Urteagak, Zaldibar antzokian

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak antolatuta, Natalia Urteaga biokimikari eta eboluzio-sexologo eta ADP Sexologia elkarteko presidentea hitzaldia egingo du martxoaren 9an, datorren egunean, 18:30ean, Zaldibar antzokian, gazteleraz. Estereotipo erromantikoetatik harago askotariko moduak daudela eta horien normalizaziorako bideak izango ditu berbagai.

Printzeen eta printzesen ipunek eboluzionatu egin dutela argi utziko du Urteagak. Molde asko hautsi direla gizarte

adieraziko du, kontuan izanda oraindik badirela sexuari eta ideoetan eta estereotipo erromantikoetan oinarritutako harremanei buruzko diskurtsoak. Hori horrela, bikote harreman eta rol tradizional horiek albo batera utzi, eta Zaldibar antzokian eskainiko duen saioan beldur gabe jorratuko dituen puntuetako batzuk interdependentzia, zaurgarritasuna, pasioa eta polimaitasuna izango dira, besteak beste. Horiek guztiak lotsa barik landuko ditu.

GORA ETA BEHERA



Telefonicako zutoina erortzeaz dago Mazmelan

Mazmela elizatean gora AP1 autobideko zubi azpian Telefonicako zutoin bat erortzeaz dagoela adierazi du bizilagun batek. Telefono seinalea garraiatzen duen kablea dago zutoin gainean, eta erortzen bada, agian, seinale gabe geratuko direla ohartarazi du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Hilaren 9an ere plazan izango da odola emateko autobusa

Atzo izan ziren, eta datorren egunean ere, martxoaren 9an, Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak antolatuta odola emateko autobusa jarriko dute Fernando Eskoriatza plazan. Autobusa ohiko ordutegian izango da, 16:30etik 20:15era bitartean, eta herritarrak animatu nahi dituzte bertara odola ematera.

Odolaren beharra dagoela azpimarratu dute Euskadiko Odol Emaileen Elkartetik; eta gaineratu dute odol emateen kopurua handitzea premiazkoa dela, euskal ospitaleen odol osagaien beharrei erantzuteko. Hori horrela, unitate mugikorra arratsalde osoan izango da bertan, eta, odola lortzeko dagoen aukera bakarra pertsona osasuntsu batek bere odola ematea izanda, 18 urtetik gorako eta 65 urte baino gutxiagokoei bertaratzeko dei egin die.

Emakumeen pilotak hartuko du frontoia

Pilota goxoarekin bi finalurreko jokatuko dira lehenbizi; gero, gazte mailako finalurrekoa; eta, ondoren, elite mailako bi partidu jokatuko dira Joseba Iñurrategi pilotalekuan, zapatuan. 16:00etan hasiko da ikuskizuna, eta sarrera doan izango da

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Pilotazaleentzat jaialdi ederra izango da zapatuan Eskoriatzan, eta eskuz binakako txapelketako partiduak ere egongo dira jokoan. Iker Amarika antolatzailerak adierazi duenez, azken orduko aldaketak izan dira egitarauan, baina aurrera eramango dela hitzordua adierazi du. "Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Iparraldeko eta Gipuzkoako pilotariak batuko dira, eta maila askotariko partiduak izango dira ikusgai. Pilota goxoarekin arituko dira; gazte mailako finalurrekoa jokatuko da, baita elite mailako bi partidu ere".



Bailarako zenbait pilotari partidu batean. GOIENA

Aldaketak pilotarien artean

Hasiera batean, bailarako pilotari ugari batu behar zituen Eskoriatzako hitzordua, baina, egin diren aldaketan ondorioz, pilotari bakarra izango da eskualdekoa: bikoteka gazte mailako finalurreko kanporaketa izango du jokoan.

Pilota mistoan, lehenengo mailan, Maddi Barrocal bergararrak eta Uxue Osés oñatiarrak osatutako bikoteak Madalen Etzegarai oñatiarraren eta Itxaso Erasune zizurkildarraren aurka jokatu behar zuen, baina, lesio baten ondorioz, zenbait aldake

ta izan dira. Hori horrela, 16:00etan, pilota goxoarekin bi finalurreko jokatuko dira, Joseba Iñurrategi frontoiko pilota jaialdia hasteko. Ondoren, gazte mailako finalerdietako kanporaketa jokatuko da, eta, kasu horretan, Miren Gisasola bergararra eta Alejandra Biliyari Jaione Elorzaren eta Alba Maren kontra arituko dira.

Elite mailako partiduak

Partidua amaitzean, elite mailako partiduak hasiko dira. Batek, Garai eta Gaminde bikotea

Arrizabalaga eta Capellan bikotearen aurka arituko da, eta, bestetik, Larrarte eta Amillaga bikoteak Aldai eta Mendizabal izango ditu aurrean.

Guztira, bi partidu jokatuko dituzte zapatuan Eskoriatzan. Jaialdia 17:30ean hasiko dute –sarrera doan izango da–, eta lehenengo partiduan pilotari debagoiendarrak egongo dira tartean. Bigarren partiduan, pilota mistoko eliteko kategorian, Aldaik eta Mendizabalek Larrarte eta Arrillagara izango dituzte aurrean.

Atama Eskoriatza Kenpo taldekoak, Mundukora

2023ko kenpoko Munduko Txapelketa Portugalen jokatuko da apirilaren 26tik 30era bitartean, Caldas da Rainhan, eta Atama Eskoriatza kenpo taldeko lau borrokalari aukeratu dituzte han lehiatzeko. Leire Rato, Otavio Luz de Paula, Danel Saenz Azkunaga eta Airam Duarte arituko dira; borrokalari bakoitza bere diziplinan.

Haiekin batera, Rafa Carriet Atama Eskoriatza kenpo taldeko entrenatzailea epaile gisa arituko da.

Rafa Carriet entrenatzaileak adierazi duenez, "poztekoa da" Eskoriatzako lau borrokalari Munduko Txapelketarako hautatuak izan direla jakitea, eta taldea "ederra" dela azpimarratu du. Hauxe gaineratu du: "Dena emango dugu Portugalen, eta, emaitzetan erreparatu barik, ilusiorik handienarekin prestazio jarraituko dugu".

Jaiak prestatu eta proposamenak jasotzeko bilera

Martxoaren 7an, bilera egingo da, 18:00etan, udaletxean, San Pedro jaietarako proposamenak jasotzeko eta aztertzeko. Interesa duen edonork izango du parte hartzeko aukera; era prezentez online edo online. Azken horretarako, bileran sartzeko gonbidapena jasotzeko, mezua bidali beharko da aurrez kultura@eskoriatza.eus helbidera.

LEINTZ GATZAGA | 19



2020an Gure Ametsan egin zuten urteroko bazkarian. SORGINAK EMAKUME TALDEA

Sorginak Emakume Taldekoek gertu dute ekintza-sorta

Martxoaren 8an, 17:30ean, ohorezko zapia emango diote Sorginak Emakume Taldeko kideetako bati

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Martxoaren 8ra begira, astean batu dira Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldeko kideak, egunotara begira antolatu dituzten hitzordua finitze eta egitaraua ixteko. Aitortza ekitaldia, ikus-entzunezko baten proiektzioa eta urteroko bazkaria izango dira.

Martxoaren 8an 17:30ean batuko dira, eta ohorezko zapia emango diote Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldeko kide bati, lehenbizi. Horrekin batera, koplak abestuko dizkiote eguneko protagonista-

ri, eta, ekitaldia amaitzen duteanean, Aretxabaletarako bidea hartuko dute, han egingo den manifestazioan parte hartzeko.

Urteroko bazkaria, hilaren 11n

Martxoaren 8an egingo dituzte gain, beste zenbait ekintza ere antolatu nahi izan dituzte. Hala, martxoaren 10ean *Erraiak* dokumentalaren proiektzioa egingo dute, 18:30ean, Gatz Museoko informazio-guneko eraikinean. Horrekin batera, martxoaren 11n urteroko bazkaria egingo dute: aurten, 14:30ean, Toki Eder elkartearen.

Behin-behineko onespina eman diote 2023ko aurrekontuari

Otsailaren 16ko osoko bilkuran izan zuten hizpide, eta orain erreklamazioak aurkezteko epea ireki dute

I.B. GATZAGA

Udalaren urteko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena biltzen duen txostena izan zuten beragari Leintz Gatzagako udalbatzako kideek 2023ko otsailaren 16an eginiko ohiko osoko bilkuran. Izan ere, behin-behineko onarpenera eman zioten 2023ko ekitaldiko aurrekontu orokorrari, eta, otsailaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, erreklamazioak egiteko epea ireki dute.

Gobernu-taldeak 2023ko aurrekontuaren zirriborroa landu

du, eta, aurrekontu-proposamenari hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarri zuten hamabost egunez. Epe horretan, interesdunek proposamena aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko aukera dute. Jendaurreko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, aurrekontu orokorra onartutaz joko da behin betiko izaerarekin, beste erabakirik hartu behar izan gabe. Aldiz, erreklamaziorik aurkeztuz gero, hilabeteko epea izango du udalbatzak horiek ebazteko.



Antzuolako Errukizko Amaren parrokia. A.R.K.

500 urte bete ditu parrokiak

Bost mende pasatu dira aita santuak Errukizko Amaren Parrokia eraikitze baimena eman zuenetik. Antzinakoa egin zuten lehenbizi, baina, egoera "tamalgarriengatik", 1651an handitzen hasi ziren. Datorren astean urteurreneko ekintzak egingo dira

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

1523ko urtarrilaren 15a. Orduan eman zuen Clemente VIII. aita santuak Errukizko Amaren parrokia eraikitze bulda, Olalde inguruan –izen horrekin deitzen baitzitzaion egun Herriko Plaza dagoen tokiari–. Halere, ez zen egun batetik bestera eraiki; antzinakoa zena egin zuten lehen-dabizi, oinarriak, eta, ostean, zegoena zabaldu zuten.

Bada, eliza eraikitze baimen hura eman zenetik bost mendera, urteurrena ospatuko dute.

Buldaren azalpenak

Jon Molina apaiza da antolantza-lanetan dabilenetako bat, eta nabarmendu du "500 urteko efemeride borobila ospatzeko modukoa" dela. Haren arabera, ospakizunak hasteko, "ekitaldi xume batzuk" antolatu dituzte,

baina nabarmendu du aurrerago ere izango dutela beste zerbaite prestatzeko aukera. "Momentuz, parrokia eraikitze bulda ekarriko dugu eta bulda horren azalpen bat egin nahi genuke, herriari azalduz zer den, zer esan nahi duen eta zer ondorio dakartzan".

Iñigo Ramirez de Okariz historialaria arduratuko da zeregin horretaz. *Herriko parrokia: 500 urteko ondarea* izenburua duen hitzaldia egingo du martxoaren 9an, Orlaranen, 18:30ean. 500 urteko bidea izango du gogoan, buldaren azalpenetatik hasita.

PARROKIA 1525EAN KONTSAKRATU ZEN KULTURAKO, BAINA 1540RA ARTE EZ ZEN BUKATU ANTZINAKOIA

"Data sinbolikoa da 1523ko urtarrilaren 15a, aita santuak baimena eman zuelako Antzuolan parrokia eraikitze". Azaldu duenez, Antzuolak, antzina, Uzarragako eliza zuen soilik, baina, herrigunean jendea bizitzen hastearrekin bat, beste baten premia ikusi zuten herritarrek. "Aita santuak emandako dokumentuan oso ondo ageri da garai hartan Olalde inguruan 150 bizilagun bizi zirela, eta hori nahikoa aitzakia izan zen beste parrokia bat eraikitze".

Errukizko Amaren parrokia eraikuntza, ordea, ez zen egun batetik bestera egin. Dokumentu arabera, 1525ean kontsokratu zen eliza kulturako, baina 1540ra arte ez zen bukatu Antzuolako hasierako parrokia zena. Ondorengo urteetan, berriz, elizaren egoera tamalgarria zen, eta gero eta antzuolar gehiago



1523ko urtarrilaren 15eko bulda

Aita santuak izenpetutako eta zigilatutako agiria da bulda; hain justu, dokumentuaren azpian ageri den berunezko domina. 1523an emandako honetan, albo batean, San Pedro eta San Pablo ageri dira, eta, beste aldean, aita santuaren izena: Clemente VIII.

izateak parrokia berritu beharra ekarri zuen. "Orain ikusten dugun parrokia ez da antzinakoa. Egungoa antzinakoaren gainean eraikita dago; edo, hobeto esanda, zabaldu egin zen", azaldu du Ramirez de Okarizek. Alabaina, lanak nahi baino gehiago atzeratu ziren, 1651n hasi baitziren eliza handiagoa eraikitzen, inguruko lurra erosita. "Ia-ia berrehun urte behar izan zituzten egun ikusten duguna eraikitze. Azken zatia kanpandorrea izan zen, 1866an, eta horrek ekarri zuen obra bukaera".

Kanpandorreak, ordea, badu berezitasun bat, bi zati baitira: "Bata 1866koa da, antzinakoa, kanpai handiak dituena, baina 1952ko urtarrilaren 18an oinaztarri batek jo eta gainaldeko zatia erre egin zen". Berreraiki egin behar izan zuten. Hala ere, bitxiaren a plazatik begiratuz gero kanpandorrearen eraikuntza urtea 866a izan zela, lehen zenbakia estali egiten baitu erlojuak. "Eliza barruan sartuko bagina, ordea, gauza bitxi gehiagorekin egin genezake topo; interesgarriak, artelanen aldetik. Eta hori ere izango da aitzakia ospakizunean, ate irekiak egingo dira eta".

1866AN ERAIKI ZUTEN KANPANDORREA, AZKEN ZATIA ZEN; BAINA 1952AN ERRE, ETA BERRERAIKIA DA

Eliza zabalik

Hala, zapatuan, martxoaren 11n, egingo dituzte ate ireki horiek parrokian, Molinak adierazi duenez. "Eliztarrok ezagutzen dugu gure parrokia, baita antzuolar askok ere, baina, akaso, badaude batzuk, gaztetxoek-edo, ezagutzen ez dutenak. Hala ere, nik uste dut gure parrokia hau ikusteko moduko inportantea delako". 11:30etik 13:00era eta 18:30etik 20:00etara egingo dituzte ate irekiak, eta, gainera, zabaltzeko unean, goizean zein arratsaldean, bisita gidatuak egingo dituzte.

Igandean, berriz, martxoaren 12an, Fernando Prado Donostiako apezpikuak meza esango du Errukizko Amaren parrokian. "Joan den abenduaren 17an ordenatu zuten gotzain, eta geroztik bi hilabete besterik ez da pasa, baina aitzakiaren bat behar zen gotzaina Antzuolara gonbidatzeko eta pentsatu genuen hau izan zitekeela egokiera aproposa". Bada, ohi den legez, 11:00etan esango du meza nagusia, eta, ostean, eliztarrekin egoteko aukera izango du.

Alabaina, ez da egun horretako ekintza bakarra izango, pergaminozko bulda ikusgai jarriko baitute meza ostean, 12:00etatik 13:00etara bitartean, parrokia sakristian.

Bestalde, 16 orrialdeko dossier bat kaleratuko dute, parrokia historia eta ondarea dakarrena; bi eurotan izango da salgai.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

M8

Aldarri morea kalera



Askotariko ekitaldiak · Zaintza sistema eraldatzea aldarri · Emakumeak, feminismoaz · Parekidetasuna hedabideetan

Askotariko aldarriekin eta ekintzekin josiko dira kaleak Martxoaren 8an

Instituzioek emakumeen lidergoan egin dute azpimarra; Euskal Herriko Mugimendu Feministak, zaintzan; Itaiak, "andre langileek jasaten dituzten indarkeria formetan"

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, askotarikoak izango dira instituzioek zein mugimenduek kalera aterako dituzten aldarriak.

Eusko Jaurlaritzak, Emakundek, hiru foru aldundiek, Eudelak eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalek erabaki-postuetan emakume gehiagok egon behar dutela azaldu dute, eta, horretarako, "baldintzak garatu" behar direla. Hala, asmoa da erakustea zein diren emakumei

postu horietara berdintasunez iristea eragozten dieten oztopoak.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak, berriz, zaintza sistema eraldatzea izango du aldarrikapen, emakumeen aurkako indarkeriaren ardatzetako bat dela iritzita. Azaldu dutenez, gainera, euren aldarriak ez dira asko aldatu iaztik, egoerak ere ez duelako aldaketarik izan. Hala, azpimarratu dute "zaintzaz hitz egitea gorputzen, lurraldeen eta herrien arteko interdependentzia loturak jostea eta saretzea" dela, eta hori izango dutela aldarri,

Denon bizitzak erdigunean dinamikarekin bat eginda.

Itaiak emakume langileek "askotariko indarkeria formak" pairatzen dituztela adierazi du, eta krisi testuinguruan "modu gordinagoan, normalizaziora iristeraino". Are gehiago, erantsi dute ikus-entzunezko plataformekin "bortizkeria forma berriak" garatu daitezkeela eta horrek gizartearen sektore baten zat "bizi-baldintza okerragoak" dakartzala. "Klase gorenaren irabaziak gora doaz eta emakume langileon egoera larria da".

EGITARRAUA

MARTXOAK 03

Bergara Erakusketa

Bergarako emakume artistak. Aroztegin, 18:00etan.

MARTXOAK 04

Aretxabaleta Txapelketa

IX. Emakumezkoen Frontenis Txapelketa. Iturrigorri, 08:20an.

Arrasate Eztabaida feminista

Tere Maldonado: *Hizkuntzaren erabilera feminismoan*. Emakume txokoan, 10:00etan.

Aramaio Jardunaldiak

Agroekofeminismoa hizpide. Kultur etxean, 10:00etan.

Bergara Hitzaldia

Ainhoe Azkue: *Feminismoa gazte antolakundean*. UNEDen, 11:30etan.

Oñati Bisita gidatua

Iluntasunetik argitasunera: Oñatiko emakumeak bistara. Turismo Bulegoan, 17:00etan.

MARTXOAK 05

Oñati Azoka

Emakume artisauek. Azoka plazan, 10:00etan.

Aramaio Zinema-kafea

Filma: *La vida era eso*. Kultur etxean, 18:30etan.

MARTXOAK 06

Arrasate Erakusketa

Martxoaren 8ko kartelak. Emakume txokoan, 10:00etan.

MARTXOAK 07

Elgeta Emanaldia

Ainarak dokumentala. Udaletxean, 18:30etan.

Bergara Solasaldia

Rebeca Lane aktibista feminista. Seminarioan, 19:00etan.

Bergara Ipuin kontalaria

Elssie Xalbador, helduentzat. Zinemaren, 19:00etan.



Hemen garbiketak
Ura bezain garbia

ELKARREKIN BERDINTASUNERANTZ!

T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com



Parekidetasunaren alde

EROSKI
ARRASATE



MARTXOAK 08

Oñati Elkarretaratzea

Lagun Leku eta Oñatiko pentsiodunak.
Olakuako urmalean, 12:00etan.

Antzuola Elkarretaratzea

Udala eta Andramanuelak.
Herriko plazan, 12:00etan.

Leintz Gatzaga Omenaldia

Sorginak taldeko bati ohorezko zapia eta koplak.
Herriko Plazan, 17:30ean.

Bergara Mahai-ingurua

Martxanterak: hainbat gairen lanketa.
San Martin plazan, 18:00etan.

Elgeta Ipuin kontalaria

Sexune elkarteak: *Itsaspetik azalera, azaletik plazara*, gazte eta helduentzat.
Liburutegian, 18:00etan.

Aramaio Mobilizazioa

Elkarretaratzea.
Bizente Goikoetxea plazan,
18:00etan.

Arrasate Mobilizazioa

Neska gazteak eta Ikama: elkarretaratzea.
Herriko plazan, 18:15ean.

Arexabaleta Mobilizazioa

Manifestazioa.
Herriko Plazan, 18:30ean.

Eskoriatza Mobilizazioa

Manifestazioa.
Fernando Eskoriatza plazan,
19:00etan.

Arrasate Mobilizazioa

Manifestazioa.
Biteri plazan, 19:00etan.

Oñati Mobilizazioa

Ekitaldia.
Herriko plazan, 19:00etan.

Antzuola Mobilizazioa

Manifestazioa.
Herriko Plazan, 19:00etan.

Bergara Mobilizazioa

Itaia Deba Bailara: manifestazioa.
Epaitegian, 19:00etan.

Bergara Mobilizazioa

Martxanterak: manifestazioa.
San Martin plazan, 19:30ean.

Elgeta Mobilizazioa

Elkarretaratzea.
Mendizaleen plazan, 19:30ean.

MARTXOAK 09

Arexabaleta Ikuskizuna

Luze edo motz bakarriketa.
Zaraia aretoan, 19:00etan.

Oñati Zinekluba

Filma: *La maternal*.
Zinema aretoan, 20:00etan.

MARTXOAK 10

Arrasate Ikuskizuna

Bertso-klowna: Beatriz Egizabal,
Miren Artetxe, Oihana Bartra eta
Ane Labaka.
Kulturaten, 19:00etan.



Oñati Antzezlana

Zarta taldea: *Isiltasunaren gatibu*.
Santa Ana aretoan, 20:30ean.

MARTXOAK 11

Oñati Bazkaria

Martxoaren 8arengatik.
Antixena gaztetxean, 14:30ean.

Leintz Gatzaga Bazkaria

Sorginen taldea.
Elkartean, 14:30ean.

MARTXOAK 12

Arexabaleta Martxa

Aresko Emakume Martxa.
Arexabaletatik, 12:00etan.

Antzuola Ikuskizuna

Beatriz Egizabal: *Magma Mia*.
Torresoroan, 18:00etan.

Oñati Ikuskizuna

Hots Abesbatza eta Amaia Zipitria.
Agustindarren elizan, 19:00etan.

Aramaio Zinema

Filma: *Madres paralelas*.
Kultur etxean, 19:00etan.

MARTXOAK 15

Arexabaleta Ikuskizuna

Amaia Elizagoien: *Amelie*.
Liburutegian, 18:00etan.

MARTXOAK 16

Oñati Hitzaldia

Ainhoa Nadia eta Florencia Brizuela: *Estatu arrazakeriaren geografiak*.
Kultur etxean, 18:00etan.

Arexabaleta Emanaldia

Dokumentala: *Romipen*.
Arkupen, 19:00etan.

MARTXOAK 23

Oñati Hitzaldia

Esku Hutsik elkarteak: *Dolu perinatale ikusgai egiten*.
Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

Arrasate Emanaldia

Dokumentala: *Nuestra libertad*.
Kulturaten, 19:00etan.

Aramaio Aurkezpena

Liburua: *Ama*, Eme*, Ume**.
Kultur etxean, 18:00etan.



Berdintasunarekin bat!



*Aurten ere badator
Martxoaren 8a, mobilizatuko
gara 365 egunetan?*

 **Goizper Group**
Aniztasuna Bidelagun



Feminismoa, zortzi emakume debagoiendarren ikuspuntutik

Martxoaren 8aren bueltan, euskal gizarteak azken 10 urteetan feminismoan izan duen bilakaeraz galdetu die GOIENAK entitate eta profil askotariko bailarako zortzi emakumeri. Gizartea feministagoa da? Zertan igarri dute aldaketa? Zein alorretan egin beharko litzateke lan berdintasunean aurrerapausoak emateko?



MIREN ELGARRESTA
EMAKUNDEKO ZUZENDARIA

"Perspektiba izan behar dugu berdintasunaz ari garenean"

"Uste dut perspektiba izan behar dugula berdintasunaz ari garenean, eta, zalantzarik gabe, aurrerapauso handiak eman dira gizartearen sentsibilizazioan. Euskal gizartea sentsibilizatuago dago eta berdintasunaren aldeko eskaera handiagoa da. Ezin ahaztu berdintasunaren aurkako indarrak badaudela eta adi egon behar dugula. Alor guztiak dira inportanteak; parekotasunari dagokionez argi dago eremu publikoan pauso handiak eman direla, baina pribatuan asko dagoela egiteko".



LARRAITX ARANDO
MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEA

"Aldaketa beharra dago gizartea parekideago izateko"

"Lehen, feminista sentitzen zirenak eta kontzientzia feminista zutenak bazeuden, baina ez zegoen hedatuta. Generoen inguruan dauden desoreka identifikatzea ahalbidetu du, eta neurriak hartzea eskubideak lortzeko. Badago zer egin. Gizartea antolatuta dagoen moduan, lanen arloan hierarkizazioa gertatzen da. Baloratzeke dauden lanak guk egiten ditugu; batik bat, zaintzari lotutakoak. Eta emakume etorkinei asko eragiten die. Aldaketa beharra dago gizartea parekideago izateko".



MAIA IRIBECAMPOS
ITAIAKO KIDEA

"Beharrezkoa da burgesiaren gizarte antolaketa gainditzea"

"Zentzu komun feministagoaz hitz egin dezakegula uste dut. Agenda politikoan emakumeon problematikaren auzia mahai gaineratu da eta M8an kaleak hartu ditugu. Sare sozial modalitate berriek eta pornografiak hipersexualizazioa kondentzen gaituzte, zaintza lanek gudan dihardute eta kolokazio enpresek negoziotzat garabiltzate. Genero zapalkuntza amaitzeko, beharrezkoa dugu klase burgesaren interesei soilik erantzuten dien gizarte antolaketa gainditzea".



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Gizartearekin bat berdintasuneruntz!

Euskadi etorbidea, 6 (ONATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com
Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com



ausolan

Emakumeen Egun zoriontsua izan!

"Emakume bat bere kabuz jaikitzen den bakoitzean, emakume guztien alde jaikitzen da."

MAYA ANGELOU
Idazlea eta emakumeen eskubide zibilen aldeko aktibista



NAGORE IPIÑA

MU-KO HUHEZI FAKULTATEKO DEKANOA

"Urratsak egiteko, gure burua zalantzan jarri behar dugu"

"Aldaketa gertatu bada ere, etengabe jarri behar dugu gizarte bezala geure burua zalantzan urratsak egin nahi baditugu; politika orokorretik hasita eguneroko detaileetara. Kontzientzia mailan, ahalduntzean, babes feministan eta ahizpatasun estrategietan gertatu da aldaketa esanguratsuena. Emakumeen ahotsa entzutea eta errespetatzea, erabakimen espazioetan dauden emakumeen presentzia areagotzea eta berdintasunean oinarritutako hezkuntzaren aldeko apustu irmoa egitea".



NEREA LORON 'LA FURIA'

ABESLARIA

"Zeharkakoa da feminismoa, eta hala izan behar du"

"Gehiengoarentzat duela 10 urte gaizki ikusia zegoena orain gutxiengo batentzat baino ez dago. Honek aurrerapena erakusten du eta itzalak ere baditu. Adibidez, orain, *guay* izateko feministatzat jo behar da norbere burua; izatea beste kontu bat da. Perbertsio bat dago norbere burua feministatzat jo eta kontrako praktikak izatean. Zeharkakoa da feminismoa, eta izan behar du. Horrela ulertzen ez bada, aldaketak ezin izango dira egiturazkoak izan eta ez da eraldaketa sakonik izango".



PILAR ETXANIZ

PENTSIODUNA

"Emakumeek orain gehiago baloratzen dute euren burua"

"Arlo sozialean gehiago parte hartzen dute elkarte edo talde ezberdinetan. Gizartearen aldaketak onartzeko ahalegina egiten dute: LGTBI+; euren burua eta eskubideak emakumeek gehiago baloratzen dituzte. Arrakala gainditzeko lanpostu feminizatuak birbaloratu eta soldatak parekatu, gizartearen ongizatean zaintzaren garrantzia ikusarazi, gizonak berdintasunean inplikatu eta maskulinitate eredu berriak bistaratu beharko lirake. Beharrezkoa komunikabideen konpromisoa sustapenerako".



KARMELE LOITI

ETXEZ ETXEKO LANGILEA

"Asko falta zaigu berdintasunera iristeko"

"Mugimendu feminista duela 10 urte baino gogorragoa da. Simone de Beauvoir-ek zioen bezala, krisi eta une txarretan emakumeok ez diogu borrokatzeari utzi behar, kapitalismoak beti egingo baitu mugimendu feministaren kontra. Berdintasunetik urrun gaude. Patriarkatu eta kapitalismoak jartzen ditu oinarriak; ekoizpena, adibidez. Euren ustez, emakumeok ez dugu produzitzen. Goiko postuetan gizonak daude. Azkenean, emakumeok zaintza eta etxeke lanetan jarraitzen dugu".



JANIRE LAMARIANO

UNED-BERGARA ZIENTZIA KOORDINATZAILEA

"Emakume zientzialariak ikusezin izateari utzi dio"

"Naturaltasun handiagoa dago emakumeen presentziarekin; izan ere, askok nahi baino presio eta epaiketa gehiago bizi izan zituen. Bestetik, emakume zientzialariak ikusezin izateari utzi dio. Antzina egondako emakumeak zientzian izandako garrantzia ikasi, etorkizunekoak animatzen ditugu orain. Zaintzak heltzen direnean emakume askok laborategia utzi eta etxeke amantala jartzen dute. Legeak eta borondatea falta benetako berdintasunera heltzeko".



Elkarrekin berdintasuna eraikitzen.



www.ikerlan.es



OÑATI
dabilen herria

Martxoak 8

FEMINISMOA · AHALDUNTZEA Zaintzak · Saretzea



Hedabideak, feminismitik

Feminismoa tokia egiten ari da hedabideetan azken urteetan, baina horrek ez du esan nahi begirada feminista behar bezala txertatu denik. Ikusgarritasuna, rolen berrikuspena eta ikuspegi feministaren zeharlerrotasuna dira hedabideen erronka

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Inork ez du zalantzan jartzen hedabideen eragina iritzi publikoan. Hitz egin behar den horren gai-zerrenda ezartzen dute, *Agenda Setting*-aren teoriak agerian uzten duenez, eta oso paper garrantzitsua jokatzeko dute, iritzi sortzaile diren heinean. Feminismoa agenda sozialean tokia eginez doa azken urteotan eta hori, kalean bezala, hedabideetan ere islatu da. Baina, zein bila-kaera izan dute hedabideek emakumearen presentziaren, ahal-

duntzearen eta diskurtso feministaren ikuspuntutik? Unescok lotura estua atzeman du emakumeen ahalduaren eta hedabideen garapenaren artean, eta garrantzitsu jotzen du genero-adierazle batzuk aztertzea; adibidez, informazioen eta iritzien egileen ingurukoak, baina, are esanguratsuagoa dena, edukietan irudikatutako tratamendua, generoaren perspektiba edo ikuspegitik egindakoa ala halakorik kontuan hartu gabe sortua den ikustea. Horren harira, ikerlari

eta gai feministetan aditu Mainer Galardik azaldu duenez, "feminismoak tokia egin du hedabideetan azken urteetan, baina horrek ez du esan nahi begirada feminista behar bezala txertatu denik. Begirada hori bermatzea da erronka nagusietako bat, ikuspegi feminista daukan kazetaritza egitea". Izan ere, "kazetaritza, batik bat, maskulinizatua eta begirada androzentrikoa duen diziplina da oraindik eta hori ikusten da hedabide jeneralistetan: nola lantzen den

indarkeria matxista, zein dagoen zutabeak idazten, zein adituri deitzen zaion, zer den azalean doan albistea", dio adituak.

Emakumeak albisteetan

Emakumeen informazioetan duten rol edo funtzioari dagokionez ere badaude nabarmendu beharrekoak. EHUKo Emakumeen Ikusgaitasuna Hedabideetan Ikerketa Taldeak euskal hedabideetan emakumeek duten presentziaren gainean egindako ikerketan ondorioztatutakoaren arabera, kualifikaziorik gabeko iritziak eta esperientzia pertsonalak azaldu ohi dituzte emakumeek, gizonak dira informazioetako protagonista neurri handiago batean, aditu moduan ere gizonak dute presentziarik handiena eta unibertsitate edo arlo akademiko eta zientifikoetako aditu gisa gutxi azaltzen dira emakumeak. "Gero eta toki gehiagotan gaude hedabideetan, baina oraindik ez nahi genukeen tokietan", dio aditu Mainer Galardik. "Askotan ez gaude albisteetan protagonista gisa aditu moduan. Beste batzuetan biktima bezala bakarrik gaude, erasoei buruz

behin eta berriz errepikatzen diren albiste alarmaneteetan, esaterako. Ez gaude sail pisutsuak zuzentzen eta ezta kirol eremuetan ere", dio Galardik.

Hala ere, aurrera

Emakumeen ikusgaitasunari dagokionez, euskal hedabideetan agertzen den emakumeen kopurua 10 puntu altuagoa da nazioarte mailakoa baino; 15 puntu euskarazko hedabideen kasuan. "Esango nuke bi faktorek eragiten dutela hori", dio Galardik: "Lehen mugimendu feministak Euskal Herrian duen indarra da eta bigarrena, euskararen alda-gaia. Lorea Agirrerren eta Idurre Eskisabelen gogoetari jarraituta, bi zapalkuntza horien antzekotasunak ulertzen ditugu". Euskal hedabidegintza bereizten da gaian, beraz. "Hor dugu *Berria*, aspalditik gaiari buruzko gogoeta feminista egiten. *Argia*-k ere badu ikuspegi hori, *Gara*-n ere txertatzen dute, eta kazetari feministak daude denetan; seguru nago EITBn ere badaudela. Tokiko hedabideak ere ari dira formatzen, ikastaroak egiten, apustuak egiten...", nabarmendu

Benetako berdintasuna, guztion lana.

M8
goiena
seguru bizi

Martxoak 8
Elkarrekin eta antolatuta,
feminismoa eraikitzen

ezker anitza



Kazetariak Goienako erredakzioan lanean. MIREN ARREGI AMASORRAIN

du Mainer Galardik. Genero ikuspegia txertatzeko apustua aspaldikoa da *Berria*-n, esaterako. "Egunkaria-ren garaitik dator", dio *Berria*-ko kazetari eta Berdintasun Batzordeko kide Itziar Ugartek: "Bai barruko

funtzionamenduari lotuta eta baita kanpora begira ere. Begirada hori zorrozten joan gara formakuntza, espezializazioa eta ezagutza feministak lantzen joan garen heinean. Estilo liburuak berak ere jasotzen du *Bereizke-*

riarik gabeko tratamendua lortzeko jarraibideak izeneko atala, eta 2013an, esaterako, indarkeria matxistaren mapa osatu genuen. *Berria FM podcastak* ere berariaz sortua da feminismoa lantzeko. *Berria*-k lortu du feminismoa

euskaraz modu konplexuan lantzea, gure iruditeria sozial, kultural eta politikoak eraldatzea. Komunikabideok dugun arduraren kontzientzia handia dago", dio Ugartek.

Tokikoak ere martxan

Tokiko hedabideen bilakaera ere ukalezina da, alde horretatik. Esaterako, tokiko prentsan emakume iritzi-emaileen portzentajea handiagoa da Hego Euskal Herriko prentsarekin edo Kataluniako edo Espainiako prentsarekin alderatuta. Hain zuzen ere, Goienak 2015az geroztik neurtu egiten du emakumeen eta gizonen presentzia adierazleekin, eta Kudeaketa Planean ere jasota dago. "Bi mugari aipatuko nituzke", dio Iban Arantzabalek, Goienako zuzendari nagusiak: "Batetik, *Goiena. Estilo Liburua*, 2007koa; eta, bestetik, *Komunikazio Parekiderantz, Kazetariendako eskuliburua*, 2015ekoa, Arantza Santestebanena. Azken hori, Arrasateko Udaleko Emakume Txokoarekin batera argitaratutakoa eta Goienako kazetariekin batera egingandako lanketaren ondorioa". Ho-

rez gain, gaiarekiko formakuntza ere etengabekoa da Goienako kazetarien artean, eta Berdintasun Batzordea izatea ere lagungarri da. Aurrera begirako erronkez galdetuta, Arantzabalek azaldu du "beti" dagoela zer hobetu. Azaldu duenez, "seguruen, kazetariendako, sexu abusuen gaineko gertaera edo albisteak ondo kontatzea da zeregin zailetako bat. Ausartzen naiz esatera kazetaritza historian gai horiek ez direla behar den moduan kontatu".

Kazetaritzaren ekarpena

Argi dago hedabideak ari direla pixkanaka ikusgarritasunaren alde lanean, eta hori gure egunerokoan txertatzen, "baina oraindik asko falta da gaiari ikuspegi feministatik heltzeko", dio ikerlari Mainer Galardik: "Kazetaritza eredu feministak ekarpena egin dezake emakumeak erdigunean kokatu gaitetzen, bai etxe barruetan moldeak aldatuz, bai egiteko manierak birpentsatuz, eta baita iruditeria berriak sortuz ere. Azken finean, hori da kazetaritza. Ari gara, baina adi egon behar dugu".

M8
berdinetik,
berdinerara
Geuri ere
badagokigulako

FAGOR

m8"

Ibarrondo auzoko lanak: asfaltatzen hasi dira

Lan horiek iraun artean, Ibarrondora ezingo da autoz sartu. Batik bat, oinezkoentzat egokituko dute auzoa, hala nola belargune batzuekin eta iturri batekin. Zoru guztia maila berean jarrita, ordea, aparkalekuak ere ohi baino gehiago izango dira: 35

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Urtea hasterekin batera hasi ziren Ibarrondo auzoa berrurbanizatzen. 151.282,28 euroko aurrekontuarekin, Orsa SL enpresako langileak dabilta zeregin horretan urtarrila ezker, eta martxa onean doaz, atzo hasi baitziren asfaltatze lanekin.

Ondorioz, Antzuolako Udalak jakinarazi du lan horiek iraun artean, makina bertan denean, bederen, Ibarrondora ezingo dela autoz sartu. Horrez gainera, Ibarrerainoko paseoa ere asfaltatuko dute, eta, beraz, ezingo da handik igaro.

Hala, behin lan guztiak amaituta, beste itxura bat izango du auzoak. Batik bat, oinezkoentzat egokitu nahi izan dute. Lau etxebizitza-atari daude auzoan, eta horietako bakoitzaren aurrean belargune bat ez ezik zuhaitzak ere jarriko dituzte bloke bakoitzaren albo banatan; lau, guztira. Iturri bat ere jarri-



Ibarrondo auzoko lanak; azken egunotan, asfaltatzen dabilta. A.R.K.

ko dute Ondarre alderako bidean, lehen zegoen zelai-gunea aprobetxatuz.

Aparkalekuei dagokienez ere, ordea, hobekuntzak egingo dira. Espaloiak kendu eta zoru osoa maila berean egoteak 35 apar-

kaleku jartzea ahalbideratuko du.

Ostean, Ondarren

Datorren astean, berriz, Ondarre auzoko zuloak konpontzen hasiko dira.

M8ko aldarriekiko atxikimendua adierazi dute udal taldeek

Eudelen adierazpen instituzionala onartu dute aho batez hiru taldeek; PSE-EEK, baita EH Bilduren mozioa ere

A.R.K. ANTZUOLA

Martitzenean, otsailaren 28an, egin zuten ohiko osoko bilkura udal taldeek, eta Martxoaren 8ko aldarriekiko atxikimendua adierazi dute. EH Bilduk, EAJK eta PSE-EEK bat egin dute Eudelen Emakumeen Nazioarteko Egunerako aurkeztutako adierazpen instituzionalarekin, zeinak erabaki-postuetan emakume gehiagok egon behar dutela aldarrikatzen duen.

Horrez gainera, EH Bilduk aurkeztutako *Martxoaren 8a, zaintzen duen herria helburu*



Mobilizazioa 2021ean. GOIENA

mozioa ere babestu dute taldeek, EAJK izan ezik. Mozioak zaintzaren inguruko konpromisoak hartzen ditu, hala nola etxeko zerbizuetan eta eguneko zentroetan lanean dabiltzan baldintzak identifikatzea eta horien lanketa egitea.

Elkarretaratzeak

Martxoaren 8an, berriz, mobilizazioak egingo dituzte. Andramanuelak emakume taldeak eta Antzuolako Udalak antolatuta, elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan. Arratsaldean, berriz, manifestazioa egingo dute, plazatik abiatuta, 19:00etan, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren *Denon bizitzak erdigunean* dinamika-rekin bat eginez, zaintzarako eskubide kolektibo baten aldeko aldarriarekin.



NIRE USTEZ

OLATZ ABASOLO

Denbora

Denbora. Aldaezina da eta badoa. Zuretzat eta niretzat berdina. Baina zer ezberdin bizi dugun.

Gertatzen zaigun guztia edo bizi dugun guztia denboran finkatzen da. Izen ezberdinak jartzen dizkiogu, goiz, arratsalde, gau... edo zehazten dugu elkar ulertzeko, 18:21. Bakoitzak erritmo ezberdina jartzen dio tarte berari, azkar, astiro, astun... edo zehazten dugu elkar ulertzeko, 13 minutu. Arauak jarri dizkiogu. Ordena bat ezarri dugu. Eta bertan sartu gara. Erlojua etsai hartu dugu, azkarregi doa gure helburu eta nahi guztiak lortzeko.

Etsaia al da? Geuk ezartzen ditugu gure lehentasunak eta, askotan, geroari begira edo helburu baten atzetik ez dugu oraina baloratzen. Gure denbora gurea da, balioa du.

Denbora galtzearen damuak ez du atzera bueltarik. Beraz, kontuan hartu dezagun zertan erabili nahi dugun. Betebeharrak bete behar, ingurukoei eta geure buruari eskaini diezaiokugun gauza baliotsuena da, betirako dira elkarri barre eragiteko hartutako 10 minutuak.

Sormen egonaldiak abian dira: 'Atalak' eta 'Belarriprest' lanak

DAPek eta Antzuolako Udalak antolatua da. Gaur hasiko da lehen egonaldia; eta martxoaren 20an, bigarrena

A.R.K. ANTZUOLA

Euskal antzerkilari amateurrei eta debagoiendarrei zuzendutako sormen egonaldia antolatu du DAP Debagoieneko Antzerki Plataformak, *Next Generation: Gipuzkoako hiri-eremuetatik kanpoko kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko* laguntzari esker, Antzuolako Udalarekin lankidetzan.

Eider Sanz eta Amaia Santamaria debagoiendarren *Atalak* proiektua da aukeratu etako bat; gaur hasiko dira martxan. Horrez gainera, Amaia Bono gasteizta-

rraren *Belarriprest* proiektua ere hautatua da, eta martxoaren 20tik 23ra bitartean egingo du egonaldia. Ondoren, martxoaren amaiera aldera, sortze prozesuen irekiera egingo dute.

Irekiera prozesuak

Proiektu guztiak prozesu irekiera proposamen bat egin behar dute, eta plataformak, sormena bultzatzeaz gain, helburu du prozesuak herriari zabaltzea. Bada, horregatik egingo dituzte irekierak jendaurrean. Behatxulo 2023 programan.

Patxi Martinen argazkiak ikusgai egongo dira Olanaren

Patxi Martin herrikidearen *Euskal Herriko bazterrak* erakusketa ikusgai egongo da asteburu honetan eta datorrenean Olanaren. Azken hamar urteotan atera dituen argazkiak bildu ditu, eta, Euskal Herriko paisaiez gain, Antzuolako irudiak ikusteko aukera ere izango da. 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era bitartean.

Pilota partiduak jokatu dira gaur eta bihar pilotalekuan

Bergarako eta Antzuolako gazteen pilota partiduak jokatu dira gaur, arratsaldean sei eta erdie-tan hasita, eta bigarrean jokatuko dute Auritz Iturbe eta Hegoi Aranburu antzuolarrek, zestoarren aurka, infantilen bigarren mailan. Zapatuan, berriz, eskolarteko partiduak jokatuko dira, 16:00etatik aurrera, Udal Pilotalekuan.



Maddiren trajeria pastoraleko antolatzaileak eta Udaleko ordezkariak, frontoian egindako agerraldian. TXOMIN MADINA



2011n Seminarioko patioan egin zen Monzon pastoral. GOIENA

Monzonen pastoral etorri zenekoa

2011ko irailaren 17an, *Telesforo Monzon pastoral* ekarri zuten Bergarara. Emanaldirako Seminarioko patioan propio sortutako karpa erraldoia ez zen goraino bete, baina 2.000 bat lagunek bertatik bertara ikusi zuten ikuskizuna. Aurten frontoian izango da.

Pastoralarentzat ere bada lekua

Asteburu honetan 'Bretxa' musikalak (Ikus 42. orria) hartuko duen udal pilotalekua hartuko du Xareta eskualdeko 'Maddiren trajeria' pastoralak martxoaren 25ean (19:00); sarrerak salgai daude dagoeneko 'seminarixoa.eus' webgunean, 15 eurotan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA *Maddiren trajeria* pastoral Ber garara helduko da martxoaren 25ean, udal pilotalekura (17:00). Lapurdiko Sara eta Ainhoa eta Nafarroako Zugarramurdi eta Urdazubi herriek osatzen duten Xareta eskualdeko biztanleek sortutako pastoral da, eta, 2022ko udazkenean lau emanaldi egin ostean, Bergarako izango da agertokira eroango duten bosgarren eta azken aldia. "Handia eta askotarikoa da kultura sorkuntza Bergaran, eta nahi dugu Euskal Herrian sortzen diren beste eredu batzuk ere gurean tokia izatea. *Maddiren trajeria* pastoral Ber garara ekartzea proposamena jaso genuenean ez genuen zalantzarik egin, jasotako proposamenagatik esker-tuta, eta pozik gaude halako obra bat bergararrei eskaintzeko aukera izateagatik", esan

zuen Gorka Artola alkateak frontoian egindako agerraldian.

Bost diziplina obra berean

Literatura, dantza, kantua, musika eta joskintza. Bost diziplina horiek uztartzen dituzte pastorek, eta horixe egiten du baita ere Gerardo Mungiak idatzitako *Maddiren trajeriak*-ek. Fikziozko ikuskizun horretan, orein bilakatu zen neska baten istorioa kontatzen da, pastoreko errejente edo taula-zuzendari Pantxika Urrutiak azaldu zuenez: "Istorio horren oinarria *Ura isuririk* izeneko kantu eza-

LITERATURA, DANTZA, KANTUA, MUSIKA ETA JOSKINTZA IZANGO DIRA PROTAGONISTA IKUSKIZUNEAN

guna da. Jean Mixel Bedaxagar, Benito Lertxundi eta Haizea taldearen bidez egin izan da ezagun abestia. Xareta eskualdeko parte diren herrietako historia presente egon dadin pertsonaia batzuk sartu ditugu pastorealean, piper apur bat emateko". Pertsonaia horien artean daude kontrabandistak, guardia zibilak, sorgin-ehizaz arduratu ziren inkisidoreak, epaileak...

Jatorria ez dago ziurtatzerik

Piarres Lafittek 1965ean aurkitu zituen bertso-zahar batzuetan dago oinarrituta istorioa. Bertso-zahar horien egilea ezezaguna da, baina uste da baxenabartarra izan zela. Dena den, 1985ean hil zen Lafitte, eta, beraz, bertso horien aurkikuntzaren zehaztasunen inguruan ez dago informazio gehiagorik. Hala ere, orein bilakatu zen neskaren ipuina

ezaguna da Europa osoan. Uste da XVIII. eta XIX. mendeen artean idatzia izan zela eta Eskandinaviatik sartu zela Iberiar penintsulara.

Pastoraleko protagonista Maddi neska gaztea da, sorginkeriak eraginda orein bihurtu dena; eguneko argiak iraun artean piztia izango da, baina, ilunabarrarekin, berriro neska bihurtuko da. Maddiren ama konturatu da alaba sorginkerian eroria dela, eta etxeko txakurrak falta direla-eta, beldur da, Maddi hil dezaketelako. Horregatik, Jakes semeari esan dio oihane-ra joateko txakurren bila; Jakesek oihanean etxeko txakurrak aurkituko ditu, alboan oreina jada hilik dutela. Jakesek oreina hartuko du, gero etxean afaltzeko, arrebak dela sumatu gabe. Baina behin etxean dela, Maddiren ahotsa entzungo du... Amak, tragediarekin burua ezin altxaturik, bere buruaz beste egingo du labana bat bihotzean iltzatuta.

"Herria egitea", kulturatik

Xaretakeko 100 lagunek baino gehiagok hartu dute parte modu batera edo bestera pastorealean, eta eskualde hartako herritarren

EMANALDIA BAINO LEHEN, 12:00ETAN, DESFILEA EGINGO DUTE HERRIKO KALEETAN ZEHAZ

harremanak sendotzeko balio izan duela azpimarratu zuten parte-hartzaileek, pastorealeko arizale edo aktore Kote Agerren arabera: "Hurbil gauden lau herri txiki gara, baina gaur egungo bizimoduagatik gutxitan gurutzatzen garenak. Pastoralak lau herriak hurbiltzeko eta adiskidetzeko balio izan du".

Ezin da ahaztu ez dela Bergaran pastoral bat egiten duten lehen aldia, 2011ko irailean *Monzon pastoral* eskaini zuten-eta Larraineko herritarrek. Eta orduan bezala, herrien arteko hartu-emanak indartzea espero dute, Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markinaren arabera: "Emanaldiaz harago, giro polita sortu zen, harremanak sortu ziren eta aberasgarria izan zen. Larraineko herritarrekin egin genuen moduan, orain ere, Xareta eskualdekoekin harremanak sendotzeko izango delakoan gaude. Kulturaren bitartez herria egiteko modu bat da hau".

Ikuskizunaren aurretik, desfilea

Ikuskizuna martxoaren 25ean 17:00etan eskainiko dute udal pilotalekuan baina aurretik, 12:00etan hasita, pastorealeko kideek desfilea egingo dute herriko kaleetan. Sarrerak eguaztena ezkerre daude salgai, 15 eurotan, *seminarixoa.eus* atarian eta Seminarixoko txarteldegian. Gainera, ikuskizuna hobeto jarraitzeko, bost euro balio duen liburuxka erosteko ere gomendatu dute pastorealaren egileek.

Azken erasoak salatu dute, "haserre eta nazkatuta"

Otsailean zehar Bergarako etxebizitza baten modu jarraituan izandako azken eraso matxista salatzeke elkarretaratzea egin zuten atzo San Martin plazan, Martxanterak eta Itaia talde feministek deituta eta Bergarako Udalak eta Foru Aldundiak babestuta

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Martxoaren 8aren bueltan antolatutako egitarauaren berri (Ikus 22. orria) ematearekin batera, Bergaran gertatutako azken eraso matxista salatu zuen atzo mugimendu feministak. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak astelehenean jakinarazi zuenez, emakume batek otsailean hiru sexu eraso jasan zituen, modu jarraituan, Bergarako etxebizitza baten. Gertaera haren bueltan 18 urteko bergarar bat atxilotu zuen Ertzaintzak astelehenean; komisaldegian igaro zuen gaua 18 urteko bergararrak, ikerketarekin jarraitu ahal izateko, eta martitzenean igaro zen Bergarako guardiako epaitegitik. Epaileak gaztea espetxeratzeko agindua eman zuen.

"Aldaketa sakon" baten beharra Martxanterak eta Itaia talde feministek deituta eta Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak babestuta, elkarretaratzea egin zuten atzo San Martin plazan. Martxanterek adierazi zutenenez, "nazkatuta" daude egoerarekin: "Gaur [atzo], beste behin ere, hemen elkartu gara emakume baten aurkako eraso sexualak salatu eta biktimari gure babesa eskaintzeko. Aste honetan jakin dugu gazte bergarar bat atxilotu dutela modu jarraituan egindako bortxaketa batzuen ondorioz, eta nazkatuta gaude, haserre gaude eta barruak sutan ditugu!".

Gaineratu zuten gizarte moduan "aldaketa sakona" behar dela egoera iraultzeko: "Ezin dugu gizarte moduan horrelako jarrierarik onartu. Horregatik, gizarte bezala aldatu egin behar dugu, emakumeen aurkako biolentzia amaitu behar dugu, hasi jasaten ditugun mikromatxismoetatik eta biolentziaren erpinaren punta diren bortxaketa eta eraiketetaraino". Era berean, hezkuntzaren eta zaintza sare sendo baten beharra aldarrika-



Martxoaren 8ko Martxanteren manifestazioa, iaz. JONE ALBENIZ

GIZARTE JUSTUAGO ETA FEMINISTAGOA LORTU AHAL IZATEKO BORROKARA BATZEKO DEI EGIN DUTE

tu zuten atzoko elkarretaratzean: "Instituzioek euren lana egin behar dute; horregatik, haur eta gazteen hezkuntza giltzarrietako bat da, baita zaintza sare sendoa sortzea edota biolentzia jasan duten emakumeei baliabideak ematea egoera horretatik irten eta bizitza duina izan dezaten. Hau da, feministik saretu behar dugu eta zeharkatzen gaituzten biolentzia mota guztiak amaitzea izan behar da gure helburuetako bat. Bizitza askeak nahi ditugu denontzat; izan ere, izugarrikoa da egunero gorputz batzuek jasaten dugun biolentzia, bai gizartearen partetik eta baita instituzioen partetik ere; eta hori bukatu beharra dago. Horregatik guztiatik, batu gaituzten borrokara, denon artean gizarte justuago eta feministagoa lortu ahal izateko".

Aldundia eta Udala: salaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak bat egin zuten eragile feministek deitutako elkarretaratzearekin. Aldundiak "gertutasuna eta elkartasuna" adierazi nahi izan die erasotuari eta haren gertukoei. Horrez gain, Aldundiak bere konpromisoa berretsi du "emakumeen askatasuna eta eskubideak" urratzen dituen edozein eraso edota jarrera gaitzesteko. "Sexu-erasoa gure gizartearen adierazpenik bortitzenetako bat da. Egiturazko gizarte-arazo baten aurrean gaude, andreak menderatzea eta kontrolpean izatea bilatzen duena. Hortik sortzen da jarrera, ideia edo portaera sexistak oro".

Udalak ere "irrotasunez" salatu du erasoak. Protokoloa aktibatuta du, emakumei eta bere ingurukoei babesa adierazi eta haiek izan ahal dituzten beharrei erantzuteko konpromisoa erakutsi. Horretarako, Udalak eskura dituen baliabideak jarri ditu erasotua eskura, gogora ekarri dute indarkeria matxistak ez duela lekurik Bergaran eta jarrera horiei aurre egiteko konpromisoa berretsi dute.



Iberdrolaren azpiestazio elektriko berria egiteko obrak, San Martzialera bidean. E.A.

Azpiestazio elektriko berrirako lanak Txara baserri inguruan

Azpiegitura berria amaitzen dutenean, hilerriaren eta osasun zentroaren inguruan dagoena kendu egingo dute

J.B.L. BERGARA

Iberdrola azpiestazio elektriko bat egiten ari da San Martzialera bidean dagoen Txara baserriaren inguruan. Egun hilerriaren eta osasun zentroaren inguruan dagoen azpiestazioa kendu, han aparkalekuak irabazi eta landa-eremuan kokatuko dute azpiegitura berria.

Permuta aho batez onartu zen

Udalak "askotan" adierazi izan du gaur egungo azpiestazioa leku aldatzeko beharra, erdigunean dagoelako, eta horretarako permuta egitea onartu zen, aho ba-

tez, 2020ko azaroaren 30eko osoko bilkuran; permuta 2022ko otsailaren 9an sinatu zen. Hala, Udalak Txara baserriaren inguruan duen 3.381 metro koadroko partzela eman dio Iberdrolari eta Iberdrolak hilerriko azpiestazioa kendu eta gunea urbanizatuko du. Proiektuak 5.000 metro koadro baino gutxiago hartzen dituzenez, ez du plan berezi baten beharrik. Hori bai, ingurumen-inkapaktua murrizteko neurriak jarri ditu Udalak; azpiegitura bukatu ostean, hiru hilabete izango ditu Iberdrolak erdiguneko azpiegitura kentzeko.

Ur-jarduerak umeei begira: izen-ematea, martxoaren 16ra arte

Udalak umeendako ur-jarduerak antolatu ditu, martxoaren 25etik ekainaren 17ra, 6 hilabete eta 4 urte arteko umeentzat. Ur-jardueren abantailak erabiliz umeen garapen motorrari laguntzeko gurasoei zuzendutako ikastaroa da. Helburuak dira gurasoei ur-jardueren bidezko garapen motorrerako oinarrizko irizpideak ematea, beldurra uxatzea eta gurasoei eta umeei erabateko autonomia ematea euren premia eta gogoetara moldatuta; betiere, ur-jarduerekin goza dezaten.

Martxoaren 16ra arte eman daiteke izena, 943 77 70 95 telefono zenbakian edota Kirol Sailean: agorrosin@bergara.eus edo www.bergarakirola.eus.

Erramu-zapaturako postuak: eskaerak, martxoaren 6rako

Apirilaren 1ean egingo den Erramu-zapaturako ferian artisauek, abeltzainek eta bertako barazki, fruta eta elikagaien ekoizleek postua jartzeko eskaera-epea luzatu egin du Udalak otsailaren 28tik martxoaren 6ra arte. Eskaerak ferixa@bergara.eus helbide elektronikora idatzita egin behar dira; postuak San Martin plazan, Ibargarain, Seminarioko patioan eta Simon Arrieta plazan jarriko dira, 08:30etik 14:30era.

Bestalde, talo posturako eta Eusko Labeldun produktuen posturako eskaerak martxoaren 8rako egin behar dira, eskaerak ferixa@bergara.eus helbidean, www.bergara.eus-eko formularioa erabilita edo udaletzeko BAZen.



Euskararen aurkako "eraso judiziala" salatzeke EH Bilduk aurkeztutako mozioaren bozketa. JOKIN BEREZIARTUA

Euskararen aurkako epaien harira, "irmo"

Comisiones Obreras sindikatuak jarritako helegite bat aintzat hartuta EAEko Auzitegi Nagusiak urte hasieran Barakaldoko Udalaren aurka ebatzi izana "gogor" salatu zuten EH Bilduk eta EAJk asteleheneko bilkuran; PSE-EEko Alberto Alonso ez zen egon

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2023. urte hasieran Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Barakaldoko Udalaren aurka egin zuen, Comisiones Obreras sindikatuaren helegitea aintzat hartuta, eta azpikontratutako zerbitzuaren gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka ebatzi zuen.

Horren harira, EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen asteleheneko osoko bilkuran, euskararen aurkako "eraso judizial" horri aurka egiteko. "Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko konpromiso zehatzak hartu ditugu irmo jarraitzeko gaur egun dagoeneko eskaintzen dugun euskarazko zerbitzu horretan.

Batez ere, beste leku batzuetan ikusi dugun moduan, judizializazioak euskarari kalte handia egin diezaioke; atzerapauso esanguratsua izan da, eta atzerapauso hori salatu nahi izan dugu", esan zuen EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurategik. EAJko Maite Agirrek lehen berba euskaraz egin ahal izatea bermatu behar dela esan zuen: "Gure lurraldeko hizkuntza euskara da, zaindu eta sustatu behar duguna. Bermatu egin behar dugu lehen berba euskaraz egin ahal izatea".

Konpromisoetan sakontzera Mozioa aho batez onartuta – PSE-EEko Alberto Alonso ez zen

bilkuran egon–, udalbatzak "gogor" salatu zuen epaia: "Gogor salatzen dugu epaitegiek abiatu duten hizkuntza-politikaren judizializazioa eta euskararen aurka ematen ari diren epaiak; azkena, EAEko Auzitegi Nagusiak Barakaldoko Udalaren aurka emandakoa". Horrez gain, mozioan gogora ekarri zuten, gaur egun indarrean dagoen legedia betez, honako konpromiso hauekin "irmo" jarraituko dutela: udal zerbitzuetan bergararrei lehen hitza euskaraz egitea bermatzea; zerbitzu publiko guztiak euskaraz eskaintzea bermatzea; eta Udaleko funtzionamendu osoa EAEko bi hizkuntza ofizialtan bermatzeko plana gauzatzeta.

Martxoaren 8a: bi adierazpen onartu

Martxoaren 8aren bueltan bi adierazpen onartu ziren asteleheneko bilkuran: batetik, Eudelek aurkeztutakoa aho batez onartu zen; eta, bestetik, EH Bilduk aurkeztutako *Martxoaren 8a, zaintzen duen herria helburu* mozioaren aurrean EAJ abstenitu egin zen. Jeltzaleak prozedura arrazoiengatik abstenitu ziren: "Eudelen adierazpenean

zaintzaz eta beste hainbat arloz hitz egiten da; Eudelek bidea markatzen du adierazpenean eta guk bat egiten du bide horrekin, sinisten dugulako erakundeen arteko elkarlanean. EH Bilduk, baina, bere bidea hartu du, adostasuna bilatu barik. Testuarekin bat egin arren prozedurarekin ez dugu bat egiten inondik inora, eta horregatik abstenitu gara.

Zaintza planarekin lanean EH Bilduk, Eudelen babestuta ere, beste mozio bat aurkeztu zuen: "Azken urteetan zaintza mahai gainean egon arren, ez dugu jakin gaiari behar den moduan heltzen. Bada ueña, gobernantza eredu publiko-komunitarioa oinarri hartuta, lanketa bereziak egiteko eta gaiari beste era batera heltzeko; horregatik ari gara zaintza planarekin lanean. Mugimendu feministarekin batera, betiere".



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Bigarren mailako euskaldunak

Duela pare bat aste, Gasteizko Hala Bedi irratiko *Euskara* saiorako Edurne Azkarate aktorea –*Irati* filmeko protagonista– elkarrizketatu nuen. Hura Oiongoa izanda, hango euskararen egoerari buruz, euskal aktore izateari buruz eta *Irati* filmari buruz aritu ginen. Horrek euskal *txioherria*-n izugarriko polemika sortu zuen, Edurnek aipatutako "bigarren mailako euskaldun" izatearen kontua dela eta.

Hainbat euskaltzalek euskaldun guztiok garelako bigarren mailakoak adieraziz egin zuten kontra, nahiz eta inork kontrakorik esan ez. Guk ere badakigu hori, euskaldunok geure herrian bertan bigarren mailakoak gara. Hori gazteleraren edo frantsesaren komunitateek gauzatutako zapalkuntzan oinarritzen da. Hala ere, euskal komunitatearen barruan hierarkiak egon daitezke eta, hain zuzen ere, horri buruz ari zen Edurne. Kasu honetan, ez al zaigu zilegitasun osoa daukagun hiztunoi zapalduta sentitzen direnei entzutea tokatzen? Haiei entzun diezaiegun eta, bitartean, sor dezagun guztion artean euskal komunitate indartsu bat.



AITOR AGIRIANO

'Galdegazte': Aranzadi ikastola

Aranzadi ikastolako ikasleek Aiert Alberdi musikari oñatiarra elkarrizketatu dute *Galdegazte*-ren bederatzigarren denboraldiko bigarren saioan. Eguaztenean grabatu zuten saioa –argazkian, ikasleak Aiert Alberdirekin eta saioko aurkezle berria den Imanol Belokirekin–; Goiena telebistan ikusi ahalgo da martxoaren 9an, 21:30ean eta 23:30ean.

OHARRAK

Kartzela zaharra: Egubakoitzak Berreskuratzen

Mice eta Hartz taldeek joko dute gaur, martxoak 3, 22:30ean; sarrerak 22:00etatik aurrera eros daitezke, gaztetxean bertan.

Pello Garitanoren omenezko proba ziklista

Martxoaren 25ean Gorrara igotzeko proba zikloturista antolatuko du Lokatzak, Pello Garitano gogoratzeko. Izen-ematea zabalik dago hilaren 22ra arte, kirolprobak.com webgunean.

Euskal presoen egoeraz aritzeko solasaldia

Gure Arterak eta Ernaik solasaldia antolatuko dute hilaren 9rako Irizarren (19:00). Presoen egoera orokorrak, graduen progresioak eta etxeratze pausoez egingo dute berba, besteak beste.

Artelanak testuz jantziko dituzte zazpigarrenean

Emakume artisten kolektiboak zazpigarrenez antolatu duen erakusketa gaur inauguratuko dute (19:30), Aroztegin, eta hilaren 19ra arte bisitatuko ahalko da; aurtengoari 'Emakumea eta hitza' izena jarri diote, besteak beste, testuek presentzia berezia izango dutelako

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Martxoaren 8aren egitarauaren barruan klasiko bihurtu da Aroztegi aretoko herriko emakume artisten erakusketa. Aurtengoa zazpigarrena da dagoneko eta *Emakumea eta hitza* izena jarri diote. "Artista bakoitzak testu bat jarriko dio artelan bakoitzari, artelanarekin zerkusia izan daitekeena edo ez. Artista bakoitzak erabaki du zer eta nola jarri. Horrez gain, hitza eta artea nolabait lotzeko, bi txoko ere egokitu ditugu Aroztegin: idazlearen txokoa eta margolariarena", adierazi du erakusketako artistetako batek, Justina Elexpuru.



Gaur irekiko duten erakusketa muntatzen, Aroztegin, atzo goizean. JUSTINA ELEXPURU

Aurten, herriko 25 artista

Gaur inauguratuko dute erakusketa (19:30) eta martxoaren 19ra arte bisitatu ahalko da. Margolanak dira gehienak, olioak, akrilikoak eta akuarelak, baina badira bestelako artelanak ere. Aurten ere 20 urtetik 75 urtera arteko artistak batu ditu ekimenak, hainbat belaunaldiren arteko lanketa ahalbidetuz. Herriko 25 artista izan dira aurtengo erakusketan parte hartu dutenak: Alicia Garcia, Mariñe Jauregi, Ana Abajo, Arantzazu Arregi, Cecilia Dulanto, Maialen Lopez, Espe, Idoia Etxarri, Jus-

ARTELANEZ GAIN, IDAZLEAREN ETA MARGOLARIAREN TXOKOAK ERE IRUDIKATUKO DITUZTE

tina Elexpuru, Kontxi Idigoras, Maite Azkargorta, Maria Cruz Andueza, Mari Karmen Laskurain, Mireia Gonzalez, Nekane Bernal, Nerea Kerejeta, Usoa Mendikute, *Zu-Frida*, Amaia Santamaria, Maddi Martin, Ma-

rilu Unzurraga, Lierni Narbaitza, Itziar Murgizu, Mari Paz Alustiza eta Ione Telleria.

Ohiko ordutegia izango dute

Erakusketak ohiko ordutegia izango du: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara. "Eskerririk asko artista guztiei eta beste urtebetez proiektu polit hau aurrera ateratzea posible egin duzuenoi", diote antolatzaileek.



Iker Serrano artista iruindarra estudioan lanean. B.U.

Monzon-Ganuza: Iker Serranoren lana jasoko du Xabier Amurizak

'Haitz_erroa' izeneko artelana aukeratu du epaimahaiak aurtun; ekitaldia hilaren 16an izango da, Seminarixoan

J.B.L. BERGARA

Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak ematen duten Monzon-Ganuza III. Euskal Utopikoei Saria Xabier Amurizak jasoko du martxoaren 16an Seminarixoa egingo den ekitaldian (18:30). Euskal Herriari, bere kulturari, hizkuntzari, historiari eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omentzea du helburu sariketarak. Bada, asteon jakinarazi dute sariaren egilea Iker Serrano (Iruñea, 1982) dela: Arte Ederretan Doktorea da EHUen.

'Haitz_erroa' artelana

Serranok *Haitz_erroa* artelana aurkeztu du; euskarak mendeetan zehar iraun izana harriaren gogortasunarekin lotu nahi izan duela dio. Haren pinturarekin haitza, aizkora eta horien zorrotasuna eta antzinatasuna lotu ditu –euskararekin ere lotura

bilatuz bide horietatik-. Gainera, iragana, oraina eta etorkizuna iradokitzen ditu espazioan kokatutako hamar harri zorrotzekin. Beart elkarteko presidente Xabier Agirrek, Jesus Mari Lazkano margolari ezagunak eta arte historialari eta komisario Mikel Lertxundik osatu dute epaimahaia eta honako hau adierazi dute artelanaz, besteak beste: "Figurazio kolorista baten bidez, pintura-ingurunean bertan oinarritutako lana egin du, autoerreferentziatik artista gisa duen esanahia zalantzan jarriz, bidaiaren ideiarekin, pintura-rekin, arketipoarekin eta subkontzientearekin lotura estua duten elementu narratiboak erabiliz".

2021ean Libe Goñik Zalao Ipiñaren artelana jaso zuen; 2022an, ordea, Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuyk Laida Lertxundik egindako lana jaso zuten.

Iaz, omenaldia emakume baserritarrei

Pandemiako neurriak indarrean zirela egin zen iazko erakusketak, *Bertatik bertara, emakume baserritarren bizitza* izenburu izan zuena. Emakume baserritarrek omendu nahi izan zituzten emakume artisten kolektiboak eta Martxanterak talde feministak, eta margolanek, zeramika lanek eta ikus-entzunezkoek osatu zuten, besteak beste. Ikusmin handia piztu zuen erakusketak.



2022ko erakusketan parte hartu zuten artista gehienak, Aroztegin. GOIENA

'Irati' filma: hiru emanaldi asteburuan; gaurkoa, Urkijorekin

Irati pelikularen hiru emanaldi izango dira Seminarixoan datozen egunotan; gaur, domekan eta astelehenean ikusi ahalko da, 19:30ean hasita, eta sarrerak badira oraindik *seminarixoa.eus* webgunean. Gainera, ZinemaOn zineklubari esker, gaurko emanaldiaren ostean solasaldia egongo da filmeko zuzendari Paul Urkijorekin.



Paul Urkijo. FLORO AZQUETA

Gaztelekuan ekintza bat hilean, gutxienez

Inauteri-zapatuan egindako makillaje tailerrak harrera ona izan zuen, eta dagoeneko hiru gaztek eman dute izena martxoan egitekoa den erakusketan lanak erakusteko. Manga marrazkien gaineko tailerra etorriko da hurrengo

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Gazteleku zerbitzua, poliki-poliki, pandemia aurreko martxa hartzen hasiko da. Inauteri-zapatuan makillaje tailerra eta merienda egin zituzten eta hamar bat gaztek hartu zuten parte. "Seigarren mailako neska-mutikoak etorri ziren eta arratsalde-pasa polita egin genuen gaztelekuan", azaldu du Nerea Villa dinamizatzaileak. Xabier Delgado gazte elgetarra izan zen makillaje kontuetan argibideak emateko, eta, jarraian, lagunarteko merienda egin zuten.

Gaztelekuetik proposatutako hurrengo ekintza 11-18 urte arteko gazteen sormen-lanekin egindako erakusketa da. Villak azaldu du oraingoz hiruk agertu dutela lanak erakusteko nahia: "Batek belarritakoak eta antzerakoak egiten ditu eta beste biek marraztu egiten dute". Erakusketa zeramika-gelan egingo dute, eta, ziurrenik, hurrengo barikuan zabalduko dute. Oraindik ere zabalik da izena emateko aukera. "Gazteak anima daitezela. Edozein zalantza izanez gero, ludotekatik pasa daitezke edo 653 72 40 28 zenbakira deitu dezakete", azaldu du Villak.

Gazteleku zerbitzuko dinamizatzaileak nahiko luke hilean gutxienez ekintza bat egitea



Xabier Delgado gaztelekuko erabiltzaile bat margotzen. ELGETAKO GAZTELEKUA

ERAKUSKETAREN OSTEAN, MANGA TAILERRA EGINGO DUTE ELGETAKO GAZTELEKUAN

gaztelekuan. Erakusketaren ondorengo manga marrazkiei buruzkoa izango da. Ibaiz Enekorta gazte bilbotarra izango da gaztelekuan manga zer den azaltzen eta marrazkiak egiten. Datarik ez dago, oraingoz.

Frontenis txapelketa

Umeendako binakako frontenis lehiaketa dago iragarrita martxoaren 10erako. "Helduen txapelketa egiten dugu urtero, eta urtero eskatzen digute umeek haiendako ere antolatzeke. Aurtent animatu gara", azaldu du Iratxe Bravok. "Hasiera batean, 2009tik 2014ra artean jaiotako umeendako planteatu genuen, baina, gazteek horrela eskatuta, 2016ra luzatu dugu tartea". Izen-ematea zabalik da Bolatoki tabernan. Gurasoek parte-hartze baimena sinatu behar dute.



Mauleko espartin-lantegi bat XX. mende hasieran. 'AINARAK' DOKUMENTALA

'Ainarak' dokumentala, ipuin kontaketa eta elkarretaratzea

Martitzenerako eta eguaztenerako iragarri ditu Udalak Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltako ekitaldiak

L.Z.L. ELGETA

Martitzenean, Ritxi Lizartzak eta Juan San Miguelek zuzendutako *Ainarak* dokumentala emango dute udaletxeko areto nagusian, 18:30ean. Ainarak ziren 1870etik 1940ra Zaraitzutik, Erronkaritik eta Aragoitik Maulera espartingintzan lan egitera joaten ziren 12-25 urte arteko neska gazteak. Urrian zeharkatzen zituzten Pirinioak Zuberorako hiriburura joateko, eta apirilean bueltatzen ziren etxera. Emakume migrazio hura ezagutzeko aukera emango du *Ainarak* dokumentalak.

Ipuinak eta elkarretaratzea

Martxoaren 8rako elkarretaratzea deitu du Udalak, 19:30erako, plazan. Aurretik, 18:30ean, *Itsaspetik azalera*, *azaletik plazara* ipuin kontaketa saioa egingo dute Sexune elkarte lagunek udal liburutegian. Nerabeei eta helduei zuzendutako ordubete inguruko saioa da. Garai batean kostako herri batean isilpean gelditutako pozak eta penak ekarriko ditu kontaketa; askatasunik eza, ezkontza behartuak, maitasun ukatuak eta emakume izate hutsagatik ezarritako rol derrigortuak.

GORA ETA BEHERA



Gatz pilo handiak semaforoaren parean

Aste hasierako elur-egunetan herrian ibili diren elurra kentzeko makinek makina bat gatz pilo utzita joan dira. Itxura denez, semaforoa gorri dagoen bitartean gatz jarioak ez du etenik. Elurra joan zen. Gatz piloak oraindik ez.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Familiendako tailerra Nerea Mendizabalekin

Aldundiaren *Treba gurasoak* eskaintzaren barruan egingo du tailerra Mendizabalek. Seme-alaben autoirudiaz eta haien autoestimua elikatzeke tresnei buruz arituko da. Saioa martxoaren 22an egingo du, 17:30ean, udaletxeko areto nagusian. Interesatuak aurrez eman behar dute izena, udala@elgeta.eus helbidean edo udaletxera deituz.



Nerea Mendizabal psikopedagogoa. NEREA MENDIZABAL



Espaloia, sormen egonaldien epizentro

Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta, eta eskualdean euskarazko antzerki sorkuntza sustatzeko asmoz, astelehenean hasi ziren sormen egonaldiak Espaloia kafe antzokian. Atzo, Tranpola antzerki taldeak egin zuen irekiera-saioa

Mikel Zumalde Etxabe ELGETA

Antzerkigintzaren eta sorkuntzaren testigu izango da Elgetako Espaloia kafe antzokia martxoan. Antzerkia, euskara eta umorea ardatz hartuta, Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatutako sormen egonaldien lehen edizioa hasi da Elgetan. Eskualdean euskarazko antzerki sorkuntza eta euskal sortzaileen lanak ezagutaraztea da helburu nagusia. Europako Diru Funtsetatik finantzaturako proiektua da, *Next generation: Gipuzkoako hiri-ere-*

muetatik kanpoko kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko izeneko diru-laguntzaetatik.

Sormen-leherketa horretan bi sortzaile debagoiendarrek parte hartuko dute: Nerea Atxa arrasatearrak eta Bergarako Kokoxa antzerki taldeak. Elgetako Udalak ere bere aletxoak jarri du, Espaloia Kafe Antzokia eskainiz. Hala, Udaleko Kultura zinegotzi Ane Bilbaok uste du egonaldi artistikoei asko emango diotela herriari. "Espaloia kafe antzokia beza-

lako espazio bat horrelako egonaldi bat egiteko egokia dela jakinda, herriari onura besterik ez diola ekarriko uste dut", azaldu du.

Behatxulo programa

Proiektu guztiek parte hartuko dute Behatxulo programan. Programaren helburua da sormen prozesuak herriari erakustea prozesu irekien bitartez. Lehen sormen egonaldia Gasteizko Tranpola antzerki taldeak egin du aste honetan, eta atzo arratsaldean egin zuten irekiera-saioa.

Tranpola, lehendabizikoak

Tranpola antzerki taldeak *Bahia Tours* mikroantzerkiaren irekiera-saioa egin zuen atzo Espaloian. Erritmo bizikoa eta frenetikoa izan zen, eta publikoak berebiziko garrantzia izan zuen antzezlanean.

'Afizioz' lehiaketa

Ildo berean, antzerkigile amateurren lehiaketa jokatu da martxoaren 11n Elgetan. *Afizioz* izenpean, bost talde arituko dira lehiatzen; tartean, bi ordezkari debagoiendar: Iker Plazaola oñatiarra eta Oñatiko Debagoieneko Antzerki Plataformako for-



Tranpola antzerki taldeko kideak Espaloia kafe antzokiaren eszenatokian. TRANPOLA

Ikastaroa KZgunean

Zazpi lagunek eman dute izena eguaztenean Elgetan abiatutako ikastarorako. Martxoaren 10era bitartean bina orduko zortzi saio egingo dituzte Elgetako KZgunean. Tableten eta eskuko telefonoen erabileran trebatuko dira parte-hartzaileak. Helburua da ikastea kamera eta memoria kudeatzen, nabigatzen, bilaketak egiten eta aplikazioak instalatzen.



L.Z.L.

"Sormen prozesua aurrera eramateko modu bat da egonaldi artistikoa"

AMAIA CASTAÑEDA DAP-EKO KOORDINATZAILE NAGUSIA

Debagoieneko Antzerki Plataformako koordinatzaile nagusia da Amaia Castañeda oñatiarra.

Antzerki mundua ezagutzen ez dugunontzat... zer da egonaldi artistiko bat?

Sormen-prozesua aurrera eramateko modu bat da. Askotan, prekarizazioa dela-eta sortzaileek ez dute izaten denbora lan bat garatzeko. Egonaldi artistikoa hori ahalbidetu nahi du; sortzaileek denbora izatea lanak garatzeko.

Orain dela bi urte sortu zen DAP; nolako izan da ibilbidea orain arte?

2021eko urtarrilean sortu zen Debagoieneko Antzerki Plataformak, eta harrezkerotik lan asko izan dugu. Oso garrantzitsuak izan ziren 2022ko Gabonak baino lehen Europako Diru Funtsetatik



DEBAGOIENeko ANTZERKI PLATAFORMA

Debagoieneko herrietan kultura bultzatzeko jaso genituen dirulaguntzak.


Zein egoeratan dago euskarazko antzerkigintza?

Antzerkigintza, orokorrean, egoera prekarioan dago. Zer esanik ez, amateurra, eta euskaraz egiten dena. Prekariora den sektore batean, euskaraz egitea apustu handia da, eta erabaki zaila. Askotan, beste lan batzuk ditugu, eta horregatik sortu behar ditugu sormen egonaldiak.



NEREA ATXA ANTZERKIGILE ARRASATEARRA

"Jorratu behar dudana gaia gorputzaren bidez adieraztea zaila da eta urduritasuna sorrazten dit, baina espero dut publikoak gozatzea"



MIKEL URIBARREN KOKOXA ANTZERKI TALDEKO KIDEA

"Irrikitzen gaude prestatzen ari garen lan berria taularatzeko eta, batez ere, jendearen lehenengo feedbacka jasotzeko"

Azken eguna zergetan salbuespenak eskatzeko

Gaur amaituko da ondasun higiezin eta ibilgailuen zergetan hobariak eta salbuespenak eskatzeko epea. Udalean egin beharko dira tramiteak, egoera egiaztatuz eta hura aplikatzeko eskatuz. Ibilgailuen zergaren dagokionez, hurrengo urtetik aurrera hasiko da aplikatzen. Informazio gehiago, Udalaren webgunean aurkitu daiteke.

OHARRAK

Balantze negatiboa

Jaiotzen eta heriotzen arteko balantzea negatiboa da Elgetan. 2022. urtean sei ume jaio ziren herrian, baina hamalau pertsona zendu ziren.

Literatura solasaldia

Martitzenean, *Hitez pitz* literatura solasaldia izango da herriko liburutegian, 19:00ean.



Ane, Juanito, Beatriz eta Pedro Ugarte Garitaonandia senideak, Arantzazu Sagarzazu Sacristan eta Iñaki Urizar Markuleta. x.u.

Lehengo bizimodua jaso dute liburu batean, etzikora begira jarrita

Erreusak egitasmoaren barruan, herriko kultur ondare etnografikoa jasotzen ibili da Gure Bazterrak taldea eta lan hori erakusten duen liburu argitaratu du orain Udalaren laguntzarekin. Gaur iluntzean da aurkezpena, zinema aretoan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gaur, egubakoitza, egingo dute Gure Bazterrak kultura elkarteak egindako lana jasotzen duen liburuaren aurkezpena: *Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa* liburu. 18:00etan izango da, zinema aretoan, eta taldeko kide eta liburuaren idazle Arantzazu Sagarzazu Sacristan izango da han lanaren eta emaitzaren nondik norakoak azaltzen. Izaro Elorza alkatea eta Iñaki Olalde Kultura batzordeburua ere izango dira ekitaldian. Irekia da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Erreusak egitasmotik

Erreusak egitasmoaren barruan, herriko ondare etnografikoa aztertu du taldeak, herriko 80 interesgunetan –baserriak, eskulantegiak, biltegiak...– lana-besak eta tresneria batuz eta

horien informazio bilketa eta katalogazioa eginez. 2021eko apirilean sinatu zuen taldeak Udalarekin akordioa, udan egin zuten landa lana 50 boluntario baino gehiagoren laguntzarekin eta artxiboko lana gero. 1.540 piezaren katalogazioa eta 30 elkarrizketa baino gehiago egin dituzte, bizimodu horien lekuko izan diren herritarren testigantzak jasoz, eta hori biltzen duen argitalpena kaleratuko dute orain.

Bi atal nagusi ditu liburuak: Atzo eta Etzi. Aspaldiko bizimodu berri dator lehen zatian:

1.540 PIEZA KATALOGATU DITUZTE ETA 30 HERRITARREN TESTIGANTZAK JASO ELKARRIZKETA BIDEZ

baserriko lanetarako zituzten tresnak, orduko janzkerak eta orrazkerak, elizaren pisua, ohi-turak, bizitako abenturak, bizitza ulertzeko zuten filosofia... Ezer sobra ez zegoen garaian dena nola aprobetxatzen zuten garaiko kontuak, bizitza norberaren etxe-aurretik bakarrik ez, bizilagunarengandik ere ulertzen zutenekoa. Bigarren zatiak, berriaz, hausnarketarako bidea zabaltzen du, bizimodu eta kontu zahar horiek etorkizunerako oinarrian izan dezaketean lekuaz.

Ahoskera, kaxotxa erabilia

Katalogatu dituzten objektuen argazkiak datoz liburuan, ze izen duten eta zertarako erabiltzen zuten azaltzen duten testuarekin batera. Ondo jositako testua, herriaren garai bateko bizimodu mota hori primeran erakusten duena. Gainera, he-

rritarrei euren hartutako hitzak eta pasarteak ere jaso ditu idazleak, tresna, egoera edo ohi-tua hura ondo baino hobeto deskribatzen dutenak. Eta liburu idatzia izan arrear, ahoskeran ere erreparatu gura izan dute egileek, eta, horrela, marka jarri diote hitzak indarra hartzen duen bokalari, gainean, propio, kakotxa jarrita.

Erreusei balio historiko eta soziala gehitzea da izan da Gure Bazterrak taldeak lan honekin lortu gura izan duena. Emaitza honekin jasota gelditu da herriko historiaren zati handi bat.

HERRIKO LIBURU DENDETAN ETA OHIKO TOKIETAN EROS DAITEKE LIBURUA, HAMAR EUROTAN

"Objektu asko jaso ditugu egun erabili ez arren etxeetan oraindik gordeta zituztenak. Baloratzen zituztelako, agian. Gaia kalera atera eta lehengo lan eta bizimolde horiei balorea ematea eta horren inguruan berba egitea gurako genuke. Hari finetik zintzililik dagoen transmisioa ez eteteko ahalegin bat", dio Arantzazu Sagarzazu Sacristanek.

Jerardo Elortza bilduma

Oñatiren historiarekin lotuta dauden lanak jasotzeko sortu zuten Jerardo Elortza bilduma. 2018ko abenduan egin zuten lehen liburuaren aurkezpena eta bildumako laugarren lana da hau. Herriko liburu dendetan, kultura etxean, Turismo Bulegoan eta Arantzazuko dendan egongo da salgai bihurtik, hamar eurotan. Katalogazioa udal artxiboan gordeko da.

Liburuan datozen lau objektu



Neskalagunketako lintérna

Batetik bestera joateko argia makila puntako gari sortari su emanda egiten zuten lehen. Kandela-farolak, karburu-ontziak, petrolio-ontziak eta piladun esku-argiak gero. *Neskalagunketan* egiteko linterna da irudikoa.



Ixil-poltzia

Larruzko zorro txiki bat da, aurreratzen zuten dirua isilpean gordetzeko. Diru hori etxeko gastu handienak ordaintzeko – ganadua, doteak...– edo kapritxoren bat erosteko izaten zen. Emakumeen zaintzapean egon ohi zen.



Estraperloko errotia

Errotak kontrolatuta eta garia deklaratu behar zen garai hartan, batak bestea lagunduz, garia etxean ehotzeko moduko errota txikiak egin zituzten, *eskillarapeian* edo *bedarpillan* sartzeko modukoak, estraperloko garia ehotzeko.



Kardak

Ardi-ilea jartzen zuten bi kardaren artean eta *kardáatu*, harrotu, egiten zuten. Artile bihurtutakoan, arropak egiteko ez ezik, abarketarako lokarriak egiten zituzten, *trállak*; *trallagintzaia* izena zuen lan horrek.

Arau berriak herri barruko zirkulazioan

Herri barruko zirkulazioa arautuko duen ordenantzari oniritzia eman zion Oñatiko Udalak otsaileko azken astean egindako osoko bilkuran, aho batez. Orain, ordenantza berria jendaurrean izango da 30 egunez, alegazioaren bat jarri nahi duenarentzat

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Zirkulazioari eta herri barruko bideen erabilere buruzko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea erabaki zuen Oñatiko Udalak, aho batez, joan den astean egindako otsaileko ohiko osoko bilkuran. Bideen zirkulazioa eta erabilera egungo egoerara egokitu behar da, trafikoa-ri, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen arabera.

Herri barruan ibiltzen diren ibilgailuak, bizikletak, motordun patineteak zein motorrik ez dutenak, eta oinezkoak. Horien guztien zirkulazioa arautzeko ordenantzari hasiera ematea da onartu dena, alegia. Asier Iraeta Ingurumen batzordeburuak azpimarratu zuenez, oinezkoek izango dute lehentasuna eta motordun patineteen zirkulazioan egongo da aldaketa nabarmena: "Patinete elektrikoek debekatuta izango dute oinezko guneetan ibiltzea. Ez da guk erabakitzen dugun gauza bat,

legeak dioena baizik. Bestelako patineteak jostailu moduan hartzen dira, baina horrek ez du esan nahi araubiderik bete behar ez dutenik".

Alegazioak jartzeko epea

Ordenantzari hasiera eman zioten otsaileko osoko bilkuran eta jendaurrean egongo da orain, 30 egunez. Alegaziorik jaso ezean, indarrean jarriko da. Horrek esan gura du bete egin beharko dela, arau-haustea izango da bestela, eta zigorra izango du horrek. "Dekalogo bat onartu zen duela urte batzuk. Bizikidetzara-arauek batzuk bazeuden lehenagotik ere, baina orain ordenantza forma eman zaio horri eta orain betebeharrak bihurtuko

HERRI OSOKO ZIRKULAZIOAN APLIKATUKO DA, ETA APARKALEKUETAN ETA ZAMALANETAN

dira horiek. 10 kilometro orduko abiadura mugak errespetatuko dira, bizikletak oinezkoen gunetik ibili ahalko dira, baina oinezkoek lehentasuna izango dute pilaketak izan ezean. Hor denak oinez joan beharko lirakete", dio Iraetak.

Herri guztian eragina

Herri osoan, San Lorentzotik Kasablankaraino, aplikatuko da ordenantza hori, eta, zirkulazioa ez ezik, aparkalekuak eta zama-lanak ere arautuko ditu ordenantza berri horrek. Horren berri emateko sentsibilizazio eta informazio kanpaina egitea beharrezkoa dela uste dute Udaletik. "Bai, kanpaina bat egin beharko da gure aldetik eta baita hedabideen aldetik ere. Udaltzainek ere, behin ordenantza dutela, malgutasunarekin aritu beharko dute, hasiera batean, jendeari informazioa emanaz, guk ezin dugulako toki guztietara iritsi", adierazi du Iraetak.



NIRE USTEZ

ASIER UGARTE IMAZ

Hezkuntzaren erroak

Zuhaitz baten adarrak adinako egoerak ditu gaur egun Euskal Herriko eskolen errealtateak, euskara, familien sozioekonomia maila, kokapena eta abar hartuta kontuan. Azkenaldian, denbora asko eskaini diogu inguruan Hezkuntza Lege berriari, eta egunotan, hain justu, eskola segregazioa bukatzeko neurriak iragarri ditu sailburuak –ikasle berrien onarpen prozesuan oinarrituko dira, orokorrean–. Lehen urratsa egin dute, orain arte onartu eta azaleratu gabeko zuhaitzaren adarrari helduz. Hala ere, epe motzean ez dio sakoneko arazoari aurre egingo. Gertu bizi dut egoera, ikastetxe publiko bateko irakasle naizen aldetik. Atsekabez ikusten ditut ikastola baten eta eskola publiko baten atarian daudenen aldeak, zenbait familiak irteerak ordaintzeko duten ezintasuna... Ordea, Oñatiko Inauterietan, herriko hiru eskoletako haurrak batera dantzan irteteak esperantza printza bat ekarri dit. Instituzioetatik haratago, gizarteak eragin dezake arduraz: sortu nahi dugun hezkuntzaren erroa elkartasunean eta aukera berdintasunean oinarrituz.

Indarkeria matxista kasuak areagotu egin dira azken urtean

2022an hogeit hamar indarkeria matxista kasu berri artatu dira. Aurreko urteekin alderatuta, gorakada nabarmena

I.B.K. OÑATI

2023ko otsailaren 21ean bildu zen Oñatiko indarkeria matxistaren arretarako instituzio arteko koordinazio protokoloaren mahaia. Udaletik, Berdintasuneko, Gizarte Zerbitzueta eta Udaltzaingoko ordezkari teknikoek eta politikariek hartu zuten parte bileran. Eta, haiez gain, Ertzaintzako eta Osasun zentroko ordezkariak izan ziren. 2022ak utzitako datuen irakurketa partekatu zen bilera hartan, eta 2023rako erroak finkatu ziren.

Datuei erreparatu, gorakada nabarmena izan da. 2021ean bost zenbatu ziren; aurreko urtean, berriz, hogeit hamar. Profila askotarikoak badira ere, gero eta emakume gazteagoak dira indarkeria matxistaren aurrean laguntza eskatzea erabakitzen dutenak. Horri aurre egiteko baliabide eskasia dagoela azpimarratu nahi izan dute. Oñatiko Udalak egoera salatu du eta dagokien instituzioei dei egiten die "beharrezko diren baliabide guztiak" jartzeko egoera horiek jasan dituztenen eskura.

Hiru hitzordu Ingurumen Jardunaldien barruan

Oñatiko Ingurumen Jardunaldien barruan, larunbat honetan bi hitzordu izango dira: alde bate-tik, Foruen enparantzan Zuhaitz Azoka egingo dute, goizeko bederatzietan hasita. Ordu bete geroago berriz, goizeko 10:00etan, Natur Eskolan sendabelarre buruzko saioa egongo da: Garbiñe Larrea idazleak *Sendabelarre dakitena* eta *Sendabelar baratzea*

liburuen aurkezpena egingo du lehenengo, eta ondoren, irteera txiki bat egingo dute, Natur Eskolaren bueltan, idazlearekin berarekin.

Igandean, berriz, Zuhaitz Eguna ospatuko dute; hura ere, Natur Eskolak antolatuta. Kasu honetan ere, Foruen enparantzan bilduko dira goizeko 10:00etan. Natur Eskolatik dei egiten dute parte hartzeko. Ondoren Zubi-laga auzora joango dira eta bertako belardi batean landatuko dituzte zuhaitzak.



Oñatiko kale batean, pertsona bat patinete elektriko eskuan duela. OIHANA ELORTZA

"Aurten konfiantza berreskuratu nahi nuen"

ANDONI UGARTE MENDIZABAL FUTBOLARIA

Bizkaiko Sestao River taldean ari da aurtengo denboraldian. Gaur egun, Bigarren Federazio Mailako liderrak dira eta igoera lortzeko lehian bete-betean sartuta daude

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Andoni Ugarte Mendizabal Oñatiko futbolari gaztea beste proiektu batean murgildu da aurtengo denboraldian. Azken urtean Calahorra taldean aritu ondoren, aurten etxetik gertu ari da. Sestao Riverrek fitxatu zuen eta, momentuz, gauzak ezinhobeto doaz erdiko atzelari oñatiarrentzat; hamaikakoan finkatuta eta Bigarren Federazio Mailako liderra da Bizkaiko taldea.

Aurten etxetik gertu ari zara; zer aurkitu duzu Sestaon?

Bai; azken urteetan kanpoan aritu ondoren, aurten etxetik gertu ari naiz. Talde familiar bat aurkitu dut; azken denboraldiko oinarria mantendu dute eta nahiko talde polita dago osatuta. Joan den denboraldian igoeratik oso gertu gelditu ziren eta aurten arantza hori kentzeko asmoarekin dago taldea.

Bigarren Federazio Mailan dago Sestao River, baina denboraldia hasi zenetik emaitza izugarriak lortu ditu.

Urte hasieratik taldeak argi zuen helburua zein zen eta orain arteko erregulartasunari esker hor goian mantendu gara une oro. Egia da partidu batzuk jarraian irabazi gabe izan garela, baina, orokorrean, taldeak oso maila handia erakutsi du denboraldi osoan zehar.

Liga txapelketa horiek oso lehiakorak izaten dira; zein da gakoa?

Guk badakigu gure etxean zaleek asko estutzen dutela eta oso zaila dela bertan guri puntuak kentzea. Horrek bide ematen digu ondoren etxetik kanpo beste presio batekin jokatzeko, eta, gainera, zorionez, bidaiak ez dira oso urrutira izaten eta kanpoko partiduetan ere zaleak hor egoten dira. Asko eskertzen dugu hori.

Arlo pertsonalean ere denboraldi ona izaten ari da zuretzat.

Bai; joan den urtetik hona nuen helburuetako bat zen hamaika-



Andoni Ugarte Mendizabal baloiarekin aurtengo neurketa batean. ANDONI UGARTE

"JOAN DEN URTEAN IGOERATIK GERTU GELDITU ZIREN ETA AURTEN ARANTZA KENDU NAHI DUGU"

koan garrantzitsua izatea eta minutuak batzea. Alde horretatik, oso pozik nago ematen ari naizen mailarekin. Era berean, egia da taldea ematen ari den mailak ere laguntzen duela horretan.

Ibilbide luzea duzu atzetik. Aurten koska bat jaitsi duzu: Lehenengo Federazio Mailatik Bigarreneara; zergatik?

Bai, egia da. Oraindik ikusteko dago maila berri horien exigentzia-maila zein den. Nire asmoa berriz konfiantza hartzea zen, datorren urtera begira, igoera lortuz gero ikusteko ea Lehen Federazio Mailan ondo lehiatzeko gai garen ikusteko.

Eta taldea Lehen Federazio Mailan lehiatzeko moduan ikusten duzu?

Talde nahiko osoa daukagu postu guztiei begiratuz gero. Egia da, ordea, jautzia dagoela batetik bestera, eta, oinarria mantentzen

badugu ere, esperientzia duen jendearen beharra izango dugu. **Momentuz, urtebeteko kontratua duzu; jarraitzea gustatuko litzazuke?**

Bai; udan urtebeterako sinatu nuen, baina jarraitzeko ilusioarekin nago, urte polita ateratzen bada eta egunerokotasunean gustura baldin banago. Oraindik helburuak lortzeko pixka bat falta zaigu, eta ondoren izango da denbora guztia aztertzeke; nik neuk gustura jarraituko nuke.

Etorkezunera begira zeintzuk dira zure helburuak?

Futboleko jarraitzeko gogoia eta asmoa dut, izan Sestaon, izan beste toki batean.

Gaur egun futbolarietako euren ibilbideak asko luzatzen dituzte; noiz arte ikusten duzu zeure burua futbolekoan?

Urte batzuk daramatzat jada jokatzeko. Uste dut heldutasun-maila bat lortu dudala, eta orain hori aprobetxatu behar dut maila ona eman eta, posible bada, jauzi handiago emateko. Era berean, nire gorputza ondo ikusten dut eta gustatuko litzaidake urte gehiago jokatzeko aritzea.

Aritz Garmendia, futboleko talde nagusiaren entrenatzaile berria

Garikoitz Nuñezek bete duen tokia hartuko du aurrerantzean, egoera zailari buelta ematen saiatzeko

I.B.K. OÑATI

Azken asteetako emaitza-bolada txarraren ondorioz, Aloña Mendiko futboleko zuzendaritzak Garikoitz Nuñez eta haren talde teknikoa kargutik kentzea erabaki du astean bertan. Nuñez denboraldi berriarekin batera iritsi zen txantxikuarren aulkira, eta, nahiz eta hasiera ona izan, azken emaitzen ondorioz taldea sailkapenaren zuloan da gaur egun. Klubetik esker oneko hitzak besterik ez dute izan eurentzat.

Hain zuzen, egoera zailari buelta ematen saiatzeko hartu

du erabakia zuzendaritzak, eta legazpiarraren ordez Aritz Garmendia taldeko jokalaria ohiak hartu du haren ardura. Etxekoen aldeko apustua izanik, harekin batera izango dira Iñigo Zubia, Aimar Lizarra, Gorka Lazkano eta Mikel Aginagalde; denak jokalaria ohiak. Egoera zaila izanagatik, klubetik aldaketa "pizgarri" bezala hartzen dute. Aldaketa, ordea, berdegunean ikus behar da eta lehen aukera domekan dute (16:30), Tolosaren aurka, Azkoagainen.

Paul Urkijo izango da domekan 'Irati' filmaren emanaldian

Zinema-jaialdietan arrakasta izan ostean, joan den astean iritsi zen zinema-aretoetara *Irati* filma, Paul Urkijoren azken lana. Oñatira, berriz, gaur gauean helduko da (22:00). Guztira, bost aldiz proiektatuko dute: gaurkoaz gain, bihar arratsaldean 19:30ean, igandean bi aldiz -19:30ean eta 22:00etan- eta astelehen arratsaldean 19:30ean.

Igande arratsaldeko emanaldian, gainera, filmaren zuzendari Paul Urkijo egongo da. Pelikula hasi aurretik sarrera txiki bat egingo du, eta, amaitu ondoren, ikusleen galderak erantzungo ditu. Bestalde, proiektzio guztiek gaztelarazko azpititulua izango dituzte.

Oñatiko Zizelkatzaileek tailerra antolatu dute

Martxoaren 8tik ekainaren 14ra bitartean izango dira eskolak, eguaztenetan, Francisco Javier Arrieta irakaslearekin: 14:45etik 16:45era eta 17:00etatik 19:00etara. Prezioak dira: taldeko bazkideek, 50 euro; langabeek, 40 euro; eta langileek, 60 euro. Izena eman nahi duenak zizelkatu@gmail.com helbidera idatzi behar du mezua.

Musika-hitzorduz betetako asteburua Antixena gaztetxean

Gaur, gaueko hamarretan hasita, bi kontzertuekin gozatzeko aukera izango da: alde batetik, Bartzelonatik datorren Pinpilinussies taldea, Ane Barcena durangarrak eta Raquel Pages tarragonarrak osatutako bikotea. Bigarren kontzertuan, boskote gipuzkoar bat izango da eszenatokian, Azkoitiko Ro taldea. Soldatadunek 8 euro ordaindu beharko dituzte; besteek, 3 euro.

Igande eguerdian izango da beste hitzordua: 12:30ean hasita, Don Inorrez taldeak emango du kontzertua; Imanol Ubedak gidatzen duen proiektua da. Soldatadunek 5 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, 3 euro.

Kantari saiko grabaketak asteburuan Oñatin

Domekan izango dira, arratsaldeko bostetatik zortzietara, eta sarrera doan izango da. Beñat Arizabaletak aurkeztuta, guztira bost emanaldi grabatuko dituzte eta saio bakoitzean sei taldek hartuko dute parte. Bestalde, grabaketa horietan ateratako argazkiak eskuko telefonoetan jasoko dituzte gurasoek datorren astean.

WUT

GAZTEEK
GAZTEENTZAT

BERRITUA

DESKARGATU
ALDIZKAARI
DIGITALA DOAN!





Aretxabaletako Durana kalean ziklistak, iazko abuztuan, lasterketa noiz hasiko zain. X.U.

Motor barik ez dago ziklismorik

TXIRRINDULARITZA Txirrindularitza lasterketetan bidegurutzeetako segurtasuna bermatzen eta lotura-lanak egiten ibiltzen diren motor-gidariak planto egin dute. Eta, horren ondorioz, Gipuzkoan antolatzen dituzten probak bertan behera utzi dituzte

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE
Gipuzkoako txirrindularitza denboraldia kolokan dago. Aste barruan Gipuzkoako Federazioak erabaki du lasterketak bertan behera uztea. Hori horrela, zapatuan Beasainen eta domekan Eibarren ez da lasterketarik egongo. Arazoa sortu da lasterketetan bidegurutzeak zaintzen dituzten eta lotura-lanak egiten dituzten motorzaleek planto egin dutelako, eta euren laguntza barik Ertzaintzak ez du lasterketarik egiteko baimenik ematen, errepideetako segurtasuna bermatzen laguntzen dietelako.

Boluntario-lanetan

Lasterketetan laguntzen ibiltzen diren motorzale horiek boluntarioki egiten dute lan, nahiz eta diru-sarrera bat jasotzen duten, besteak beste, motorraren

gastuei aurre egiteko. Iaz, baina, errepidean izan zituzten istripu batzuek erakutsi zuten badituztela gabezia batzuk; tartean, istripuaren ondorioz motorrak jasaten dituen kalteak motorzaleak berak bere gain hartu behar dituela. Eta ez daude horrekin ados. Hala, lasterketetan Ertzaintzak motorzaleak eskatzen baditu, euren figura lanpostu moduan jasotzea eskatzen dute, motorra bera ere lan-erreminta moduan aseguratu ahal izateko.

Gipuzkoako Federazioa astelehenean bertan batu zen eragile guztiekin konponbide baten

IBARREAN URTEAN DOZENA BAT LASTERKETA ANTOLATZEN DITUZTE; KOLOKAN DAUDE

bilan, eta ez zenez soluziorik egon, Federazioak asteazkenean adierazi zuen lurraldeko lasterketak, oraingoz, bertan behera geratzen direla.

Aloña Mendiko ziklismo saileko presidente Aitor Atorrasagasti izan zen asteleheneko batzarrean: "Aste barruan kadete eta junior mailetako ziklistekin berba egin behar izan dut, egoera azaltzeko, eta asteburuko lasterketak bertan behera geratu direla azaltzea gogorra izan da; ikustekoak ziren gazteen aurpegiak... Nik ulertzen ditut motorzaleen eskaerak, baina Gipuzkoako Federazioa badabil Jaurlaritzarekin lanean, eta presio egiteko modu horrek, azkenean, harrobiko txirrindularitza egiten dio min, klubei, lasterketeko antolatzaileei, eta ziklista gazteei; horrek ematen dit min".

Proben antolatzaileak, arduraduta



JON UNAMUNO
LOKATZA

Ziurgabetasun handiarekin ari gara gaia jarraitzen, gu, esaterako, Goriako lasterketa antolatzen hasita gaudelako. Ulertzen dugu motorzaleen eskaera; iaz klubek dirutza ordaindu genuen motorzaleen aseguruengatik.



JOXERRA AGIRREURRETA
DORLETAKO AMA

Herri txikietan geroago eta zailtasun handiagoak ditugu lasterketak antolatzeko, ate asko jo behar izaten dira babesleak aurkitzeko. Erraztasunak behar ditugu, ez traba eta burokrazia gehiago.



AITOR ATORRASAGASTI
ALOÑA MENDI

Motorzaleen eskaerak ulertzen ditut, zentzuzkoak dira. Baina Federazioa badabil Jaurlaritzarekin lanean, eta planto honek klubei ziklistei eta antolatzaileei egiten die kalte, harrobiko ziklismoari.



X.U.

"Zentzuzkoa da motorzaleen eskaera"

IÑAKI JULDAIN
MOTOZALEA

Txirrindulari ohi gisa, Iñaki Juldain penaz dabil egoera hau bizitzen. Pandemia aurretik, Arrasateko kadete mailako lasterketa antolatzeko lanean ibili zen, eta, aspaldian, motorzale moduan ere ibiltzen da laguntzen.

Zein da motorzaleen eskaera?

Aspaldiko eskaera da. Motorzaleek eskatzen duguna da errepidean berme osoarekin ibili ahal izatea; alegia, istripuren bat badago, mediku-etxeko gastuekin batera motorrean gerta daitezkeen kalteak ere estalita izatea. Ni tarteka ibiltzen naiz laguntzen, txirrindularitza gustuko dudalako, eta boluntario joaten naiz. Baina motorzale batzuek lasterketa mordera egiten dituzte eta arriskua areagotu egiten da.

Zein lan egiten duzue lasterketetan?

Hasteko, lasterketaren ibilbidea aztertu egin behar da aurretik, eta bidegurutzeak non dauden eta zelakoak diren ikusi behar dira. Gero, motor-gidari horiek lasterketa aurretik joaten dira, bidegurutzeetako zirkulazioa zaintzen eta ertzainei laguntzen. Erantzukizuna izaten dugu, lana txarto egiten badugu istripu bat gerta daiteke eta.

Ibarran ez dute zaleen liskar gehiagorik nahi

FUTBOLA UDAko gazte mailako Euskal Ligako taldearen bueltan egoten diren zale gazte batzuen jarrera txarragatik klubak dagoeneko 550 euro ordaindu ditu isunetan; joan den astean, Gasteizen, Betoñoko jokalariek eta epailea iraintzen ibili ziren

Xabier Urzelai Atxa. ARETXABAETA "Putasemeak", "parasitoak", "hiltzea merezi duzue" eta halako irainak entzun behar izan zituzten joan den astean gazte mailako Euskal Ligako Betoñoko jokalariek, baita epaileek ere. Betoñoren eta Aretxabaletaren arteko ligako 23. jardunaldia zegoen jokoan, eta epaileak partidua osteko aktan jasotakoak dira horiek. Zera dator aktan: "8-10 laguneko taldea zen, irainak futbol zelai osoan entzuten ziren eta Aretxabaletako zaleak ziren. Betoñoko jokalariei esan behar izan nien ez egiteko kasurik, partiduan kontzentratzeko. Halakoak ez dira inoren gustukoak".

UDAko zuzendaritzakoek momentuan bertan izan zuten gertatutakoaren berri, partidua ikustera Gasteizera joandako beste zale aretxabaletar batzuek segituan pasa baitzuten abisua. Izan ere, ez da lehenengo aldia.

Klubaren kaltetan

Astelehenean bertan, UDAko zuzendaritzak neurriak hartzeko erabakia hartu zuen. "Sare sozialetan zabaldu dugun mezua izan da zale horiek ez daitezela zapatuan Ibarrara etorri, UDAko bazkide eta zaleek ez ditugu futbol zelaian nahi", adierazi dio GOIENARI Agurtzane Elko



Aurtengo ligan, UDA eta Bergara Euskal Ligan. GOIENA

ro presidenteak. Izan ere, gazte mailako Euskal Ligako taldeak Ariznabarraren kontra jokatu du bihar, zapatua, 16:30ean, eta presidentearen susmoa da, zorritzarrez, zigor honekin kontrako efektua lortuko dutela. "Ez dakit asmatu dugun, uste dut zale gazte horiek liskarrerako gogo handiagoz etorriko direla, baina ez dakigu zein den soluzioa. Ertzaintzarekin ere egon gara, pentsa, baina horiek liskarrak dauden arte ezin dute ezer egin. Ez dakit zein den soluzioa, baina arduratuta gaude. Eta arazoa

gizarte moduan daukagu, ez da kirol talde konkretu batena".

Ez da lehenengo aldia

Halako gertaerak aurtengo denboraldian lehenago ere sufritu dituzte, eta ez Aretxabaletan bakarrik, Aloña Mendiko gazte mailako taldea "animatzera" joaten ziren zale batzuen jarren ondorioz talde oñatiarrak ere hainbat zigor jaso ditu-eta aurtun. Aretxabaletako klubak dagoeneko 550 euro ordaindu behar izan ditu isunetan zale horien liskarregatik.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Zarautz-Aretxabaleta

Zap. 16:00. Asti.

Bergara-Oiartzun

Zap. 16:30. Agorrosin.

Mondra-Zumaia

Zap. 16:30. Mojategi.

Aloña Mendi-Tolosa

Dom. 16:30. Azkoagain.

EMAK. OHOR. ERREG.

Zumaia-Bergara

Zap. 16:00. Aita Mari.

Reala-L. Arizmendi

Dom. 11:30. Zubieta.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Ariznabarra

Zap. 16:30. Ibarra.

Lakua-Bergara

Dom. 13:00. Gasteiz.

GOINGOEN MAILA

Billabona-Bergara

Zap. 16:00. Arratzain.

Tolosa-Antzuola

Zap. 17:30. Tolosa.

Mondra-Ilintza

Dom. 17:30. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Mondrate-Kukuyaga

Zap. 17:30. Musakola.

Eskoriatza-Elorrietako

Zap. 18:30. Eskoriatza.

GIPUZKOAKO TXAP.

Martutene-Mondrate

Dom. 12:30. Altza.

SASKIBALOA

EBA

Grupo Santiago-MU

Dom. 18:00. Burgos.

EMAK. LEHEN MAILA

MU

Atsedena.

GIZON. LEHEN MAILA

Ardoi-MU

Dom. 17:20. Zizur Nag.

GIPUZK. LEHEN MAILA.

Loyola-Soraluce BKE

Zap. 18:00. Altza.

Mekalki Aloña.

Atsedena.

ESKUBALOA

GIZON. EUSKA. TXAP.

Fagor Pr.-Urdaneta

Zap. 18:00. Zubikoa.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Jarrilleras-Cons. Aloña

Zap. 18:30. Portugalete.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Mugarri Ingou-

Munttarpe

Zap. 12:00. Musakola.

Saieko-Soraluce BKE

Dom. 11:30. Donostia.

ERRUGBIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

Atletico-Arrasate RT

Zap. 16:00. Donostian.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Arrasate Eibar-Bera

Bera

Zap. 13:00. Unben.

PILOTA

Eskoriatzan, zapatuan

17:30ean hasita,

Emakumezkoen Binakako

Txapelketako jaialdia.

Sarrera doan.

ESKUBALOA Fagor Profesionalek liderra hartuko du bihar

Euskadiko txapelketan diharduen Oñatiko taldeak lider dagoen Urdaneta hartuko du bihar, zapatua (18:30), Zubikoan. Txan-txikuek, jaitsiera faseko lehenengo bi partidua irabazi ostean, joan den astean hiru goleko aldeagatik galdu zuten Muskizen. Urdanetakoe fase berrian jokatu dituzten partidua guztiak irabazi egin dituzte.



Zarautzen kontrako partiduan. I.S.

Realaren eta Elxen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Elx norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek.

Reala Arena futbol zelaiko premium gasetik.

Partida martxoaren 19an, domeka, 16:15ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 13

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!

1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena^{''} kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

Euskal eta atzerriko ahozkotatasuna, bat eginda

Intujai Teatro taldeak antolatuta, hamaseigarren Ahoz Aho ahozkotatasunaren nazioarteko jaialdiaren baitan helduentzako eta haurrentzako ipuin kontaketa saioak izango dira Eskoriatzan, Oñatin eta Arrasaten; emanaldi guztiak doan izango dira

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ESKORIATZA

La Caratula antzerki taldeak antolatzen duen FIO –Festival Internacional de la Oralidad– jaialdiaren adar bat moduan jaio zen, orain dela hamasei urte, Euskal Herriko Intujai Teatro taldeak bultzatzen duen Ahoz Aho jaialdia. "Urtez urte izaera propioa hartzen joan da eta horren erakusle da aurten 30 artistarekin osatu dugula egitarau zabala; beraz, oso pozik gaude egindako bidearekin. Has-tapenetan moduan, ipuinekin edozein txokotara heltzea da jaialdiaren helburua, Euskal Herrian tradizioz ahozkotatasunak izan duen garrantzian arreta jarritz eta kontalariak behar duten espazioa aldarrikatuta", azaldu du Intujai Teatro taldeko kide May Gorostiagak.

30 kontalari aurten

Eskaintza "plurala" egin dute otsailaren 24ean abiatu eta martxoaren 24a bitartean egingo duten jaialdian. "Mugaz kanpoko kontalariak ditugu gurekin egunotan. Besteak beste: urte erdia Pazko uhartean bizi den Celine Ripol frantses-polinesiarra; Euskal Herria izugarri maitate duen Yoshi Hioki japoniarra; Belgikako Alberto Garzia maisu



Belgikako Alberto Garcia eta Eskoriatzako Dorleta Kortazar kontalariak. D.L.

handia; Nikaraguako Zoa Meza eta Nigeriako Oghohgo Nancy Orumurensen. Gonbidatu ditugun euskal kontalarien zerrenda ere luzea da, eskarmentua dutenak eta hasi-berriak ere bai; izan ere, gure jaialdiak kontalari berrientzako *trapolina* izatea ere badu helburu".

Kortazar eta Alzelai

Aurreko aldian moduan, Eskoriatzako Dorleta Kortazar eta Arrasateko Mainer Alzelai kontalarien saioak daude egitarauan jasota. "Oraingoz aurrez aurre

ezagutzen ez dudana Celine Ripollekin batera bost saio egingo ditut. Erronka polita da nahiko arrotza zaidan Polinesiako kontakizunak egitea, deskubrimendu oso politak egin ditut", dio Kortazarrek, eta zera gaineratu du: "Mainer Alzelai hainbat saio egingo ditu bakarrik, baita Igor Sala musikaria lagun duela ere, eta, horrez gainera, ikastetxeetan ikastaroak gidatuko ditu. Jaialdia handitu egin denez, antolatzaileei anfitrioi lanetan laguntzen ari gara Alzelai eta biok".

Debagoienean egingo diren emanaldiak

Eskoriatza

- **Alberto Garcia (Belgika)** Martxoak 3, 19:00, Zaldibar antzokian. Helduentzako. Gazteleraz.
- **Marta Alzate (Euskal Herria) eta Martha Escudero (Mexiko)** Martxoak 17, 19:00, Zaldibar antzokian. Helduentzako. Euskaraz eta gazteleraz.
- **Yoshi Hioki (Japonia)** Martxoak 24, 19:00, Zaldibar antzokian. Helduentzako. Gazteleraz.

Oñati

- **Dorleta Kortazar (Euskal Herria) eta Celine Ripoli (Frantzia/Polinesia)** Martxoak 9, 18:00, kultura etxeko zinema aretoan. Haurrentzako. Euskaraz eta gazteleraz.

Arrasate

- **Zoa Meza (Nikaragua) eta Maite Franko (Euskal Herria)** Martxoak 22, 18:00, Santa Marinako bibliotekan. Haurrentzako. Euskaraz eta gazteleraz.
- **Yoshi Hioki (Japonia)** Martxoak 23, 19:00, Kulturaten. Helduentzako. Gazteleraz.

Emanaldiak doan dira.

'Bretxa' musikalaren azken bi emanaldiak

Bihar, zapatua, 20:00etan –sarrerak agortuta– eta domekan 18:30ean, Udal Pilotalekuan

A. Aranburuzabala BERGARA

Ekitaldi batek duen arrakastaren adierazle bat da sarrera salmenta, eta BAM (Bergarako Antzerki Musikala) elkarteak ezin dira kezatu ikusleen harrerarekin. Victoria Eugenia egin zituzten hiru emanaldietakoak agortu egin ziren, eta gutxi geratzen dira asteburuan jaioterrian eskainiko dituztenerako. *Seminarixoa.eus* atarian eros daitezke. "Oso eskertuta gaude Udalarekin, pilotalekuko erabiltzaileekin, ikusleekin eta lagun duguten guztiarekin. Txaloga-rria, aldi berean, parte hartzaile guztien lana, artista-boluntario zerrenda itzela! Makineria handia da, eta, oraingoz, ez dugu emanaldi gehiagorik lotuta, baina ahalegina egingo dugu beste toki batzuetan ere eskaintzeko", dio *Bretxa*-ko musika zuzendari eta konpositore Oihan Vegak.

Soldaduen desfilea kalean

XIX. mendeko itxura izango dute erdiguneko kaleek. "Ikuskizuna hasi aurretik, 45 minutuko ibilbidea egingo dute soldaduek. Bidekurutzetatik abiatuko dira eta Fraiskozuri plazan bukatuko dute. Modu horretan, frontoira joaten ez direnek ere *Bretxa*-ren berri izango dute".

GOIENA TELEBISTA

SASOI BERRIA

THE CASANOVAS

MARTXOAK 3, EGUBAKOITZA, 21:00 ETA 23:00

KOOLTUR OSTEGUNEKO KONTZERTUA

KOOLTUR EKINTZAK TALDEAREKIN ELKARLANEAN

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Ekinez Musika Elkarteko Oier Aperribai eta Julen Iñarra, asteon, Labegaraietako kiroldegia- ren kanpoko kantxan. JOKIN BEREZIARTUA

Iaz Agorrosinen eta aurten Labegaraietan

Ekinez Musika Elkarteak aurten bigarrenaz antolatutako duen Ekinez musika jaialdia ekainaren 9an eta 10ean izango da eta euskal zein atzerriko hamazortzi talde izango dira taularen gainean; Ekinez Elkartearen sare sozialetan daude sarrerak eskuragarri

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Iazko udan zehar belar naturala kendu behar zelako eta horretarako aukera zegoelako Agorrosin futbol zelaian egin zuten Ekinez musika jaialdia aurten Labegaraieta kiroldegia- ren kanpoko kantxan egingo dute, eta, "dena ondo bidean", aurrerantzean ere Labegaraietan gura dute jaialdia egonkortu.

Bigarrena iazko dinamika eta helburu berarekin egingo dela dio Oier Aperribaik: "Kaleko musika bultzatzeko eta sustatzeko helburuarekin sortu genuen jaialdia eta asmo berekin jarraitzen dugu, baina kanpora zabaldu gura izan dugu eta atzerriko

lau talde ekarriko ditugu: Biznaga madrildarrak; power pop estiloa egiten duen Parisko Alvilda; Kanadako Bishops Green; eta Italiako Bull Brigade".

Hiru gune izango dira

Talde horiez gainera, euskal ordezkariak zabala izango da taularen gainean: Hell Beer Boys, Skabidean, Tatxers, Doubling Boys, Odolkiak Ordainetan, Rebel Noise, Perlata, Against You, Txakurrak, Sofokaos, Harria eta Letagin. Azken talde hori Danbaka musika lehiaketa barruko Danbaka-Ekinez sariari esker egingo da.

Kartelaz harago, eskaintza zabalagoa egin gura dutela adie-

razi du Ekinez Elkarteko Julen Iñarrak: "Faltan igarri genituen zerbitzu batzuk ematea da gure asmoa. Iaz, eguneko 4.500 lagun inguru izan ziren eta kanpotik jende asko etorri zen; beraz, kanpatzeko gune bat jarri nahiko genuke. Hiru gune izango dira: Ekinez gunean, karpan, kontzertuak; Ekintza gunea, kirola egiteko; eta Eginez gunean musika urbanoari espazioa ematea da gure asmoa".

Hiru sarrera mota

Ekinez sare sozialetan salduko dituzte sarrerak, eta hiru motatakoak daude: egunekoak, asteburuko bonua eta kanpin-zerbitzuarena hirugarrena.

Neomak taldea Donostiako Victoria Eugenia martitzenean

'Gure ahotsak' ekimenaren baitan eskainiko du kontzertua kide arrasatearrak dituen taldeak, 19:30ean

A. A. J. ARRASATE

Emakumeen sormenari bide emateaz gain, hasiberriak eta eskarmentua dutenak oholtza gainean elkartzea du helburu Donostia Kulturak Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan

antolatzen duen ekimenak. Gaur hasita, bost kontzertu izango dira martxoaren 7ra bitartean.

Honako musika proposamen hauek izango dira, hurrenez hurren; egun bakoitzean bana: Natalia Lakuntza, Olatz Salvador,

La Bien Querida, Maite Larburu Trio eta Neomak.

'Donostiakultura.eus' atarian

Kantabrian eta Galizian "kontzertu arrakastatsuak" egin ondoren, "ilusio handia" dute Neomakekoek martitzeneko emanaldirako. "Orain arteko bereziena eskainiko dugu guretzako erreferenteak diren artistekin osatutako egitarauan", diote sare sozialetan zabalduzako mezuetan.

Donostiakultura.eus atarian daude sarrerak eskuragarri.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO IRABAZLEAK

'INN JOO' TABLETA

Larraitz Arabaolaza Landa (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Kosme Errasti Lasa (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Iosu Zubizarreta Aranguren (Arrasate)

Maialen Zabaleta Isasmendi (Arrasate)

Enrike Elkoro Sarasua (Elgeta)

BERGARAKO BATZOKIRAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Uxue Zabaleta Arin (Bergara)

TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Oxel Apraiz Gallestegui (Arrasate)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Beatriz Leta Colaya (Bergara)

'FAMILIA SAREKADA' ANTZERKIRAKO SARRERAK

Gotzone Arrese Errasti (Aretxabaleta)

'GURE KANOA' ANTZERKIRAKO SARRERAK

Xabier Altzelai Jauregi (Antzuola)

REALAREN ETA CELTAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK

Miguel Angel Sanchez Montero (Bergara)

REALAREN ETA VALLADOLIDEN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK

Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Antzerkizako sarrerak: Goiena Klubeko txartela eskuzatuta, bira sarean izango dituzue Antzerkizako txarteldegian. Sareak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK:** Aretxabaleta, Oñati 943 08 20 00. Ordutegia: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (sareak dala hitzorduz egiteko) Harenan denda bitartez. **Otarrea jasotzeko,** jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harenan denda. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendan. **Tableta jasotzeko,** zeto: GOIENAREN egoitza. Sare jasotzeko: BAZKIDEAREN TXARTELA eskuzatuta edota BAZKIDE ZENBAKIA aditza eman behar da GOIENA Datas Lizenziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: asteleheneretik egunero: 09:00 - 18:00. Eguzkitzetan: 08:00 - 14:00

Realaren eta Elxen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Elx partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeraturako beste lagun batek. **Real Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Partida martxoaren 19an, domeka, 16:15ean izango da.**

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 13

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Egiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu pertel! Parte hartzeko azken eguna: martxoak 7.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jasotzea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 65 €
Datu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!


goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

HILDAKOAK


- Asuncion Larrañaga Errasti.** Arrasaten, otsailaren 17an. 96 urte.
- Carmen Martinez Alcalde.** Eskoriatzan, otsailaren 17an. 98 urte.
- Mateo Gallego Garcia.** Aretxabaletan, otsailaren 18an. 84 urte.
- Marcelina Zubizarreta Ruiz de Azua.** Arrasaten, 18an. 86 urte.
- Ines Larrocha Ruiz de Egino.** Arrasaten, otsailaren 19an. 98 urte.
- Bittor Etxebarria Elorza.** Aramaion, otsailaren 21ean. 85 urte.
- Margarita Altuna Cillaurren.** Aramaion, otsailaren 21ean. 76 urte.
- Isabel Carrillo Carmona.** Aretxabaletan, otsailaren 21ean. 96 urte.
- M. Pilar Bengoa Altuna.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 80 urte.
- Eugenio Otsoa Ugalde.** Leintz Gatzagan, otsailaren 21ean. 71 urte.
- Domingo Arana Bergaretxe.** Aretxabaletan, otsailaren 22an. 86 urte.
- Maria Luisa Iriarte Mujika.** Oñatin, otsailaren 22an. 96 urte.
- Juli Martin Rodriguez.** Oñatin, otsailaren 22an. 64 urte.
- Fernando Fortuna Garcia.** Arrasaten, otsailaren 23an. 81 urte.
- Regino Murguizu Chinchurreta.** Bergaran, otsailaren 24an. 88 urte.
- Antonio Arias Rodriguez.** Bergaran, otsailaren 24an. 86 urte.
- Gloria Paunero Lopez de Oñate.** Arrasaten, otsailaren 26an. 90 urte.
- Begoña Zabalo Lekerikaonandia.** Arrasaten, 26an. 90 urte.
- Benita Ibabe Orueta.** Arrasaten, otsailaren 26an. 93 urte.
- Carolina Costa Suarez.** Aretxabaletan, otsailaren 27an. 80 urte.
- M. Teresa Balerdi Zubeldia.** Oñatin, otsailaren 27an. 92urte.
- Juan Andres Naranjo Custodio.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 84 urte.
- Eustas Lazpita Markaide.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 60 urte.

ESKER ONA



Regino Murguizu Chinchurreta

2023ko otsailaren 24an hil zen, 88 urte zituela.




Beti izango zara gure bihotzean.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gure ondoan izan zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko martxoaren 3an.


ESKER ONA




Eugenio Otsoa Ugalde

Leintz Gatzagako Alkatea

2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.



Leintz Gatzagako Udalak eskerrak eman nahi dizkizue gure herriko alkate izan zenaren azken agurra posible egiten lagundu zenuten guztioi. Baita bertaratu zineten lagun guztioi ere. Denon bihotzetan izango da betirako.



Leintz Gatzagako Udala.
Leintz Gatzagan, 2023ko martxoaren 3an.

ESKER ONA



Domingo Arana Bergaretxe

'Txomin'

2023ko otsailaren 22an hil zen, 86 urte zituela.



*... lagunen lagun zinen, umoretsu, kantuzale...
Zaindu eta maitatu gaituzu.
Bide berri honetan, bakea opa dizugu, aita.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bere arimaren aldeko meza domekan izango da, martxoaren 5ean, 12:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian.

Aldez aurretik, mila esker etorriko zaretenoi.
Aretxabaletan, 2023ko martxoaren 3an.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gari deitu zuzenean edo, nahizago baduzue, jakinarazi zuten azguru-konpainari gurekin nahi dituzela agurtu naiten dituzena.



Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotz sendatze bala dute horietakoak. Guk badingu gorleku zuzentzeko, gure behar dituzenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA



Talde-lana
Modu horretan aritu ziren 60 bat lagun Bergarako herri-lurretan pagoak landatzen. Kukubaso elkartearen ekimenez, Erreziñategi eremuan ibili ziren.



Egur-lanak bistara
Egurra artelan bihurtzen duen Arrasateko Tailaginen Elkarteak 40. urteurrena ospatzen dabil. Taldeko kideek egindako lanak bistartzeko erakusketa zabaldu du.



Bertsoak eta musika eskutik
Igor Elortzak, Rafa Ruedak eta Alvaro Olaetxeak Oñatiko gaztelekuan aurkeztu zuten *Anonyme popular* disko-liburua. Bertsoekin, hip-hop, rock eta bachata doinuak entzun ziren.



Azkena, etxean
Xabier Amenabar –ezkerretik, hirugarrena– bergararraren azken kontzertua izan zen *Otxotesena kantuz* ikuskizuna. Lur Maitea eta Jatorki otxoteek parte hartu zuten.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**THE CASANOVAS TALDEA**

Melbourneko (Australia) taldeak hasi zuen Kooltur Ostegunetako 2022-2023ko ikasturtea, urriaren 6an. Orduko zuzeneko, osorik.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**BERGARAKO KANTARI SAIOAK**

Bergarako Seminarixoa grabatutako saioak ikusten hasteko ordua heldu da. Kantari gaztetxoak oholtzara igoko dira.

'Kantari' Zapatuan 16:00etan eta domekan 09:00etan

**AMERIKETATIK HELDUTAKO PRODUKTUAK**

Jose Antonio Aspiatzuk azaldu dio Txomin Madinari Ameriketatik zein produktu heldu ziren Euskal Herrira XV. mendean.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'HARA, BI!' SAIOAREN DENBORALDI BERRIA**

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko ikasleekin solasean. Imajinatzen al dute haur oñatiarrek pantailarik gabeko mundurik?

'Hara, Bi!' Eguaztena, 21:00 eta 23:00

**KAZETARI GAZTEAK AIERT ALBERDIREKIN**

Imanol Belokik gidatutako saioan, Bergarako Aranzadi ikastolako ikasleak izango dira kazetari: musikari oñatiarra elkarrizketatu dute.

'Galdegazte' Eguena, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3**ARETXABALETA Ixadebalde**

Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00.

Kalean.

ESKORIATZA Oreka jolasak

Bi txanda: 16:45ean HHko ikasleak eta 18:00etan LHkoak.

Ludotekan.

ARRASATE Nagusilan

ezagutzeko aukera Irekia.

Kulturaten, 17:00etan.

ESKORIATZA Murala margotzea

Lexuri Doyagueren laguntza izango dute gaztetxoek. Gaur eta bihar artean margotuko dute.

Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI 'Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa' liburuaurren aurkezpena

Erreusak proiektu etnografikoan egindako lana jasotzen duen liburua da. Salgai egongo da.

Zinema aretoan, 18:00etan.

ARRASATE 'The gyg is up' dokumentala

Ostean, eztabaida. Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendari Paul Ortega, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena eta Mundukideko presidente Iñigo Albizuri egongo dira.

Kulturaten, 18:15ean.

ESKORIATZA 'Ella y mi genero' ipuin kontaketa, helduendako

Alberto Garciak egingo du saioa, Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren baitan. Debalde.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI Pinpilinussies eta Ro taldeak

Sarrerak: soldata duina dutenek zortzi euro eta besteek, hiru.

Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARAKO Mice eta Hartz musikariak

Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.

Kartzela zaharrean, 22:30ean.

ZAPATUA 4**OÑATI Zuhaitz azoka**

Ingurumen Jardunaldien baitan. Foruen plazan, 09:00etan.

OÑATI Sendabelarren inguruko hitzaldia eta irteera

Garbiñe Larreaen *Sendabelarrek dakitena* liburua aurkeztuko dute, Ingurumen Jardunaldien baitan.

Natur Eskolan, 10:00etan.

ARETXABALETA Ixadebalde

Ordutegia: 10:00-14:00.

Kalean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30.

Musakola auzoan, 11:30ean.

ARRASATE Mahai-jolasak

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE 'Quo' dantza emanaldia

Dantzaz taldearen programa berria. Hiru koreografia-piezak osatzen dute ikuskizuna. Sarrerak, hamar euro.

Amaia antzokian, 19:30ean.

BERGARAKO 'Bretxa' musikala

Bergara Antzerki Musikala Elkarteak eta Bergarako Musika Eskolak lankidetzan sortutako musikala.

Pilotalekuan, 20:00etan.

DOMEKA 5**OÑATI Zuhaitz Eguna**

Zuhaitz landaketa egingo dute, Ingurumen Jardunaldien baitan.

Foruen plazan, 10:00etan.

OÑATI Don Inorrez taldea

Imanol Ubedak gidatzen duen proiektua da. Sarrerak: bost euro soldata duina dutenek eta hiru euro soldata gabeeek.

Gaztetxean, 12:30ean.

ESKORIATZA 'Lur planetako ikerketa' filma

Umeendako. Sarrerak, bi euro.

Zaldibar antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Familian jolasean

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

BERGARAKO 'Bretxa' musikala

Bergara Antzerki Musikala Elkarteak eta Bergarako Musika Eskolak lankidetzan sortutako musikala. Aurretik, hainbat pertsonaia kalerik kale ibiliko dira.

Pilotalekuan, 18:30ean.

ARETXABALETA Erligio-musika kontzertua

Aretxabaleta abesbatza, Jose Luis Franzesena organo-joleak lagun eginda. Kantu gregorianoak eskainiko dituzte, besteak beste.

Parrokian, 19:00etan.

ESKORIATZA 'El Vasco' filma

Helduendako. Sarrerak, hiru euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 6**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARAKO Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

San Martin plazan, 12:00etan.

MARTITZENA 7**ARETXABALETA 'Bullying egoerak minimizatzeo ingurune seguruak sortu' hitzaldia**

Treba gurasoak egitasmoaren baitan. Debalde, baina izena eman behar da: gazteria@aretxabaleta.eus helbidera idatzi beharko da.

Arkupen, 18:00etan.

ELGETA Irakurketa taldea
Bertol Arrietaren *Gezurra berdaderoa* liburuaren gaineko saioa.
Liburutegian, 19:00etan.

ARETXABALETA Musika Bandaren kontzertua
Leizarra musika eskolako musikariak.
Arkupan, 19:00etan.

ARRASATE 'Elbira' dokumentala
Iban Gonzalezen lana, martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 8

OÑATI 'Bakardadearen aurkako Gipuzkoako estrategia: Hariak' hitzaldia
Ainhoa Becerrak egingo du berba, Esperientzia Gelak gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Txotxongiloen ametsak' erakusketa
Corrado Masaciren lanak ikusteko aukera, hilaren 31ra arte.
San Joxepe elkartean, 16:00etan.

BERGARA Kafekonpon
Etxeko tresna txikiak konpontzeko.
San Joxepe elkartean, 16:00etan.

ESKORIATZA Eraikuntza tailerra
Bi txanda: 16:45ean HHkoak eta 18:00etan LHkoak.
Ludotekan.

BERGARA Baserritarren azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

EGUENA 9

ESKORIATZA Odol-ateratzea
Autobusa egongo da.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

OÑATI 'Polinesiako ipuinak' kontaketa
Celine Ripollek eta Dorleta Kortazarrek egingo dute, 6 urtetik gorako umeendako.
Liburutegian, 18:00etan.



BAME

BERGARA 'Bretxa' musikala
Bergara Antzerki Musikala Elkarteak eta Bergarako musika eskolak lankidetzan sortutako musikala. Emanaldi bikoitza. Sarrerak geratzen dira domekakorako bakarrik.
Zapatuan eta domekan, Seminarixoan.

ESKORIATZA '¿Medias naranjas? Más allá de ideales románticos' hitzaldia
Biologo eta sexologo Natalia Urteagak egingo du berba.
Zaldibar antzokian, 18:30ean.

ARETXABALETA Literatura solasaldia
Slavenka Draculic idazlearen *Han ez banengo bezala* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Liburutegia, 19:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Bengo
Oiertzungo musikariaren emanaldia. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 10

ARRASATE 'Egurra lantzen' erakusketa
Arrasateko Tailaginen Elkartean 40. urteurrenaren harira egindako bilduma. Ikusgai, hilaren 17ra arte.
Kulturaten, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Elbira' dokumentala
Elbira Zipitria Irastortza irakasle zumaiairaren bizitza kontatzen duen lana.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'Arima' dantza emanaldia
La Pulgarekin eta Berriketan taldearekin. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarioan, 20:00etan.

OÑATI Dardo txapelketa
Izen-ematea 20:30ean eta txapelketaren hasiera 21:00etan. Parte-hartzaile bakoitzak hiru euro ordaindu beharko du.
Gaztetxean.

ZAPATUA 11

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30.
San Andresko gazte txokoan.

BERGARA 'Kelsonia eta itsasoa' antzerkia haurrendako
Adiskidetasunaz eta bizirautiaz hitz egiten duen lana taularatuko du Gorakada taldeak, Nerea Ariznabarreta aktorearekin eta Maider Lopez musikariarekin. Sarrerak, lau euro.
Seminarioan, 18:00etan.

ARRASATE 'Zazpi nota nahi beste kolore' kontzertua
Arrasate Musikalen 50. urteurrenaren harira. Arrasate Musikaleko musikariekin batera egongo dira herriko beste hainbat musikari eta talde, eta Bergarako Orfeoia. Sarrerak, hamar eurotan, Monte, Kajoi eta Ezkiña tabernetan.
Pilotalekuan, 19:30ean.

OÑATI Asgarth eta Basati taldeak
Sarrerak, hamar eurotan, Txokolateixan eta Udalaren webgunean.
Gaztelekuan, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Almas en pena de Inisherin
Domeka eta astelehena: 19:30.

BERGARA
SEMINARIOA
Irati
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA
Irati
Egubakoitza: 22:00. Zapata eta domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA
ARKUPE
Irati
Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30. Astelehena: 16:00.

GASTEIZ
FLORIDA
As bestas
Egubakoitza eta zapata: 20:45. Domeka: 20:30. Astelehena: 20:00. Eguaztena eta eguena: 19:30.

El gato con botas
Zapatua eta domeka: 12:00. Asterix y Obelix Zapata eta domeka: 12:00.

Los Fabelman
Egubakoitza eta zapata: 16:45. Domeka: 18:15. Astelehenetik eguenera: 17:00.

Mi querido monstruo
Zapatua eta domeka: 11:45.

Quantumania
Egubakoitza: 19:15, 21:45. Zapata: 12:00, 19:15, 21:45. Domeka: 12:00, 18:30, 21:00.

Astelehena: 19:30. Martitzenetik eguenera: 20:00.

El triangulo tristeza
Egubakoitza eta zapata: 17:30. Domeka: 16:30. Astelehenetik eguenera: 16:45.

Elas hablan
Egubakoitza eta zapata: 21:30. Domeka: 21:15. Astelehena: 21:00. Martitzenetik eguenera: 17:00.

Irati
Egubakoitza eta zapata: 21:30. Domeka: 21:15. Astelehena: 21:00. Martitzenetik eguenera: 17:00.

Irati (euskaraz)
Egubakoitza: 19:30, 22:00. Zapata: 11:30, 19:30, 22:00. Domeka: 11:30, 18:30, 21:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30.

Momiak (euskaraz)
Egunbakoitza eta zapata: 17:15, 18:45.

Domeka: 16:30, 17:00. Astelehenetik eguenera: 19:00.

Momias
Egubakoitza: 17:00, m19:45. Zapata: 11:45, 17:00, 19:45. Domeka: 11:45, 16:15, 18:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

Creed II
Egubakoitza: 17:15, 19:30, 21:45. Zapata: 11:30, 17:15, 19:30, 21:45. Domeka: 11:30, 16:45, 19:00, 21:15. Astelehena: 17:30, 21:15. Martitza, eguaztena eta eguena: 20:00.

El hijo
Egubakoitza eta zapata: 19:15, 21:45. Domeka: 19:00, 21:30. Astelehenetik eguenera: 20:00.

KRITIKA

The quiet girl ★★★★★
Zuz.: Colm Bairread. **Herr.:** Irlanda (2022). **Aktoreak:** Catherine Clinch, Carrie Crowley, Andrew Bennett. **Iraupena:** 95 minutu.

Zauriak sendatzen

ANTONIO ZABALA

Sentiberatasunez eta gustu onez eginiko film irlandarra da. Jatorria Claire Keegan idazlearen narrazio motz baten oinarritzen da. Pertsonaiek gaelikoz hitz egiten dute. Istorioa Cat izeneko neskatila baten ikuspegitik heltzen zaigu. Gurasoekin eta ahizpekin bizi da familia desegituratu batean. Catek, neskatila lotsatia eta isila, ez du jasotzen behar duen zaintza eta maitasunik. Ama haurdun dagoenez, Cat amaren lehengusinarekin eta haren senarrarekin joango da uda pasatzera. Eta etxe horretan zauriak sendatzeko beharra duten hiru pertsona elkartzeko dira. Neskatilak maitatua sentitzearen beharra du, eta bikoteak –filmean zehar horren zergatia ezagutzen joango

gara– maitasuna eta babesa ematearen beharra dauka. Elkar ezagutzearen prozesuaren lekuko izango gara. Emakumeak lehenengo momentutik besoak zabalik hartzen du Cat. Gizonari gehiago kostatzen zaio. Baina bien artean garatzen diren harremanak oso modu ederrean azalduta daude. Pertsonaiek ez dute berba askorik egiten. Begiradak, isiluneak eta keinuak benetan adierazgarriak dira momentu bakoitzean sortzen den intimitatea eta euren artean gertatzen den hurbiltze emozionala azaltzeko. Ikusleak, xehetasun eta keinu txikiak bitartez, pertsonaien artean sendotzen doazen lokarriak harrapatu beharko ditu.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Gabriela

Iragan udaran, egun bero batean, etxeko semea ortuan dabilela, hor non agertzen den etxe ondora, 70 bat urteko emakumea, gaztelaniaz mintzo dena, sekula inoiz ikusi gabea. Antzeman dio emakume ikasia eta jantzia dela. Gerora jakin du Parisen ikasitakoa dela, Sorbonan, eta medikuntzan ez ezik artean ere bere ibilbidea egindakoa dela.

Valentziatik dator Maria. Arte-galeria propioa du eta itsas paisaia eder askoak marrazten ditu, sortaldeko argia baliatuta. Paper zahar batzuetan irakurri berri du bere amandrea *hija natural* izan zela eta baserri batean bizi izan zela 5 urtez, bere ama berriz bila etorri zitzaion arte. Nolatan? Barne bulkada batek eskatu dio haritik tira egitea. Ez zuen asko uste bere genealogiaren hari-muturrak larre berde eta teilatu gorridun paisaietara ekarriko zuenik.

Gabriela zuen izena neskatoak. Mariak jakin du nola Gabrielaren ama, neskame gazte zelarik, haurdun gelditu eta umea *kendu* ostean Bartzelonara bidali zuten. Pentsa litekeenez, agian, emakumeen erreklusio etxe batera. Sarritan, *destierroa* baitzen garaiko autoritate patriarkalak ama erditu berriari ezartzen zion zigor bikoitza. Moralaren izenean, zenbat horrelako.

BUKATZEKO



Imanol Beloki *Galdegazte* saioko aurkezlea eta Mariaren Lagundiko ikasleak Ainize Lizarralderekin. GOIENA

Abian da 'Galdegazte'-ren bederatzigarren aldia

Bederatzigarren edizioarekin batera aurkezle berria izango du 'Galdegazte'-k: Imanol Belokik gidatuko du ikasleak elkarrizketazaila dituen saioa eta eguenero atal berri bat izango da ikusgai, Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA
Galdegazte saioaren bederatzigarren denboraldia estreinatuzen atzo, eta, beste urte batez, Debagoieneko hamar ikastetxetako 14 eta 18 urte arteko ikasleak kazetari lanetan arituko dira gonbidatuak elkarrizketatzen. Saio bakoitzean ikastetxe bateko hiru ikasleak izango dute horretarako ardura.

Aurkezle berria
Berrikuntza nagusia aurkezle aldaketa da: Jokin Bereziartuaren lekukoa hartu du Imanol Beloki kazetariak eta hura izango da saioaren gidaria. Gogoz hartu du erronka, "hasiera batean errespetua" ematen diola aitortu badu ere: "Ardura bat ere bada, baina gogoz nago saioen grabaketetan gehiago ikasteko,

hobetzeko eta trebetasuna hartzeko. Grabaketetan urduritasunak bizi izan ditugu; esango nuke elkarrizketazaila lanetan aritu diren ikasleak baino urduriago egon naizela ni, baina, saioek aurrera joan ahala, joango gara hobetzen".

Bestalde, behin saioa grabatuta, *Zut* aldizkari digitalerako lantxoia ere egingo dute ikasleek.

Elkarrizketatuei *quiz* azkarra egingo diete, minutu batean zenbat galdera erantzuteko gai diren jakiteko. Gero, sailkapena egingo dute guztiekin. Aurkezlearen esanetan, "ohiko telebistatik haragoko ikus-entzunezko piezak sortzea izan da asmoa, besteak beste".

Eskoletan aurrez formakuntza
Grabaketan aurretik, formakuntza-saioak eskaini dizkie Belokik DBH-3, DBH-4 eta batxilergoko lehenengo mailako ikasleei, Goiena Komunikazio Taldearen eta saioaren xehetasunak nahiz kazetari multimediaren figura azaltzeko eta praktikan jartzeko, besteak beste; nerabeen erantzuna "paregabea" izan dela dio.

Aukeraturakoa gonbidatuak
Gazteek aukeratu dute nor elkarrizketatu nahi duten, baita Imanol Belokirekin elkarlanean elkarrizketa prestatu ere. Lehen atalean, esaterako, *El conquistador* saioko Ainize Lizarralde antzuolarra elkarrizketatu dute Bergarako Mariaren Lagundiko ikasleek. Eta datorren egunean Aiert Alberdi abeslariari egingo dizkiote galderak Bergarako Aranzadi Ikastolakoek. Aurreratu duenez, besteak beste, Ane Zuazubiskar bertsolari eta kazetaria, Neomak taldeko Leire Etxezarreta, Etxepe taldeko Markel Mendizabal *Axeri*, Sara Alonso esatari eta Nhil taldeko abeslaria eta Elene Errasti Alaves taldeko futbol-jokalaria gertuagotik ezagutzeko aukera izango dute debagoiendarrek.

Galdegazte-ren atal berri bat izango da ikusgai eguenero, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

AIERT ALBERDI

MUSIKARIA

'GALDEGAZTE' SAIOA
MARTXOAK 9, EGUENA, 21:30 ETA 23:30
IMANOL BELOKI KAZETARIAK ETA
BERGARAKO ARANZADI IKASTOLAKO
IKASLEEK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

